# goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2010-11-26
EGUBAKOITZA
444. ZENBAKIA
10. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET

TOKIKOM


## Euskara, elkar ezagutzeko



Kulturen arteko elkartrukea euskaraz izan dadin Auzoko delako ekimena dute Bergaran | 16

Gaur, barikua, 22:30ean, Espaloian: Xarma, Deabrutu, Seafóid eta Scam taldeak | 33

DANBAKA ))))))

GEHIGARRI BEREZIA, BARRUAN

Egongelak, sukaldeak, eraikin ekologikoak eta gehiago







Jone Medrano, Izar Biain, Irati Barrena, Anartz Azkarate eta Jorge Espinal, saritutako marrazkiarekin.

MIREIA BIKUÑA

## Indarkeriaren aurrean "ez isildu"

Atzo, emakumeen aurkako tratu txarren kontrako egunean, askotariko ekintzak egon ziren Debagoienean. Oñatiko Prebentzio Sailak, esaterako, gaztetxoendako marrazki lehiaketa deitu zuen. Irudi irabazlea erabiliko dute jaietan pegatinak edo pinak egiteko. | 20

# Integrazioa bultzatzeko bailarako bulegoa jarriko du ESK-k Bergaran

Krisiak gogorren kolpatzen duen giza taldeetako bat izanda, ESK sindikatuak etorkinei laguntzeko eta giza eskubideen gaineko zerbitzua zabalduko du urtarrilean Bergaran. Bailarako zerbitzua izango da eta etorkinei gure ekimen sozialetan parte hartzeko bidea ere erraztu nahi die. | 4

## Fagor Hometek: ikerkuntza eta garapenerako zentroa

Asteon inauguratu dute, Arrasateko San Andres auzoan | 4

## 'Punto final. Última testigo' testigantza liburua argitaratu du Intxorta 1937 elkarteak | 5

## Antzuolako abesbatzan egindako lana eskertuko diete

Salbador Olaberriak eta Luis Pildainek, 35 urte taldean | 25



Olaberria eta Pildain. | A.E.

## Baserriak erraz topatzeko errotuluak Eskoriatzan

Errepideen bidegurutzeetan jarri dituzte, 120 bat | 11


ASTEKO GAIA 2-3 | DEBAGOIENA 4-5 | IRITZIA 6 | GUTUNAK 6 | ELKARRIZKETA 8 | HERRITARRAK 10 | HERRIAK 11-27 | KIROLA 28 | KULTURA 31 | GAZTEAK 34 | ZURE IRAGARKIAK 35 | TELEBISTA-IRRATIA 36 | ESKELAK 36 | EZKONTZAK 37 | NON-ZER 38-39

# Lan-ordutegi europarra izan daiteke gurasoek behar dutena

- Enplegu Sailaren plan pilotu baten dago Lazpiur
- Lan-ordutegi malgua ezar daitekeen ikusi nahi dute
- Langileek trabak dituzte lana eta familia uztartzeko



Txantxiku ikastolako zaintza zerbitzuko umeak, eguazten goizean; etxea egin gura izan

**LEIRE KORTABARRIA** | BERGARA

"Familiako ardurak eta lana bateratzea? Zaila, oso zaila da"; horixe erantzuten du Oñatiko Errekalde herri eskolako guraso elkarteko ordezkari Nekane Zelaiak. Eta berak bezela pentsatzen dute guraso askok; horren proba da ikastetxeei egiten dizkieten eskaerak eta horiek ematen dituzten zerbitzuak, familia mundua, hezkuntza eta lana, dena uztartzeko; haurtzaindegi zerbitzua ere gero eta gehiago erabiltzen dela; adituak ikertzen hasiak diren gai bat da; eta, azkenaldian, Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak plan pilotu bat martxan jarri du, ikusteko ea Euskadin ordutegi malguak ezarri daitezkeen lantokietan. Plan pilotu horretan Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko lau enpresa daude parte hartzen, eta horietako bat Bergarako Lazpiur da.

Plan pilotu hori otsail edo martxora arte eramango dute aurrera lau enpresa horiekin, eta, han ondo funtzionatzen badu, EAEko beste enpresa batzuetara zabalduko dute hortik irteten den ordutegi eredua. Enplegu eta Gizarte Gaien Saileko Gizarte eta Lan Berrikuntzako zuzendari Gloria Muxikak azaltzen duenez, sail horrendako "estrategikoa" da lan lerro hori: "Ordutegi europarrak dituzten herrialdeetan, lana eta familia hobeto bateratzen dituzte, eta enpresak produktiboagoak dira", esaten du. Muxikaren esanetan, "zerbitzu eta industria arloetako enpresak dira, eta horrelakoak dira Euskadiko enpresa gehienak; beraz, proba horrek arrakasta baldin badu, ez da zaila izango beste enpresa batzuetan ezartzea".

Proposatzen diren neurrietako batzuk hauek dira: lan-jardun jarraia egitea; lanean sartzea 08:00etatik 09:00etara bitartean, eta 17:00etatik 18:00etara bitartean irtetea; tartean, bazkaltzeko ordu erdi edo, gehienez, ordu bete hartuko lukete langileek. Dena dela, enpresa bakoitzaren ezaugarrietara moldatuko litzateke.

### Ikastetxeko zerbitzuak

Aldaketa horiekin, helburua da langileak eta enpresak gusturago egotea eta produktiboagoak izatea; baina ondorio garrantzitsu bat da jendeari laguntzea familia eta lana hobeto bateratzen.

Hori lortzeko bide bat izan daiteke lan-ordutegiak aldatzea. Gaur egun, baina, oraindik egoera bestelakoa da: langile gehienek ez dute ordutegi malgurik eta arratsaldean Europako beste herrialde gehienetan baino beranduago irteten dira lanetik. Hala, haurtzaindegiak daude; bestalde, gurasoek eskatuta, ikastetxe gehienek zaintza zerbitzu bat eskaintzen dute. Ohiko ordutegia hau izaten da: goizetan, 07:30etik hasita, eskolak hasi arte; eta arratsaldeetan, 18:00ak arte. Ikastetxe gehienek urteak daramate zerbitzu hori ematen.

Oñatiko Errekalde Herri Eskolan, guraso elkartearen ekimenez jarri zuten martxan zaintza zerbitzua. Ikastetxeko zuzendari Jose Fernandezek dioenez, "ikasturte hasieran, gurasoek fitxa bat betetzen dute, egokien iruditzen zaien ordutegia proposatzen. Oraingoz, gure zaintza zerbitzuak gurasoen beharrei erantzuten diela uste dugu. Horrez gain, gurasoen aldetik beste eskaera edo proposamenik baldin badator, landu egiten dugu".

Zaintza zerbitzu horietan ume asko egoten dira. Arrasate Herri Eskolako arduradunek dioskutenez, "ez da kopuru finkoa, baina egunean 25 edo 30 ume egoten dira". Ikastetxeak erraztasunak ematen saiatzen dira: "Ez dugu adin mugarik; gurasoen eskaeren arabera egiten dugu", esaten dute arduradunok.

Oñatiko Txantxiku Ikastolan ere goizeko eta arratsaldeko zaintza zerbitzua ematen dute. Egunero 50 bat ume ibiltzen dira. Goizez, 4. maila artekoendako dago zabalik zerbitzu hori; arratsaldez, 2. maila artekoendako. Horrez gain, 08:15ean eta eskolak hasi arte ere, ikasgelak zabalik egoten dira adin guztietako ikasleak han egon daitezen. Bestalde, DBHko ikasleek arratsaldeetan eskolak bukatzen dituztenetik 18:00ak arte ikastolan etxeko lanak egiten gelditzeko aukera dute, astelehenetik eguaztenera.

Horrez gain, ikastetxeetako jantokiek, haurtzaindegiek... dira beste laguntza batzuk familia, umeen ikastetxeko bizitza eta gurasoen lan bizitza, denak ahal den ondoen bateratzeko.

Baina dena oraindik gutxi da; hala dio Nekane Zelaiak, Errekaldeko guraso elkarteko ordezkariak: "Segun eta norberak non lan egiten duen, samurrago edo zailago egingo zaio biak bateratzea. Eta badaude haurtzaindegiak, zaintza zerbitzuak... baina hala eta guztiz ere, gurasook laguntza gehigarria behar dugu: senitarteko batek laguntzea, aitaita-a-



Errekalde Herri Eskolako zaintzako ume batzuk, eguen goizean. | L.K.

## Zaintza zerbitzua, ezinbestekoa

Gurasoendako ezinbestekoak bihurtu dira ikastetxe gehienek eskaintzen dituzten eskola ordutik kanpoko zaintza zerbitzuak. Oro har, 07:30etik eskolak hasten diren arte eta, arratsaldean, 18:00ak inguru arte izaten dira. Ikastetxeak toki apropos bat ipintzen du, zaintzaile batzuekin, umeek jolas egin dezaten eskolak hasi edo gurasoak bila joan arte. Gehien, goizez erabiltzen dira, gurasoak lanera joan daitezen; arratsaldean, ume gehienek eskola kanpoko jarduerak izaten dituzte.

**Gure literaturaren paisaia**
E. Rodriguez, F. Juaristi,
P. Aintziart, L. Oñederra,
E. Jimenez, K. Izagirre,
A. Urretabizkaia,
Xabier Montoia, P. Otxoteko,
J. Sarrionandia, F. Etxegoien,
K. Landa, K. Altonaga, P. Ezkiaga...
eta gainera: Mohamed Xukriren elkarrizketa,
Vicente Ameztoyren objektuak, Kritikarien foroa...
**Zuzendaria:** Bernardo Atxaga
Euskaltzaindia




PAMIELA
www.pamiela.com



zuten argazkirako. | LEIRE KORTABARRIA

mamek kasu; edo bateren bat kontratatzea umeak zaindu ditzan". Eurek bultzatutako zaintza zerbitzua daukate eskolan, eta egunero eskola ordutegietatik kanpo, Gabonetan, uztailean eta Aste Santuan dago zabalik. "Gastu bat da, baina merezi du", esaten du Nekane Zelaiak.

Haurreskola Partzuergoko Txiki-txoko haurtzaindegiko Lurdes hezitzaileak esaten duenez, "Gobernuak laguntza gehiago eman beharko lituzke; gutxienez, umeak 9 hilabete izan arte. Umea haurtzaindegian goizean goizetik 19:30 arte egotea ez da konponbidea".

**Kalitatezko orduak**

Beste batzuen iritziz, landu beharrekoa da aita-amek seme-alabekin pasatzen duten denboraren kalitatea. Horrela uste dute Arrasateko Txatxilipurdi umeen aisialdi elkartekoek, euren ordezkari Eneko Barberenaren hitzetan: "Aita-amak umearekin eman ditzake lau ordu, gurasoa sukaldean eta umea telebista ikusten; edo gurasoa egon daiteke ordu bat umearekin, berarekin jolasten, telebista ikusten… hortaz, zer da hobe?". Beste ohitura batzuk proposatzen dituzte Txatxilipurdikoek: "Adibidez, erosketa-zerrenda umearekin batera egin dezakegu, eta erosketak egitera ere umearekin joan. Beti ezingo da egin, baina umearekin pasatzen dugun denbora guztiak du garrantzia".

Antzeko iritzia dauka Rafael Cristobal psikiatra arrasatearrak, hezkuntza gaietan adituak: "Ordutegi europarragoak behar direla? Konforme; baina umeak agintzen du, batez ere haurtzaindegira joaten hasten denean. Askotan, gurasoak presaka dabiltza; umea haurtzaindegian utzi eta joan egiten dira; eta behar adina denbora egon behar dira umearekin haurtzaindegian, 10-15 minutu, umea etxean bezala sentitu arte. Egunero gurasoengandik banantzea modu gozoan egin behar da". Haurtzaindegian zenbat denbora ematen duen ere neurtu egin behar da: "Zaintzaileak osabaizebak bezalakoak izan behar dira, eta horiekiko umeak ze gertutasun duen ikusi behar da. Umea pozik badago, dena ondo doa; ez badago, egonaldiak txikitu egin behar dira".

## "Malgutasunari beldurra galdu behar zaio"

Nerea Martiartu aholkularia dabil Lazpiurrekin plan pilotua aurrera eramaten. Datu batzuk ematen dizkigu: "Europan, 2008an langile bakoitzeko produktiboena Belgika izan zen, 69.100 eurorekin; Espainia beste puntan zegoen, 49.500 eurorekin". Aditu horren esanetan, EAEko egoera Espainiakoa baino hobea da, baina hala ere, ez da Europako beste herrialde batzuen parekoa. "Europan, egunaren lehenengo zatian kontzentratzen da lana; bigarren zatia familiarendako, prestakuntzarako... izaten da. Hemen, enpresa askok beldur kulturala diote ordutegi malguari, presentismoa ere badago... Horiek kentzeapausoa.

## ESANAK



**"Umearekin denbora bat eman beharko lukete gurasoek haurtzaindegian"**

RAFAEL CRISTOBAL | PSIKIATRA



**"Zaintza zerbitzua askok erabiltzen dute; 40-50 bat ume dago egunero"**

JABI AGIRRE | IKASTETXE-ZUZENDARIA



**"Gurasoek egiten dizkiguten eskaera guztiak lantzen dira zuzendaritzan"**

JOSE FERNANDEZ | IKASTETXE-ZUZENDARIA



**"Umearekin ematen dugun denbora guztiak du garrantzia"**

ENEKO BARBERENA | TXATXILIPURDIKO KIDEA



**"Badaude baliabideak, baina gurasook laguntza gehiago behar izaten dugu"**

NEKANE ZELAIA | GURASOA

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

GIPUZKOAKO GIZARTE ZERBITZUEN ETORKIZUNEKO EREDU BERRIA



JOSÉ LUIS ELOSUA
Gipuzkoako Adineko Pertsonen Kontseiluko lehendakariordea

"Gizarte Zerbitzuen gaineko lege berriaren bidez, adineko pertsonak bere ingurunean jarraitzea lortu nahi dugu, teknikoki posible den heinean, eta bere ingurutik atera beharrik ez izatea, horrek egoera animikoa eta sentimentala txartzea besterik ez baitakar".

"Etxez etxeko laguntza handitzea, etxebizitzak erabiltzaileen beharretara egokitzea, traba arkitektonikoak kentzea, belaunaldien artean elkartasuna izatea eta laguntza sozio-sanitarioa edukitzea izango dira, besteak beste, adineko pertsonek beren familietan jarrai dezaten lagunduko duten elementuak".






Etxeetan osasun zerbitzu robotizatuak eskaintzeko produktua. | FAGOR

# Fagor Hometek: ikerkuntza eta garapenerako zentroa

## Astelehenean inauguratu zuten, San Andresen; 1.000 produktu inguru patentatu dituzte dagoeneko

**A.TXINTXURRETA/E. MENDIBIL** | ARRASATE

Ikerkuntzarako, garapenerako eta berrikuntzarako zentroa, Fagor Hometek, inauguratu zuten astelehenean Arrasateko San Andres auzoan.

Fagor Taldeak 69,53 milioi euroko inbertsioa egin zuen berrikuntzan joan den urtean eta gaur egun Fagor Hometek-ek 1.000 produktu inguru patentatu ditu; asteleheneko inaugurazio ekitaldian, produktu horietako batzuk erakusteko aprobetxatu zuten, oraindik merkaturatu gabeko produktuak tartean.

Produktu berrien artean, besteak beste indukziozko plaka nabarmendu zuten: metro bat neurtzen duen plaka da eta kazuelak eta zartaginak muga barik jar daitezke gainean, eta erabiltzailearen beharretara egokitu. Abenduan merkaturatuko dute. Hurrengo urte hasieran merkaturatuko duten mikrouhin borobil bat, berotasuna galtzen ez duena, erakutsi zuten baita ere. Beste proiektu berritzaile bat *Marra urdina* deiturikoa da. Etxeetan osasun zerbitzuak eskaintzeko zerbitzu robotizatua da, gaixoa uneoro kontrolatuta egotea ahalbideratzen duena.

Besteak beste, honako hauek izan ziren asteleheneko inaugurazioan: Ino Galparsoro, Arrasateko alkatea; Jose Maria Aldekoa, Mondragon Taldearen presidentea; Fernando Ipiña, Fagor Hometek-eko presidentea; eta Juan Tomas Hernani, Berrikuntzako idazkari nagusia.

### Etorkizunean egon

Etxetresna elektrikoen ikerkuntza, garapen eta berrikuntzarako nazioarteko zentroa izango da Arrasatekoa. Aldekoaren hitzetan: "Etorkizunean egoteko, produktu berritzaileak eskaintzea da gure zereginetako bat; ahal bada, EAEn lanpostuak sortu, gainera". Ipiñak azpimarratu zuenez, osasunari, ongizateari eta segurtasunari lotutako produktuak garatuko dituzte Fagor Hometek-en.

# Etorkinendako eskualde mailako bulegoa jarriko du abian ESK sindikatuak Bergaran

**J. IRIONDO/E.MENDIBIL** | BERGARA

Etorkinei laguntzeko eta haien integrazioa bultzatzeko bulegoa zabalduko du ESK sindikatuak Bergaran. Esan bezala, etorkinei tramiteetan-eta laguntzea da asmoa, baina baita haiei gure herrietako ekimen sozialetan parte har dezaten bidea erraztea ere. Eskualde mailako bulegoa izango da Bergarakoa.

### Eguazten arratsaldeetan

ESK sindikatuko ordezkarien arabera, krisiak gogorren kolpatzen duen giza taldeetako bat da etorkinena. Haiei laguntzeko ekimenak prestatu ditu ESK-k. Horrela, sindikatuak etorkinendako eta giza eskubideen gaineko zerbitzua eskainiko du urtarriletik aurrera Bergarako egoitzan. Zerbitzu berria eguazten arratsaldeetan emango dute, hasiera baten. Hain justu ere, zerbitzuaren aurkezpena hurrengo eguenean, abenduaren 2an, Bergaran izango diren immigrazioaren eta giza eskubideen inguruko jardunaldietan egingo dute. Jardunaldiotan Debagoieneko immigrazioaren egoera aztertuko dute, eta baita arrazakeria eta etorkinen lan eskubideak ere.

### JARDUNALDIAK ABENDUAREN 2AN

**09:30** Aurkezpena.

**09:40** ESKren Debagoieneko immigrazio eta giza eskubideen bulegoaren aurkezpena eta immigrazioaren egoera eskualdean.

**10:20** *Arrazakeriaren merkatoritza eta politiko erabilera: erreprodukzioko gakoak.* Cesar Manzanos Bilbao, soziologian doktorea eta EHUko Gizarte zientzia eta informazio fakultateko irakasle titularra.

**11:20** Atsedena.

**11:40** Immigrazioari buruzko laburmetraia eta eztabaida.

**12:10** Ponentzia eta eztabaida: *Migrarien lan eskubide eta baldintzak EHAEan eta sindikatuak eskubide horien aldarrikapen-gune.* Tania Cañas Siriany, immigrazio eta giza eskubideen bulegoa, ESK Gasteiz.

**Izenematea zabalik azaroaren 29ra arte: 945 21 48 88 (Tania).**

# "Fusilatzean Florencia Olazagoitiak barruan zuen haurra omendu dugu"

'Punto final. Última testigo' liburua argitaratu du Intxorta 1937 elkarteak

LANDER MUÑAGORRI | BERGARA

"Fusilatuen familiartekoak hartu ditugu ardatz *Punto final. Última testigo* liburuan", azaltzen du Juan Ramon Garaik, memoria historikoaren ikertzaileak. Abenduaren 2an aurkeztuko dute Juan Ramon Garai eta Maite Landinek *Izpi Berdeak*-ekin batera idatzi duten liburua Arrasateko Kulturateko Jokin Zaitegi aretoan.

Eleberri honetan, zuzeneko biktimen testigantzak bildu dituzte. 90 urteko Maite Landin 36ko gerrak suntsitutako familia bateko azken lekukoa da, eta haren testigantza bildu dute eleberrian. Juan Ramon Garai bera ere frankismoko biktima da, eta hark ere bere esperientziak eta bizipenak bildu ditu. Bi lekukoon testigantzak behin bilduta, horri guztiari eleberri itxura emateko ardura *Izpi Berdeak*-ek hartu du.

Juan Ramon Garai arrasatearrak aurretik ere argitaratu izan du memoria historikoarekin lotutako lan bat baino gehiago. Itxorta 1937 kultura elkarteak, ordea, argitaletxe bezala ateratzen duen estraineko argitalpena izango da.

**Biktima bati eskainia**

"Liburuan, urteetako hartu-emanak batzen dira", dio Garaik. Istorioa Hernaniko kanposantuan kokatzen da, hainbat fusilaturen familiartekoak elkartzen hasten direnean. "Memoria historikoa dute lotura fusilatuen familiarteko hauek guztiek. Ondarretako espetxean egondakoak, askatu zituztenak edo fusilatuak. Familiak aitzakiatzat hartu ditugu ondoren zerbait orokorragoa eskaintzeko asmoarekin", dio Juan Ramon Garaik. Horretarako, Garairen eta Landinen esperientzia azpimarragarria izan da, bi hauek ere familiartekoak izan baitzituzten Hernaniko fusilamenduetan.

Fusilatuak aitzakiatzat hartuz, liburua frankismoko biktima bati eskaini diote. "Florencia Olazagoitia 1936ko azaroan fusilatu zuten Oiartzunen, sabelean haur bat zeramala. Sekula jaio ez zen haur horrek 74 urte izango zituen, eta hura omendu nahi izan dugu liburua berari eskainiz", dio Garaik. "Frankismoaren biktimentzat ere demokrazia fusilatu egin zuten garai hartan, eta oraindik ere, gaur egunean ez da inongo demokraziarik jaio ere egin", borobiltzen du arrasatearrak.

ESANAK

"Memoria historikoa du ildo eleberriak"

JUAN RAMON GARAI | IKERTZAILEA




Liburuaren azala. | INTXORTA 1937

# Markel Olanoren jarduna gogor kritikatu dute sozialistek Arrasaten

L.M. | BERGARA

Lidergo, kudeaketa eta ekintza falta, horiexek dira sozialistek Arrasaten egindako bileran Markel Olano ahaldun nagusiri egindako kritikak. Aritz Arrieta Arrasateko PSE-EEko zinegotziak adierazi zuenez: "Garraio publiko duin bat eskatu izan dugu, gaur egungo azpiegiturak eta langabeziaren aurkako plan bat. Baina halako neurririk ez dute hartu. Bailara guztiei ez zaie tratamendu bera eskaintzen".

Ildo horretan, Miguel Buen Batzar Nagusietako PSE-EEren hautagaiak esan zuen diskurtso subiranista bakarrik entzuten dela Olanoren aldetik: "Gipuzkoak irtenbideak behar ditu, ahots sendoa kanpoan eta barruan ordezkatuta egoteko, eta ahots hori ez da entzun".

**Lidergorik eza**

Olanok aldarrikatu duen lidergo konpartitua ere hartu zuten hizpide. "Gogoratu behar zaio, eta guk gogorarazten diogu tarteka, zerbait konpartitzeko lehenengo eduki egin behar dela. Ezin da konpartitu ez daukazuna, eta Olanok ezin du lidergorik konpartitu, ez duelako", azaldu zuen Julio Astudillok, Batzar Nagusietako bozeramaile sozialistak.



Gipuzkoako PSE-EEko hainbat ordezkari Arrasaten izan ziren. | TXOMIN MADINA

## Deba bailarako II. jardunaldiak Oñatiko gaztetxean asteburuan

Deba bailarako II. jardunaldiak egingo dituzte gaurtik domekara arte Oñatiko gaztetxean. Gaur bertan, Asel Luzarragak (18:00) Txileko egoera eta bere esperientzia azalduko du; eta Pablo Sastrek bihar (11:00) *Gizajendearen ahitzea* liburua aurkeztuko du. Film, hitzaldi eta ekintza gehiago ere izango dira.

## Joseba Egibar etzi Bergaran Batu Gaitezen ekimenaren baitan

Debagoieneko Batu Gaitezen ekimenak Bergarako alde zaharrean barrena ibilaldia antolatu du domeka honetarako. Hitzordua udaletxe aurrean izango da, 10:30ean. Behin ibilaldia amaitutakoan, Joseba Egibar Gipuzko Buru Batzarreko presidentea izango da batzokian, 12:00etan hasita.



## ZABALIK



**ESTEPAN PLAZAOLA**
'http://goiena.net/iritzia/'

# Olentzero

Hasi dira Olentzeroren mezulariak beren eskaintzak egiten. Berripaper honetan bertan Itxaro Artola arrasatearrak salatzen zuenez, batzuen eskaintzetan ez da euskarazko oparirik.

Bergarara Olentzero bera etorriko zaigu aurreraturik. Bueno, Bergarara ere ez zehazki; Bergarako Olentzero etorriko da… Arrasatera. Baina hori, Bergarara barik Bergaratik kilometro batzuetara etortzea, bere garrantzia izanda ere, gutxienekoa da.

Opari dotore batekin datorkigu: *Olentzero & Co* musikalarekin. Eta hau bai, hau euskarazkoa da. Sarri ekartzen dizkigute Bergarako Olentzeroek halako opariak. Eta pozez hartzen ditugu. Pozez, jakinik euskaraz egiteak berak lan gehigarri bat ekarriko diela, seguruenera. Baina konbentziturik lan gehigarri hori gustura eta ilusioz egiten dutela.

**"Eskerrik asko, halako opariak eskaintzeko lan egiten duzuenoi"**

Arrasaten eta Oñatin ere hartu dituzte batzuek beharleku ederrak *La Gran Vía* eta *¿Problemas de pareja?... La solución aquí* lanekin. Ikusi ez baditut ere, jendearen harrerak garbi erakusten du obra bikainak sortu dituztela, zoriontzeko modukoak.

Baina, inori ezer leporatzeko motiborik barik, penatxo hartzen dudala esan behar. Penatxo, pentsatzen baitut toki gutxitan izango dela Oñatin eta Arrasaten baino baldintza hoberik halako lanak euskaraz ateratzeko.

Eta euskarak jarraituko badu, ezinbesteko ditugulako euskarazko sorkuntzan murgilduko diren herritarrak, euskaraz gozatzeko eta sufritzeko aukera emango digutenak.

Horregatik, euskaraz opari eder bat eskaintzegatik edo, nahiago bada, opari eder bat euskaraz eskaintzeagatik, eskerrik asko, Olentzero; eskerrik asko, Oihan, Joxemi, Karlos, Oier… Eskerrik asko, urtez urte halako opariak eskaintzeko lan egiten duzuen denoi!

## USTEAK USTE

**USOA AGIRRE** | 'uagirre@goiena.com'

# Atera dirua bankuetatik

Bankuetan ditugun diru guztiak atera ditzagun bankuek behea jo dezaten, badu dugun krisiaren erantzule dira -eta". Horixe da Eric Cantona futbolari ohiak egin duen proposamena. Ez dirudi egiten hain zaila: manifestazioetan parte hartu beharrean, bankura joan eta dirua atera. Pauso bat litzateke hori, horrekin bakarrik sistema aldatzea zaila delako. Pentsatzeko modua aldatu beharko dugu lehenengo. Cantonak berak esana da ezin garela zoriontsu izan inguruan dugun miseria ikusita, ez bazara, behintzat, burbuila batean bizi. Burbuila barruan bizi diren asko ezagutzen ditut, zoritxarrez.

## MARRAZKIZ

**ALEX UGALDE** | 'http://goiena.net/iritzia/'




## GUTUNAK

# Bizitza ederregia da makurturik emateko

**Aitziber Plazaola Oregi**
Bergara

Emakume gazte euskalduna naiz, gazte euskaldun emakumea, euskaldun emakume gaztea.

Etengabe makurrarazia, altxatzeko saiakeran kolpatua. Askatasunaren ameslaria.

Emakumea naiz, eta horregatik makurrarazi nahi naute.

Sinestarazi nahi izan didaten berdintasunaren paretaren kontra behin baino gehiagotan jo du nire buruak, gorputzak.

Pepitoren emazte polit, adeitsu, inteligente, sentikor, menpeko nahi naute, baina ni ez naiz horrelakoa.

Emakumeok burujabe, osasuntsu, aske, lagun, izateko altxatu behar dugu.

Euskalduna naiz, eta horregatik makurrarazi nahi naute. Bi urte eskas besterik ez da falta españolek Nafarroa konkistatu, eta euskaldunak makurrarazi gintuztela 500 urte igaroko direla.

Hizkuntza, kultura, historia, inposatuak. Euskaldunak makurraraziak.

500 urte, euskaldunok zapaltzaile arrotzen aurka altxatzen, independentzia borrokatzen.

Gaztea naiz, eta horregatik makurrarazi nahi naute. Helduak jaun eta jabe diren mundu honetan, gazteak buru gutxi, drogazale, menpeko, alfer, biolento, batzuk besterik ez omen gara.

Ni gaztea naiz, parrandazalea, konprometitua, utopikoa eta erradikala. Eta kapitalaren, diruaren interesen gainetik, prekarietate eta presioen aurrean, ez naiz makurtuko. Gazte eta aske izateko saiakeran gazteok altxatuko gara.

Emakume, euskaldun, gazte. Menpeko, inposatu, alienatu. Burujabe, aske, iraultzaile!

Aske gara, libre, gure kaiola erraldoietan. Dena eros daiteke gure kaiola erraldoietan, katez alda dezakegu gure kaiola erraldoietan.

Baina kaiola ez da gurea, makurrarazi nahi gaituztenena da. Kaiola ederrenarekin askatasunari uko egin, kaiola guk geuk itxi, eta horrela makurtzea nahi dute.

Menpekotasuna, inposaketa eta alienazioa askatasunarekin mozorrotu nahi dute.

Baina nik aukeren kaiolatik atera nahi dut, eta guk, emakume, euskaldun eta gazteok altxatu eta kaiolatik ateratzeko beharra daukagu.

Eta orain, beraien kaiolak ni makurtzeko, alienatzeko funtzionatu ez duenean, altxatzeko etengabeko saiakeran nabilenean, gauaren lasaitasuna apurtu, nire intimitatea inbaditu eta kolpeka makurrarazi nahi izan naute. Diruaren truke kolpatzen gaituzten horiek, amorruz beteta, burua estalita, armaturik datozen horiek, mendeku gose dira. Eta beraien aurrean ere, nik ez dut etsiko, bizitza ederregia baita beraien aurrean makurtzeko!

## ZUZENKETA

**Azaroaren 15eko eta 19ko GOIENA paperetan akats tipografikoa egin genuen iragarki sailkatuetan. Hain zuzen ere, Mercedes Viano furgonetak 30.500 euro balio zuela argitaratu genuen, 30.500 kilometro dituela adierazi beharrean. Barkamena eskatzen dizuegu akats horregatik.**

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak eta Kultura), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo.
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Edurne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**BERGARA 20570**: Ibarra, 6
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 12
goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA 20550**: Durana 11
Tel.: 943 79 86 21 | Faxa: 943 77 18 54
aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com
**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 08 10 50
harpidetza@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 1577-1210
**Tirada:** 20.100 ale.
**Difusioa:** 19.951 ale.

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria.

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


INTERESA JARTZEN DUGU
ZURE EGUNEROKOAN
Aurtengo udazkenean,
aurreztu ezazu mahaia jarrita.
Kutxak zeure neurriko aurrezkia eta Mahai Zerbitzua eskaintzen dizkizu. Eta baldintzarik onenetan oso-osorik lortzeko aukera paregabea. Diseinua eta estiloa sortarik osatuenean. Eska ezazu ohiko bulegoan, Telekutxaren 901 333 555 telefonora dei eginda, www.kutxa.net web gunean edo kutxaren kutxazainetan.
kutxa
zugandik zugana

**Pedro Prieto** | Telekomunikazioetako ingeniaria

# "Gero eta petrolio gutxiago egongo da eta garestiagoa izango da"

## Telekomunikazioetako ingeniariak berbaldia egin du Bergaran eta ohartarazi du erregai oinarrizko eta nagusia, petrolioa, "geroago eta urriagoa eta garestiagoa" izango dela

ENEKO AZKARATE | BERGARA

Krisien eta azpiegituren gainean Bergarako AHTren aurkako taldeak eta gaztetxeak antolatu dituzten jardunaldietan, berbaldia egin zuen eguaztenean, Aroztegi aretoan, Pedro Prieto (Madril, 60 urte) telekomunikazioetako ingeniariak. Petrolioaren eta erregai fosilen gaineko aditua eta *Crisis energetica* Internet atariko editorea da.



Pedro Prieto eguaztenean Bergaran, Bergarako AHTren aurkako taldeak eta gaztetxeak antolatutako berbaldiaren aurretik. | ENEKO AZKARATE

**Amaitu da petrolio merkearen sasoia?**

Bai. Colin Campbell eta Jean Laherrere geologoek esan zuten hori 1998an. Haiek igarri zuten 2008-2010. urterako petrolioaren goreneko produkzio mailara ailegatuko ginela. Eta hortik aurrera geroago eta erregai oinarrizko gutxiago egongo zela gure jendartearen makineriari jaten emateko, eta geroago eta jende gehiago petrolio eske.

**Ze ondorio ekarriko ditu horrek?**

Dramatikoak izan daitezke, eta dagoeneko badira, nahiz eta Europa mendebalean eta Ameriketako Estatu Batuetan oraindik igarri ez. Energia bada jarduera ekonomikoaren motorra eta energia hori sortzeko erregai nagusia gero eta urriagoa bada, ondorioak latzak dira. Erregai gutxiago, jarduera ekonomiko gutxiago eta irabazi gutxiago baditugu, ekonomia eta jendarte eredua, finantza sistema, krisi sakonean sartuko da kolapsora ailegatu arte.

**Krisiaren gainetik beste krisi bat?**

Gutako batzuek uste dugu 2008ko azken hilabeteetan hasi zen finantza krisiaren arrazoia dela krisi geologikoa. Finantza merkatuek sumatu zutenean petrolioa ondasun preziatu, garesti eta gero eta urriagoa izango zela, erregaien prezioarekin espekulatzen hasi ziren eta lortu zuten petrolio kupelaren prezioa jartzea 148 dolarretan, inoizko preziorik garestiena. Ondorioz, petrolioaren eskaera handitu egiten da, merkatuak ezin dio eskaerari aurre egin eta jendartea konturatzen hasten da ekonomiaren kolapsoa gerta daitekeela. Finantza edo ekonomia krisi guztiek lotura zuzena daukate mundu fisikoarekin.

**Zein ateratzen da irabazle?**

Petrolioarekin espekulatzeko informazioa eta merkatua manipulatzeko kapazitatea daukanak: petrolioaren prezioa igotzeko edota beste merkatu batzuetara desbideratzeko aukera daukanak

**Gaur eta hemen, alternatibarik bada petrolioari?**

Planteatzen direnak ez dira oso egingarriak. Ez da ikusten petrolioaren gainbeheraren ordezkorik. Esaterako, petrolioa da, gaur egun, munduko oinarrizko energia osoaren %40, eta mundu mailako garraioaren %93 petrolioarekin dabil. Petrolioa hain da moldagarria, kalitatekoa, aberatsa... eta horren energia kopurua dauka hain pisu gutxian, ez da ikusten alternatibarik. Ez energia nuklearra eta ezta berriztagarriak ere ez dira alternatiba, argindarra bakarrik sortzen dutelako; bioerregaiak ere ez.

**Petroliorik ez duten mendebaleko herrialde aurreratuenek energia berriztagarrien alde egin dute apustu?**

> "Energia elektrikoa da energia kontsumo osoaren %15 bakarrik"

Energia berriztagarriek ez diete gure jendartearen behar energetikoei erantzuten, inondik inora ere. Gaur egun, eguzki plaken bitartez argindar guztiaren %3 sortzen da eta 10 urte barru %5era igotzea da Espainiako Gobernuaren helburua. Baina energia elektrikoa da energia kontsumo osoaren %15 bakarrik; gainerako %85 energia fosiletik dator. Mundu osoko hegazkinak ez dabiltza argindarrarekin, traktoreak ere ez, erremolkeak ere ez, ezta armada ere, edo garraiobide osoak, oro har. Zelan egin aurre arazo horri?

**Berotegi efektua edota klima aldaketa errealitate gordinak dira. Inork ez ditu eztabaidan jartzen, ala?**

> "Ez energia nuklearra eta ezta berriztagarriak ere ez dira alternatiba"

Bistan da gizakiak natura moldatzeko daukan kapazitatea. Landa-lurrak agortzen ari gara, pestizidak erabiltzen gabiltza nonahi, bailarak urtegiekin gabiltza betetzen, lurzorua industrialdeekin, eraikinekin... Gutxi geratzen zaigu kutsatzeko. Eta kutsatzen jarraituko dugu, besteak beste, 12.000 milioi tona petrolio daukagulako erretzeko eta natura horren azkar aldarazteko.

**Nora eroango gaitu honek guztiak?**

Ez dakigu zer izango den okerrago eta zer gertatuko den lehenago: planetaren klima aldaketa eta berotze prozesua edo, hori gertatu aurretik, lehenago agortuko diren energia fosilak eta horrek sortuko dituen jendartean eragin atzeraezinekoak. Baina, edozein modutan ere, etorkizuna beltz ikusteko moduan gaude. Erregai fosilak dira berotegi efektuaren sortzaileak eta CO2 atmosferara isurtzen dutenek eta agintariek asmatu beharko lukete zelan murriztu erregai fosil horiek. Isurketak %40 murriztu nahi baditugu, erregai fosilen kontsumoa %40 murriztu behar dugu. Zelan egingo dugu?

**Zelan?**

Mendebaleko herrialdeetako ekonomia politikak etengabeko hazkunderako diseinatuta daude. Eta ezin dute pentsatu paradigma aldaketan: horrenbeste hazi barik ere bizi gaitezkeela.

**Horren katastrofistak ez diren zientzialariak ere badira.**

Nik ez dakit zer gertatuko den etorkizunean, baina badakit gizakiak badaukala natura modu bortitzean aldatzeko dohaina. Modu atzeraezinean alda dezake natura. Une honetan, planetako baso guztien erdia baino gehiago desagerrarazi ditugu. Hori ageriko eta neurgarria da. Hortaz, kontzientziatu eta kontsumo ohiturak aldatu behar ditugu.

Elkarrizketa osoa:
**www.goiena.net**


%15eko DESKONTUA*
EGUBAKOITZA ZAPATUA
26 ETA 27
AZAROA BAKARRIK
BEROKUNTZA ELEKTRIKOAREN GAMA OSOAN
PARETAKO BEROKUNTZA
OLIOZKO ERRADIADOREAK
TERMO-HAIZAGAILUAK
IGORLE TERMIKOAK
eco BRICO
EKOLOGIKO, MERKE ETA OSASUNGARRIA
HORRELAKOA DA ZURE EGOITZA BERRIA.
Energia aurrezten laguntzen dizuten produktuak
Ura aurrezten laguntzen dizuten produktuak
Basoen ustiapen ona ziurtatzen dizuten produktuak
Airearen kalitatea mantentzen laguntzen dizuten produktuak
* %15eko deskontua kutxan bertan egingo da, dendan adierazten den prezioari dagokiona. Deskontu baliagarria 2010eko azaroaren 26an eta 27an.
Gure prezio guztiek BEZa barne dute.
BRICO DEPÔT
GASTEIZ
GORBEIA MERKATARITZA-GUNEA
A-622 errepidea, 9. km
Etxabarri Dibina. Zigoitia
TEL. 945 46 05 10 FAXA 945 46 05 27
Astelehenetik larunbatera 9:00etatik 21:00etara etenik gabe
www.bricodepot.es
A KINGFISHER GROUP COMPANY
ETXABARRI DIBINA
Bilbora
AP-1
N-240
N-622
N-624
E-80
E-5
Iruñera
GASTEIZ
N-102
GORBEIA merkataritza-gunea
EIBARRERA JOATEKO AUTOBIDEA
BILBORA
GASTEIZERA
GASTEIZKO FORONDAKO AIREPORTURA JOATEKO AUTOBIA

## DUELA 10 URTE

2000-11-24

### Alde Zaharra, oinezkoendako

Arrasaten, Olarte eta San Frantzisko Xabier kaleetako lanak ia amaitu zituzten, eta, ondorioz, hasi ziren ikusten Arrasateko Alde Zaharrak ordutik aurrera izango zuen itxura.

Eguaztenean zabaldu zuten San Frantzisko Xabier kalea, eta harrezkero automobilek handik sartu behar zuten Olarte kalera joan nahi izanez gero. Erabat aldatu zen, esaterako, Seber Altube.



Seber Altubeko lanak. | ARRASATE PRESS

2000-11-24

### Ibarreko kirol txartela abian

Azaroaren 22an Debagoieneko Mankomunitateak ohiko batzarra egin zuen Bergarako udaletxean. Bertan, Kote Olaizola Diputazioko Gazteria eta Kiroletako zuzendariak ibarreko kirol instalazioen bateratzearen gainean egin zuen berba. Iñaki Ugarteburu Bergarako Udaleko Kirol zinegotziaren hitzetan: "Ikusten da borondate politikoa dagoela, aspaldi ari gara kirol txartel bateratuaren ideiarekin".

## DUELA 5 URTE

2005-11-28

### Arazoak elurtearengatik

Orain dela bost urte, azaroaren 26an, zapatua, elurte galanta bota zuen gurean, eta arazoak izan ziren gure errepideetan. Arantzazun 23 zentimetrora iritsi zen elur geruza eta Leintz Gatzagan, 18 zentimetrora. Ibarreko hainbat mendate itxita egon ziren, baina elurte hark ez zuen inongo ezbeharrik sortu.

## HERRITARRAK

**Mikel Bolinaga** | Ongi Etorri tabernako eta hoteleko ugazaba

# "Lehen bakailaoa, baina orain gazteek trikitia jartzeko eskatzen digute"

Mikel Bolinagak motorrean ibiltzea du gustuko; Mauritaniara joateko bidaia prestatzen dabiltza

XABIER URTZELAI | OÑATI

Mikel Bolinagak (Oñati, 1967) 19 urterekin hartu zuen Ongi Etorri taberna; orduan EA alderdia zen egoitzaren jabe, eta taberna errentan hartu zuen Bolinagak. Urte gutxira taberna erosi eta zapatu gaueko erreferente bilakatu zen *Ongi*. Orain dela zortzi urte pasa –maiatzean bederatzi urte– tabernaren gainean hotela jartzeko apustua egin zuen, eta baita taberna eraberritu ere. Zapatu gaueko giroa behera etorri dela esan digu Araotzekoak.

**Baserrian lanpetuta?**

Baserrian beti dago lana. Zerbait amaitu orduko beste lan bati heltzeko garaia iristen da, ez dago sekula amaitzerik. Gainera, aspaldi honetan haserre nabil...

**Zer ba?**

Behorrekin nabil buru-belarri, eta arazoak baino ez ditugu, dena trabak; aurrera egin beharrean atzera egiten gabiltza. Ditugun moxalak ferietara eramateko, txipak, papeleoa... Europatik datozen lege berriek dena zaildu baino ez dute egin, eta kontua da albaitariek ere ez dakitela ondo ze bide jarraitu behar dugun. Gauzak samurtu egin beharrean zaildu egiten dituzte, tremendokoak egin behar dira moxal batzuk feriara eraman ahal izateko.

**Baserria alde batera utzi eta dantza kontuei helduko diegu. Dantzarako, Araotzeko Saloi Elkartea ala Ongi taberna?**

Biak dira leku aproposak. Araotzen badira dantzarako egun aproposak, Trinitateak... eta benetako gozamena da hango bizilagunak, nagusiak, dantzan egiten ikustea; hori da dantzan ondo egitea! Tabernan, berriz, gehiagotan egiten da dantzan, jai giroko egun gehiago izaten ditugulako, baina, hala ere, hemengo dantzak ezin dira Araotzekoekin alderatu.



Mikel Bolinaga, aste barruan, Ongi tabernako mahai-futbolean. | XABIER URTZELAI

> "Moxalak ferietara eraman ahal izateko tremendokoak egin behar ditugu orain"

> "Ikustekoa da Araotzeko nagusiek zelan dantzatzen duten trikitia"

**Tabernan trikiti gutxiago...**

Ez pentsa! Garai baten bakailao musika dantzatzen zuen jendeak, baina orain, gazteek batez ere, geroago eta trikiti gehiago eskatzen dute.

**Gautxori, gustuz ala beharragatik?**

Gazteagotan gustuz, baina orain beharragatik [Barre].

**Esaten dute zerbitzari on batek ez duela etxera joateko presarik izan behar.**

Lehen halakoxea nintzen ni, jendea tabernan gustura baldin bazegoen, ni ere bai. Gainera, jendea etxera bidaltzen ibiliz gero, akaso, hurrengoan beste taberna batera joango dira. Alde horretatik pazientzia handikoa izan naiz ni. Baina egia da orain gehiago begiratzen diodala erlojuari.

**Tabernan lan egiten duen lagun batek esan dit garai txarrak direla barraren atzean dirua egiteko.**

Halaxe da, baina orokorrean edozein lekutan dirua egiteko dira garai txarrak. Noski, diruz justu dabilenak kentzen duen lehenengo gauza tabernako gastuak dira.

**Gaueko giroak Oñatin behera egin du?**

Bai, duda barik. Urte oso onak izan genituen, jende asko etortzen zen kanpotik, eta hemengo tabernak ixterakoan jendea Arrasatera, Aretxabaletara... joaten zen. Orain, alkohol probak daude, beste garai batzuk dira.

**Urtarrilaren 1ean izango da taberna honetan kerik?**

Nik baietz uste dut, egun hori gainean dugulako eta guk oraindik ez dugulako ezer jaso. Egia da neurri hori iritsiko dela, baina aurrerago.

**Eta polizia lanetan ibiltzeko asmorik bai?**

Ez dit grazia handirik egiten, hori da egia. Baina kartelak jartzen baditugu, eta norbaitek ez baldin badu irakurtzen, ba, neuk izan beharko dut zerbait esango diona, bai.

**Motorzale izanda, negua ez da errepidean ibiltzeko sasoirik aproposena.**

Baina mendian ibiltzeko ederra da negua. Lokatza egoten da, baina ez pentsa udan hautsa hobea denik. Nik atsegin dut lokatzetan ibiltzea, baina desertuan ibiltzea modukorik ez dago. Dagoeneko izan naiz hiruzpalau aldiz, eta Aste Santuan Mauritania aldera joateko asmoa dugu; ez dakigu orain dagoen giro aldrebesa baretuko den...

**Eta ehiza?**

Aspaldian desengainatuta nabil ehizarekin. Urtetan ez dut ehiza egun on bat izan; aurten ere ez da pase onik egon.

### NIRE HERRIAN

**:) UNIBERTSITATEA, ARANTZAZU...**

Leku ederra da Oñati, paraje oso politak ditu eta herria ondo zainduta dagoela esango nuke, txukun. Arantzazuk ere jende asko erakartzen du, eta hori oso positiboa da, baina batzuetan pentsatzen dut jendea Arantzazurekin oroitzen dela eta Oñatirekin ahaztu.

**:( MOTORREKO KIROLIK EZ**

Uste dut diru larregi gastatu gabe egin daitekeela zirkuitu txukun bat motorrean ibiltzeko, auto-krosean... Futbola, pilota, tenisa, golfa... horiek guztiak ondo zaintzen ditugu, baina motordun kirolen alde egiteko Udaletik ez dut borondate handirik ikusten, eta uste dut zaletasuna badagoela.

HERRIAK

# Eskoriatzan baserriak samurrago topatzeko errotuluak jarri dituzte

- Mazmelan, Bolibarren, Gellaon, Mendiolan eta Leten baserrien izenak errotulatu dituzte
- Larrialdi zerbitzuen lana azkartzeko asmoarekin jarri dute martxan proiektua

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzako Atxorrozpegoikoa baserriraino iristea samurragoa da orain jarri dituzten errotuluei esker. Asteotan, Bolibar, Gellao, Mazmela eta Mendiola elizateetan eta Lete auzoan baserrien izenak errotulatu eta errepideen bidegurutzeetan jarri dituzte. Guztira, 120 errotulu inguru egin dituzte toki horietarako.

Bolibarko auzo alkate Iñaki Kortazar izan da ekimen horren bultzatzaile. Hark jakinarazi digu ideia orain dela bi urte inguru sortu zela eta aita gaixorik zuen eta askotan anbulantzia medikalizatuaren beharra zuen elizateko bizilagun batek proposatu zuela.

Kortazarren esanetan, "anbulantzietakoek arazo asko dituzte baserriak topatzeko. Anbulantzietakoei azaltzen diegu nondik joan behar duten, baina batzuetan galdu egiten dira; beste askotaan ez da beti gidari bera etortzen eta, hortaz, berriak ez daki nondik joan. Etxean, anbulantziaren zain dagoenari, oso luze egiten zaio denbora tarte hori. Hori horrela, seinaleak jartzea proposatu zuen Bolibarko bizilagun batek, larrialdi zerbitzuen lana azkartzeko".

Kortazar Udalera joan zen ideia horrekin. Ondo hartu zuten han, eta lanean hasi ziren. Elizate guztietan errotuluak jartzeko aukeraz galdetu zuten; batzuek nahi ez zituztela erantzun bazuten ere, gehienak horren aldekoak ziren. Horrez gain, Gipuzkoako Diputazioari ere esandako proiektua martxan jarri ahal izateko dirulaguntza eskatu zioten.

### Egurrezkoak eta islatzaileak

Seinaleek egurrezko egitura daukate eta izenaren errotuluak islatzaileak dira, gauean ere ondo ikusi ahal izateko. Baserrien izenaz gain, hainbatetan seinale eta baserri arteko distantzia zenbatekoa den ere azaltzen du errotuluak.

Baserri guztien izenak aurretik jasota zeuden Diputazioko geograman, eta, hortaz, ez da zaila izan horiek guztiak batzea. Errotuluetan jarri aurretik, dena dela, Euskaltzaindiaren eskuetatik pasa behar izan dutela azaldu digute Udaletik.




Bolibarko auzo-alkate Iñaki Kortazar, elizatean jarri duten errotulu-taula batekin. | MIRIAN BITERI

**DATUA**

**120**

ERROTULU

Horixe da orain arte jarri den kopurua. Horietatik 50 bat Bolibarren daude.

**ESANAK**

**"Jendeak ondo hartu ditu; ordua zela entzun dut"**

IÑAKI KORTAZAR | AUZO ALKATEA

### Larrialdi zerbitzuei bidali

Kortazarrek esan digu suhiltzaileei bidali dietela errotulu bakoitzaren kokapenaren berri, eman beharreko zerbitzua errazte aldera. Horren harira, Udaletik jakinarazi digute gainerako larrialdi zerbitzuetara bidaltzeko asmoa ere badutela.

Esan bezala, Bolibar, Gellao, Mazmela, Mendiola eta Leten jarri dituzte. Kortazarrek esan digu herritarrak pozik daudela horiekin: "Jendeak ondo hartu ditu; ordua zela entzun diot bati baino gehiagori. Orain, behintzat, badakite non bizi garen".

Eskoriatzako gainerako elizateetan ere jartzea (hain justu ere, Marin, Zarimutz eta Apotzaga) hango herritarren esku dago.

# Egoera hobetzen doa, baina krisia oraindik bizi-bizi dabil saltokietan

## Erosketa poltsa orain dela bi urte baino merkeagoa da; izan ere, gehienok prezioari lehenago begiratzen diogu kalitateari baino

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Agintari eta ekonomialari asko dabiltza esaten krisiari buelta ematen hasita gaudela. Baina hori islatu egiten da eguneroko bizimoduan? Hori jakin guran, egunero kontsumitzen ditugun produktuen saltokietara jo dugu.


Anuska Arantzabal, Pilar fruta-dendakoa. | U.M.


Jose Ramon Otamendi, Otamendi harategikoa | U.M.


Pili Herrero, Bolintxo okindegikoa. | U.M.


Errosi Retolatza, Eguren arrain-dendakoa. | U.M.

### Frutak eta barazkiak, gutxiago

"Jendea badabil, baina erosketak txikiagoak dira; asko begiratzen zaio diruari: eskaintzak saltzen dira, eta garestiago dagoena kosta egiten da saltzea. Lehen, jendeak ez zien horrenbeste begiratzen prezioei: "Ona eman, nahiago dut hori plastikoa jatea baino", zioten; orain, prezioari begiratzen zaio", dio Anuska Arantzabalek, Pilar fruta-dendako saltzaileak.

Gaineratu du orain behe-denboraldia dutela: "Gabonetan jendea gehiago animatzen da, eta Gabonen ostean ere bai. Dena den, iaz txarragoa izan zen; nik uste dut udaberrian hasi ginela hobetzen. Askorik ez da aldatu, baina pixka bat hobeto gaude, bai".

Hori bai, adierazi du saltzaileek eurek ahalegina egin behar izan dutela: "Prezioa eman behar da, iaztik prezioak jaitsi egin dira".

### Okela: berdin, baina merkeago

Otamendi harategiko Jose Ramon Otamendik ere antzekoa sumatu du: "Jendeak diru gutxiago du gastatzeko. Ikusten da apur bat merkeago erosi gura duela, ez jende gutxiago dabilela, baina lehenago fileteak erostera etortzen zenak, 18 eurokoak eramaten zituenak orain 13koak eramaten ditu; oilaskoak gehiago saltzen dira; eta pikatuak eta gisatzeko haragia errazago saltzen dira. Kolpe handiena 2009an izan zen, urtarriletik irailera. Handik aurrera, nik uste dut konfiantza handiagoa ari dela hartzen jendea, edo akaso izan daiteke supermerkatu handietara gutxiago joaten dela eta denda txikietara gehiago. Zergatik? Ba, nik uste supermerkatu handietan errazago gastatzen dela eta denda txikietara badator petxuga bat erostera, petxuga bat erosten duela eta kito.

Prezioak, berriz, %10 jaitsi ditugu. Guretako zailtasuna da hori, gure benefizioa da, eta gastuek gorantz segitzen dute…".

**ESANAK**

**"Prezioak %10 jaitsi ditugu, gure benefiziotik kenduta"**

JOSE RAMON OTAMENDI | HARAKINA

**"Kiloa eraman beharrean kilo erdi eramaten dute, baina kalitatezkoa "**

ERROSI RETOLATZA | ARRAINDUNA

### Ogia bai, baina non?

Bestalde, ogi barik etxe askotan ezin dira bizi, eta nekez geratuko dira erosteke. Hala ere, krisiak badu eragina salerosketan: "Prezioari begiratzen zaio; ondorioz, jendea gehiago doa Eroski eta halakoetara, ogia merkeago den saltoki handietara. Gainerako produktuei dagokienez ere, salmentak askoz ere txikiagoak dira", kontatu du Pili Herrerok, Bolintxo okindegikoak. Gaineratu du krisia hasi zenetik ez duela aldaketarik sumatu salmentetan, baina eurek bai egin behar izan dutela ahalegina: "Hiru urteotan prezioaren ogia mantendu egin da; 2010eko azaroaren 1ean igo da ogiaren prezioa, baina gainontzeko prezioetan ez da igoerarik izan".

### Arraina, kalitatezkoa

Bukatzeko, arrandegian gutxiago erosten dutela kontatu digu Errosi Retolatzak, Eguren dendako ugazabak, baina kalitatezko produktuak erosten direla: "Kilo bat eraman beharrean kilo erdi eramaten dute, baina kalitatezkoa. Eta mugimendu txikiagoa dabil, bai. Oporren ostean nahiko ondo saldu da, baina oraingo hilean jaitsi egin da. Jendeak dirua erreserbatu egiten du Gabonetarako: loteria, opariak… Dena den, egia da uda ostetik hobetzen joan dela. Joan den urtea okerragoa izan zen". Hala ere, esan du prezioak jaitsi egin dituztela: "Produktuak ez zaizkigu jaitsi, baina guk prezioa mantendu edo jaitsi egin behar izan dugu, %10 bai, erraz".

# Aterpetxea ordu gehiagotan zabalik

**U.M.** | ARRASATE

Udan itxita izan ostean, hil honetan zabaldu dute aterpetxea Arrasaten; non lo egin ez dutenendako babeslekua.

Nafarroa etorbidean dago, eta une honetan sei pertsonari ematen die zerbitzua.

Berez, gauez bakarrik funtzionatzen du: 19:00etatik 09:00etara.

### Hotz polarra

Baina Arrasateko Udalak aurreikusita dauka salbuespen egoeretan aterpetxea ordu gehiagotan zabaltzea; eta horietako egoera bat izango da oraingo asteburu hau. Izan ere, eguraldi adituen arabera, hotz polarra sartu behar zaigu justu gaur, egubakoitza, eta gurean izango dugu asteburu osoan. Elurra, izotza eta, oro har, tenperatura oso baxuak iragarri dituzte.

Bada, jakitun izanda, Udalak atzo, eguena, erabaki zuen asteburuan aterpetxea 19:00etatik 09:00etara zabaldu beharrean, 18:00etatik 11:00etara zabaltzea.

# Beharra dutenei eta nagusiei laguntzeko

**U.M.** | ARRASATE

*Mundu hobea eraiki* izenburuarekin, bihar, zapatua, informazio mahaia ipini behar dute Seber Altube plazan.

Helburua da lan boluntarioaren gainean informazioa ematea. Baina ez edozein lan boluntarioren gainean, baizik eta gizarteko lan boluntarioen gainean: beharra duten nagusiei laguntzeko, ezintasunak dituztenei, tratu txarrak jaso dituztenei, bakardadean daudenei… laguntzeko.

Hitzordua da 18:00etatik 21:00etara, eta interesa duen edozein joan ahal da. Nagusilan elkarteak antolatu du.

*Pelukak eta ilea berreskuratzeko sistema berri eta pertsonalizatua*



Gubi
ILE APAINDEGIA
Otalora Lizentziaduna 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 74

Restaurante
UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE



BASATI
TABERNA
943 71 17 68

# Kulturak eta gastronomiak bat egingo dute aste bukaeran San Andres auzoan

## Zapatuan artisau eta gastronomia postuak eta domekan kultura ekintzak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

San Andresko auzo-alkatetzak II. feria gastronomiko-kulturala antolatu du aste bukaerarako. Duela urte bi antolatu zen lehenengoz eta azokak XVIII. mendean du jatorria: orduan, Bedoñaben egiten zen azoka, egun Fagor Arrasate lantegia dagoen tokitik hurbil. Bada, galdutako ohitura berreskuratu egin gura dute.

Herriko eta kanpoko hainbat elkartek hartuko dute parte; jaiaren erdigunea Gudarien plaza izango da, bertan izango dira-eta ekitaldi gehientsuenak. Zapatuan 10:00etatik aurrera izango dira artisau eta gastronomia postuak. Jatekoen artean, hemengo eta kanpoko produktuak. Kanpokoen artean Extremadurako, Andaluziako eta Aragoiko jakiak eta Eukal Herriko produktuen artean, berriz, Arabako Larreina Etxaldeak eta Gatzagako Jakion-ek ekartzen dituzten jakiak dastatu ahalko dira. Artisauetan ere, denetarik.



Iaz saiheskia eta ardoa dastatzeko aukera izan zen Gudarien plazan. | GOIENA

### Kultura aniztasunaren alde

Kultura aniztasuna da jaiaren ezaugarrietako bat. Zapatuan, Donostiako Virgen de Guadalupe Extremadurako kideek abestu eta dantzatu egingo dute, 13:00etan. 18:00etan *Una clase de Chirigota* ikuskizuna egongo da, Al-Andaluskoek antolatuta –Corazon de Encina elkartean–, eta eguna amaitzeko, Azahar talde flamenkoaren ikuskizuna izango da, 19:00etan. Domekan, bestalde, Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeak eta Kiliki eta Erraldoien Konpartsak emanaldia egingo dute, 12:00etan. Ordu berean Ekinekoak taloak egiten arituko dira eta AEDkoak, aldiz, salda banatzen. Azoka amaitzeko, bertso jaialdia egongo da: Manex Agirre, Andere Arriolabengoa eta Iñaki Viñaspre bertsotan eta Joxerra Agirreurreta gai-jartzaile. Azkenik, Portaloi taldekoek kantuan egingo dute.

## Herriko hainbat euskaltzalek Azken Ostirala deitu dute: Herriko Plazan elkartuko dira gaur, 19:30ean

Arrasateko hainbat euskaltzalek bat egin dute hileko azken egubakoitzean euskal presoen eskubideen alde antolatzen den Azken Ostirala ekimenarekin. Larri gaixo dauden presoak eta kondena beteta dutenak aske geratzea exijitzeko bilduko dira, baita euskal presoak dagozkien eskubideen jabe izatea aldarrikatzeko ere. Hitzordua Herriko Plazan izango da, 19:30ean.

Hauek dira, besteak beste, elkarretaratzea deitu duten herriko euskaltzaleak: Bixente Elortza, Pio Azkarate, Saioa Uriarte, Maribel Arrizabalaga, Itxaro Artola, Idurre Amozarrain, Iraia Elorza, Nagore Llodio, Eneko Barberena, Lander Juaristi, Aizpea Otxandiano, Mirari Arando eta Ainara Kortabarria.

## Txatxilipurdi asteon hasi da jostailuak batzen abenduaren 19ko Jostailu Truke Merkaturako

Txatxilipurdi asteon hasi da Jostailu Truke Merkaturako jostailuak batzen. Hurrengo hitzorduak honakoak dira: gaur, Biteri plazan; azaroaren 30ean, Okendoko ludotekan; abenduaren 1ean, Santa Marinako plazan; abenduaren 2an eta 13an, Arimazubin; abenduaren 14an, Santa Marinako ludotekan; eta abenduaren 15ean, Okendon. Egoera onean dauden jostailuak eraman behar dira eta ez da onartuko sexu bereizketarik edo indarkeriaren aldeko jarrerarik erakusten duen jostailurik. Azoka abenduaren 19an izango da, Okendon, 10:00etatik 14:00etara.

## Portaloira egitasmoaren bigarren eskuko azoka abenduaren 11n eta 12an egingo da Seber Altuben

Hasierako asmoa azoka azaroan egitea zen, baina karpa lortzea ezinezkoa egin zaienez, abendura arte atzeratu behar izan dute ekimena. Arazoak arazo, Portaloiraren bigarren eskuko azoka abenduaren 11n eta 12an egingo da. Egun osoan izango da zabalik, 11:00etatik 20:00etara. Arropak batuta eta sailkatuta dituzte, eta aurten ere asko batu dute. Ume, gazte zein helduek erabiltzeko arropa da, eta guztia da herritarrek emandakoa. Osagarriak ere jaso dituzte, eta horiek ere azokan egongo dira salgai. Batutako dirua euskal presoen senideendako izango da.

# Mihiluze txapelketaren beste saio bat egingo dute bihar Kulturaten, Udalak eta Txatxilipurdik antolatuta

J.B. | ARRASATE

Txatxilipurdik kudeatzen dituen gazte txokoen eta Udaleko Gazteria Sailaren eskutik, plan paregabea izango da bihar Kulturateko areto nagusian. Iaz horren arrakastatsua izan zen ekimena errepikatu egingo dute: Mihiluze txapelketa erraldoia, hain zuzen. Izan ere, Lander Juaristi Txatxilipurdiko dinamizatzaileak aditzera eman duenez, Mihiluze txapelketak "xarma berezia" dauka gaztetxoen artean: "Euskararekin jolasten duen jolasa da, egokia guretako eta erakargarria gaztetxoendako", dio Juaristik.

### Aurrez izena ematea, hobe

Telebistako lehiaketaren formatu bera izango du. Taldeka lehiatuko dira eta finala pantaila handian jokatuko da. Binaka eman behar da izena eta antolatzaileek gomendatu dute izena aurrez ematea, gazte txokoetan edo gazte bulegoan. Izan ere, plazak mugatuak izango dira.

Lekua gelditzen bada, bihar bertan eman daiteke izena, 17:00etatik 17:30era. Lehiaketa 17:30ean hasiko da eta espero dute 20:30erako amaitzea. Jaia borobiltzeko musika izango da protagonista, DJen eskutik.

# Egun osorako plana bihar, Info7 egunaren eskutik

J.B. | ARRASATE

Bihar, Info7 eguna ospatuko da Arrasaten. Ospakizun egunaren antolatzaileak herritarrak izan dira, Eider Elduaien Info7ko kidearen arabera.

Egun osorako egitaraua prestatu dute: 11:00etatik 14:00etara zuzeneko saioa, umeendako jolasak, pintxoak eta sagardoa, bertso poteoa eta txalaparta emanaldia izango dira Herriko Plazan; 14:30ean bazkaria egingo dute Arrano elkartean; eta amaitzeko, kontzertuak izango dira gaztetxean (22:30): AMD, Alta Tension eta The Limo Brothers and Pool taldeek joko dute.









# AED elkarteak antolatuta, 'Literaturjauziak' martitzenetik

Xabier Amuritzak euskara batuaren berrikuspena azalduko du hilaren 30ean

**EDU MENDIBIL** | ARRASATE

24 urtez, Arrasateko AED elkarteak euskal literatura bultzatzeko hainbat ekintza bultzatu ditu: Arrasate literatura lehiaketak eta Jokin Zaitegi itzulpen sariketa, besteak beste. Bada, aurten, elkartearen sustapenean aurrerapauso garrantzitsu bat egiteko asmoa dute *Literaturjauziak* izeneko programarekin. Eguaztenean eman zuten programaren berri Itxaro Artola eta Maite Agirre AED elkarteko kideek.

**Lau ekitaldi**

Lehenbiziko ekitaldia martitzenean izango da, azaroaren 30ean, 18:30ean, Goi Eskola Politeknikoan; Xabier Amuritzak hitzaldia egingo du. Itxaro Artolak eguaztenean azpimarratu zuenez, "orain dela hilabete gutxi nahiko liburu ausarta plazaratu zuen Amuritzak, ausarta euskara batuaren berrikuspena planteatzen zuelako; eta bertatik bertara bere proposamena azaltzera etorriko da". Hau gehitu zuen Artolak: "Euskara eguneroko lan tresna dutenen artean, diskurtso handiak baino soluzio txikiak erabiltzen dituztenei eskaini die liburua Amuritzak, eta guk ere horiek gonbidatu nahi ditugu martitzeneko hitzaldira".

Eguaztenean, berriz, *Hatsaren kulunka* eleberriaren aurkezpena egingo dute, 18:30ean, Jokin Zaitegi aretoan. Suediako Akademiak Herta Müller idazle errumaniarra saritu zuen Nobel sariarekin 2009an, eta, AEDk Kutxaren babesarekin antolatzen duen Jokin Zaitegi bekari esker, Ibon Uribarrik Müllerren eleberria euskaratu du, *Hatsaren kulunka* izenburupean.

Abenduaren 2an, eguenean, Joseba Sarrionandia idazlearen bederatzi ipuin txikitan oinarritutako antzezpena izango da: *Han izanik, ona naiz* lana Kulturaten ikusteko aukera izango da, 19:30ean. Sarrera debalde izango da.

Bukatzeko, datorren egubakoitzean, Euskararen Egunarekin bat eginez, *Ilunkerako berba jolasak* errezitaldia egingo dute herriko lau literaturazalek: Hirune Iribecamposek, Eneko Barberenak, Koldo Carrillok eta Iraitz Agirrek. Kulturaten izango da, 19:00etan.

Lau ekitaldi horiek iragarri dituzte, beraz, hurrengo martitzenetik egubakoitzera bitartean egiteko. Eta horrez gain, herritarrek han-hemenka literaturatantak topatuko dituzte: eguneroko joan-etorrirako herriko zortzi tokitan sorpresa batzuk izango direla iragarri dute antolatzaileek.

## ZALDIBAR

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Iluntz - Cipris | **1-2** |
| McAwenDauen-Portaboleiros | **4-3** |
| Steaua del Grifo-Fuxxion | **2-4** |
| Dublin-Lasagabaster | **3-1** |
| Ekaitz-Betrayer | **5-3** |
| Abokajarro-Iriztu | **6-2** |
| Dribling-Fidel&Disc | **6-3** |

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| **1** | McAwenDauen | **13** | **5** |
| **2** | Dribling | **12** | **5** |
| **3** | Cipris | **12** | **5** |
| **4** | Ekaitz | **12** | **5** |
| **5** | Iriztu | **12** | **5** |
| **6** | Lasagabaster | **10** | **5** |
| **7** | Portaboleiros | **9** | **5** |
| **8** | Abokajarro | **7** | **5** |
| **9** | Dublin | **5** | **5** |
| **10** | Iluntz | **4** | **5** |
| **11** | Betrayer | **3** | **5** |
| **12** | Fuxxion | **3** | **5** |
| **13** | Fidel&Disc | **0** | **5** |
| **14** | Steaua del Grifo | **0** | **5** |

**PARTIDUAK**

Azaroak 27, zapatua

**10:30** Ekaitz-Fidel & Disc / **Fuxxion**
**11:30** Fuxxion - Cipris / **Ekaitz**
**12:30** Iluntz - Portaboleiros / **Cipris**
**13:30** Dublin -Abokajarro / **Iluntz**

Azaroak 28, domeka

**11:00** McAwen D-Lasagabaster / **Dublin**
**12:00** Dublin-Iriztu / **Lasagabaster**
**13:00** Steaua -Betrayer / **Iriztu**

### Arrasatearrak onenekin Irungo krosean

Maria Jose Gil, beteranoen mailan, hirugarren tokian sailkatu zen domekan Irunen jokatutako krosean; junior mailan, Martin Berrizbeitiak laugarren postua eskuratu zuen; eta, azkenik, promes mailan, Markel Blanco ere laugarrena izan zen. Euriari eta lokatzari aurre egin behar izan zioten Arrasateko atletek Irungo proban.

### Kanpanzar-Elorrio errugbi partidua zapatuan Mojategin

Kanpanzar ART taldeak Elorrio hartuko du bihar, zapatua, Mojategin, 18:00etan hasita. Arrasatearrek 36-3 galdu zuten azken jardunaldian, Gernikan. Sailkapeneko azken tokian, zortzigarren tokian daude arrasatearrak eta bihar bisitari izango duten Elorrioko taldea hirugarren postuan dago.



KANTUZALEEN ELKARTEA

## Arratibel eta Urrutia saririk gabe aurten

Maialen Arratibelek eta Eneritz Urrutiak ez dute aurten saririk eskuratu Euskal Kantu Txapelketaren finalean, domekan, Donostian. *Urrun izan arren* kantua eskaini zuten Principalen, Maixa Lizarribar (trikitia), Zuriñe Muxika (gitarra) eta Irati Gutierrezen (kaxa) laguntzarekin. Sari nagusiak Josune Marin Hernaniko bakarlariak eta Alegiako Ainhoa Barandiaran eta Aiora Irazusta bikoteak eraman zituzten. Keiran taldea ere saritu zuten.

# Zarzuelaren azken bi emanaldiak gaur eta bihar Amaia antzokian

Gaurko emanaldia 20:00etan eta zapatukoa 19:30ean; sarrera gutxi batzuk geratzen dira

**E.M.** | ARRASATE

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoko kideek beste arrakasta bat lortu zuten aste bukaeran, euren azken ikuskizunarekin, *La Gran Vía* zarzuelarekin. Beste behin ere, Amaia antzokia lepo betetzea lortu zuten eta txalo zaparrada jaso zuten agertokira igotako kantari, aktore eta musikariek. Oraingo aste bukaeran azken bi emanaldiak egingo dituzte: lehenbizikoa gaur, egubakoitza, 20:00etan; eta azkena bihar, zapatua, 19:30ean. *La Gran Vía* zarzuela 1886an estreinatu zuten Madrilen, eta arrasatearren bertsioarekin erabat gozatu zuten ikusleek asteburuan.

**Sarrera gutxi**

Azken bi emanaldirako sarrerak *www.generaltickets.com* webgunean eskura daitezke, 17 euroren truke. Atzo bertan sarrera gutxi batzuk geratzen ziren saldu gabe.



*La Gran Via*, Izaskun Murgia elkartekoen azken arrakasta. | JULIO CALLEJA

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56


Julio a Secas
Gaur, azaroak 26
00:00etatik aurrera
AMAIA ANTZOKIA
ARRASATE

**Mari Carmen Pardo** | Lirain Estetika Zentroko arduraduna

# "Estetika munduan ezin gara geldirik egon, dena dakigula pentsatuta"

**Mari Carmen Pardo orain dela 25 urte hasi zen gurasoen etxeko gela baten depilatzen**
**Amets bat buruan, urte gogorretan aurrera egin eta gaur egun Lirain Estetika Zentroko arduraduna da**

**Zure ametsa bete egin duzula uste duzu?**
Bai. Gela txiki baten lan egitetik pasatu naiz 300 m2-tik gorako lokal batean lan egitera, zazpi profesionalez osatutako talde batekin eta teknologia aurreratuenarekin.
**Ze erronka berri du Mari Carmenek?**
Lehenengo eguneko ilusioarekin jarraitzen dut; etengabe bidaiatzen eta ikasten nabil nire bezeroei zerbitzu eta aparailu hoberenak eskaintzeko. Aurreko aste bukaeran Donostian egon naiz Indiba birziklapen kurtso baten. Irailean Madrilen, laserraren sinposioan. Orain, Bartzelonako Planas klinikara noa, onkologian espezializatutako estetika kurtso bat egitera.
**Esperientziaz gain, formazioa...**
Bai, egia esateko, estetika mundua horren azkar doa, ezin zara geratu eta dena dakizula pentsatu. Eta ez bakarrik estetika ezagutzan. Garrantzitsua da , baita ere, merkatuarekin komunikatzen ikastea. Horretarako, webgune berria sortu dugu, *www.liraines-tetika.com*. Horren bidez, jendeak gu gehiago ezagutu eta gure bezeroekiko komunikazio erreminta berria zabaldu nahi dugu.
**Zer tratamendu azpimarratuko zenuke Lirainen?**
Gure euskarri sendoak laser depilazioa eta gorputzeko eta aurpegiko tratamenduak dira. Horretarako, denbora eta diru asko inbertitu dugu, etengabe birziklatzen, bai aparailu aurreratuenetan, baita formazioan ere.



**Mari Carmen Pardo, Lirain Estetika Zentroko arduraduna.** | MARI CARMEN PARDO

**"Zerbitzurik onena emateko etengabe ari gara ikasten"**

**"Opari moduan hainbat relax tratamendu ditugu"**

**Baina aparailu guztiak antzerakoak izango dira...**
Ezta pentsatu ere. Aparailu asko daude emaitzarik ematen ez dutenak. Salneurriak merkeagoak izango dira, baina nahi diren emaitzak lortzen ez badituzu, azkenean garestiago irteten da. Hartara, Lirainen, adibidez, hainbat argi ekipo ditugu –laser plataformak–, bi IPL ekipo eta Alejandrita laser bat. Aldez aurretiko diagnostiko bat egiten dugu eta azalaren kolore eta ile motaren arabera argi bat edo beste bat erabiltzen dugu.
**Zenbat saio behar dira ilea kentzeko?**
Gorputzean, batez besteko 4-8 saio behar dira eta aurpegian, baten bat gehiago.
**Laser depilazioa zenbatean behin egiten da?**
Gorputzean, hasiera baten, hiru hilean behin egitea da normalena; gero, maiztasun luzeagoarekin. Aurpegian, berriz, hasiera baten, saioak 6-8 astean behin egiten dira.
**Gabonak gainean ditugu. Zer oparitu ahal dugu Lirainen?**
Lirainen ospe handiko kosmetika daukagu, bitxiak... eta, gainera, opari egiteko 50 eta 80 euro arteko relax tratamendu mota ugari dauzkagu. Hartzaileak asko gozatuko duen opari polita da.





Auzokon parte hartzen duten kideetako batzuk Topaguneko eta Jarduneko ordezkariekin. | MONIKA BELASTEGI

# Nahas gaitezen eta elkar ezagutu... euskaraz

## Auzoko egitasmoa aurkeztu zuten eguaztenean

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

*Salam aleykun, nakamu, adaab* eta *hola*. Kaixo esateko moduak dira arabieraz, woloferaz, urduz eta gaztelaniaz, eta horiek guztiak entzun ziren eguazten iluntzean Auzoko egitasmoa aurkezteko kultura etxean egindako ekitaldian. Bertan izan ziren Topaguneko eta Jardun elkarteko ordezkariak –egitasmoaren sortzaileak–, Udaleko ordezkariak –egitasmoa lagundu dute– eta egitasmoan parte hartzen duten jatorri askotariko hainbat lagun.

Azken urteotan, munduko leku askotatik etorritako jendea bizi da Bergaran. Kultura ezberdina ekarri dute, hizkuntza ezberdina, folklore ezberdina... Elkartrukerako egoera asko sortzeko aukera ematen du horrek eta, duda barik, elkarrengandik ikastekoa. Bada, horri ahalik eta etekin handien ateratzeko, elkar ezagutzeko eta elkarrengandik ikasteko egoerak sortzea proposatzen du Auzokok, betiere transmisio bidea euskara izanda. Hala azaldu zuen Aner Arregi Topaguneko kideak: "Elkarrengandik ikasteko, elkarren artean ulertzeko euskara proposatzen dugu. Euskaraz komunikatzea da helburua, ez perfekto egitea".

### Taldeka antolatzen dira

Horretarako, taldeak egin dituzte, eta dagoeneko badira bi martxan. Taldeotan batzen dira euskaraz bizi den jendea –*auzotar* deitzen diote– eta euskaraz bizi ez diren herrialde askotarikoak –*auzokide* deritze–, "eta ahalik eta modurik ludikoenean hitzak ikasten goaz", azaldu zuen Arregik. Batzen dira Arrizurin eguaztenetan 19:00etan eta zapatuetan 11:30ean; eta dei egiten diete herritarrei, auzotar zein auzokideei parte hartzera.

Interesa dutenek jo dezakete Arrizurira bertara, Jardunera (Aner Arregigatik galdetu) edo *bergara.auzoko@topagunea.org* helbidera idatzi.

# Batzokiko taberna inauguratuta

Lau urtez itxita eta bi urtez obretan ibili eta gero, asteon inauguratu dute batzokiko taberna. Hainbat herritar batu ziren eta tabernaren itxura guztiz eraberritua ikusi zuten. Aste osoan egongo da zabalik. Jangela nagusian menua eta kartara jan ahal izango da; tabernakoan, pintxo eta lapikotxoak.



JULEN IRIONDO

## NIRE USTEZ



**ANDRES OSA 'SAKONA'**

# Erne eskolak

Eskolan, terrorismoaren aurkako kanpainari hasiera ematera doaz Hezkuntza Saila buru delarik. Gelatara pertsona bereziak, ETAren biktimak soilik hurbilduko dira. Testigantza lanerako aukeratu diren pertsonaia hauek espaloi batekoak dira. Bestaldekoek dirudienez ez dute sufrimendurik, ez sentimendurik, ez erasorik, ez da biktimarik. Diskriminazio nabaria ez al da?

Non daude beste espaloikoak: hilketak, torturak, iheslariak, ilegalizatuak,sarekadak, atxilotuak, eta abar jasan dituzten eta jasaten ari direnak? Hauek ez dira kontuan hartu kanpaina horretan.

Baina ze onura ekar dezake funtsezko aldaketak ongi baino hobeto lerrotuak daudenean? Eskola komunitatean gorrotoak, etenak, haserreak, zauriak sendatu ordez gordintzeko eta zitaltzeko kanpaina ez al da? Ziur nago Isabel Celaa Jaurlaritzako Hezkuntza kontseilaria asmo onenarekin ariko dela, baina beste asko ez.

Ekimen honek borondateak batu ordez sakabanatu egingo ditu. Izan ere, ikuspegi politiko, iraultzaile eta historikoaren gabezia nabaria da. Eskoletako arduradunen ukazioa da kanpainari gerta lekiokeen gauzarik onena. Endredorik ez sortu eta gizartearen aurka doan ekimenik ez bultzatu. Eta zorionak, Goienako arduradun eta langile guztioi. Eredu bikaina bihurtu zarete! Ez etsi eta erronka berriei eutsi.

Clínica Oftalmológica RECALDE Oftalmologi Klinika
FEMTOSEGUNDOKO LASERRA
Plaza Barria 2, 2. EIBAR - Tel.: 943 201 844 - www.clicarrecalde.com

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Mujika gozotegia
Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA
943 76 10 34

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

# Lehen Mokolo Eguna antolatu du Gazte Asanbladak biharko

## Sagardoarekin bustitako afaria eta kontzertuak egongo dira, besteak beste, gaztetxean

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA
"Bergararrok beti entzun izan dugu mokoloak garela; beraz, bada garaia mokolotasun hori harrotasunez ospatzeko". Halaxe diote Gazte Asanbladako kideek eta horren bueltan jaieguna antolatu dute: Lehen Mokolo Eguna, hain justu ere. Eta gehitu dute: "Jaiegun bat egin nahi genuen, eta, umore giroan, mokolo izena jartzea pentsatu genuen", gehitu dute.

Horrekin guztiarekin, dei egiten diete herritarrei parte har dezaten, eta lehenengo honek jarraipena izatea nahiko luketela ere gehitu dute: "Ea indarra hartzen doan eta egutegian finkatzen dugun".

Jaiak iluntzean hasi eta goizaldera arte iraungo du: 19:30ean, trikipoteoa egongo da gaztetxetik abiatua; 21:00etan, sagardo kupela irekiko dute gaztetxean, eta, irekitzearekin batera, mokolo afaria egingo dute gaztetxean; eta 23:00etan, Emon eta Unsain taldeek kontzertua egingo dute.

**Txartelak salgai daude**
Txartelak dagoeneko salgai daude Arrano eta Kortazar tabernetan. Afaria, kontzerturako sarrera eta kupeletik nahi beste sagardo edatea 8 euro da; kontzerturako sarrera eta kupeletik nahi beste sagardo edatea, berriz, 3 euro da.

**ESANAK**

**"Beti entzun dugu mokoloak garela; bada garaia mokolotasun hori ospatzeko"**

ARITZ ALUSTITZA | GAZTE ASANBLADAKO KIDEA

## OHARRAK

**HERENTZIAK BERBAGAI ANGIOZARREN**
Jabier Perez abokatuak *Herentziak* izeneko hitzaldia egingo du gaur, egubakoitza, 19:00etan, Angiozarko saloian. Antolatu dute Bizikasik eta Angiozar Bailarako Batzarrak.

**AHT-REN GAINEKO JARDUNALDIAK**
Gaur, hilak 26. solasaldia egongo da, 19:30ean, gaztetxean, *Krisi ekologikoa eta krisi ekonomikoa: elkarrekintzak* gai hartuta. Domekan, 18:00etan, *Collapse* dokumentala emango dute.

**ERRETIRATUENDAKO LUNCHA LASAI TOKIN**
Urtero bezala emango dute eta herriko erretiratu guztiak daude gonbidatuta. Abenduaren 8an izango da, 12:30etik 14:00etara.

**GAZTETXOENDAKO DJ JAIALDIA BIHAR, ZAPATUA**
18:30etik 21:30era izango da, Zabalotegi aretoan. Biharko saioan, DJ Angiek jarriko du musika.

**EMAKUMEEN GAINEKO ERAKUSKETA UDALETXEAN**
*Emakume kubatarrak, Iraultza bat beste baten barruan* erakusketa dago ikusgai osoko bilkuren aretoan, 18:00etatik 21:00etara.


Plazako arkupeetan egin zuten azoka. | JULIO CALLEJA

# Euskararen Egunerako hainbat ekintza antolatu ditu Jardunek

**M.B.** | BERGARA
Abenduaren 3rako –Euskararen Eguna– ekitaldiak antolatu dituzte Jarduneko kideek Seminarioko jolastoki estalian: 17:00etatik 19:00etara haurrendako jolasak eta merienda egongo dira; eta 20:30ean bertso afaria Mikel Arrillaga eta Oier Aizpuruarekin. Txartelak salgai daude Jardunen, Irrintzin eta Arranon, 12 eurotan (10, bazkide, ikasle eta langabeek). Erromeria ere egongo da.

**Truke azokarekin pozik**
Bestalde, euskarazko liburuak trukatzeko azoka egin zuen aurreko asteburuan Jardunek, eta izandako harrera ona ikusita" datorren urterako ere egitasmoarekin jarraitzeko "animatuta" daudela esan dute. Bi helburuarekin egin dute azoka: batetik, euskarazko irakurketa bultzatzea; eta, bestetik, liburuak berrerabiltzea. Hau da, "etxean pilatu eta irakurtzen ez diren liburuei irtenbidea ematea". Aipatzekoa da azokaren aurretik bulegoan jasotako liburuez gain, azokan bertan ere aldaketak egiteko aukerak izan zirela, eta jende askok hartu zuela parte. Horren harira, adin guztietako jendeak hartu duela parte azpimarratu dute: "Haur, gazte, zein helduek, eta hori guretzat garrantzitsua da, guztiengana heltzea".

Debagoieneko
**PROFESIONAL LIBERALAK**

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**
Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**
Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
*altu-lasa@conet.es*

**RAFAEL ARANBURU**
Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

**ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL**
Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
*zenbaki@zenbaki.es*

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**
Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**
aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
*andrama@arrakis.es*

**ASEGI AHOLKULARIAK**
ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
*asegi@asegim.com*

**TBG AHOLKULARITZA**
BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**
ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
*zenbaki@zenbaki.es*

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**
BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**
ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
*uribesalgo@telefonica.net*

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA**
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Ziklismo denboraldiari errepasoa, mahaiaren bueltan, lagunartean

Elorregin batu ziren egubakoitzean Bergarako ziklismozaleak, tartean ziklista profesionalak, denboraldi amaierako afaria egiteko

**XABIER URTZELAI** | BERGARA

Konpromisoz betetako egunak dira hauek ziklista profesionalendako. Denboraldia amaituta, euren lagunarteekin, zaleekin eta lagunekin gustuz betetzen dituzten konpromisoak. Eta aspaldiko urteotan ziklista koadrila batek ez du Elorregin antolatzen duten afarira kalerik egiten, antolatzaileek ondo dakite-eta jendea zelan mimatu, etxean daudela sentiarazi, eta ez ziklistak bakarrik.

Bergarako ziklismozale koadrila batek –tartean Lokatzako ordezkariak, noski– antolatutako afarian izan ziren Patxi Vila, Juanma Garate, Iñigo Chaurreau, Mikel Pradera, Markel Irizar, Iban Velasco eta Jon Odriozola. Horiek txirrindularitzari lotutako izen ezagunak, baina eurekin batera ziren, baita ere, Lokatzako ziklista gazteak ere.



Ziklismozaleak, herriko ziklistak, ziklista profesionalak eta ziklista ohiak batu ziren egubakoitzean. | XABIER URTZELAI

### Urteari errepasoa

Bapo afaldu ostean, ziklismozaleen urteko errepasoa etorri zen lehenengo, irudiz eta argazkiz bikain muntatutako ikus-entzunekoa erakutsi zuten elkartean bertan, Girora, Tourrera eta Vueltara egindako bidaietan hartutako irudiekin. Ondoren, Chaurreauk –egun, Euskadiko federazioko ordezkaria da– mikrofonoa hartu, eta galdera *pikanteak* eginez tira egin zien ziklisten mingainei: "Gaztetan nuen ilusioa dut berriro", entzun genion Vilari, ziklismo profesionalera egingo duen itzulera dela eta. "Badakit Frantzian irabazi dudan lasterketa ez dela proba entzutetsuena, baina sekulako ilusioa egin zidan", adierazi zuen Irizarrek; edota: "Euskal Herriko Itzulian zelan egon nintzen ikusi ondoren, deseatzen nago urtea hasi eta ze maila eman dezakedan ikusteko", bota zuen Velascok.

Juanma Garatek esan zuen nahiz eta aurten etaparik irabazi ez gustura geratu dela egindako denboraldiarekin, eta Jon Odriozolari esku artean duen proiektuaren gainean galdetu zioten. Oñatikoa sukalde lanetan dabil, baina itxura polita du proiektuak. Lokatzako ziklista gazteek ere egin zuten jendaurrean berba; besteak beste, amateur mailara salto egingo duten Jon Riverok eta Unai Retolatzak.

## Amateur mailako ziklismoari, agur

Afariak, baina, izan zuen albiste tristeagoetarako tartea. Denboraldi hasieran, Debagoienean izango genituen amateur mailako hiru ordezkariak aurkeztu zituen GOIENAk. Asier Penabad, Iban Caballero eta Xabier Arantzeta ziren haiek, eta egubakoitzean baieztatu zuten, hirurek, ikasketak direla-eta ziklismoa uztea erabaki dutela. Txirrindularitzak eta ikasketek bateragarri izan beharko lukete; ematen du zer pentsatu...



Arantzeta, Penabad eta Caballero, martxoan egindako erreportajean. | X.U.

## Lokatzako ateak zabalik ziklista gazteendako

**X.U.** | BERGARA

Dagoeneko hasi dira Lokatza Ziklismo Eskolako kadete eta gazte mailetako txirrindulariak entrenatzen datorren denboraldiari begira. Baina klubean badago txirrindulari berriendako tokia. Bada, taldean sartu nahi duten gazteek *lokatza_ze@hotmail.com* helbidera idatzi behar dute. Kontuan izan behar da kadete mailakoak 1995 eta 1996. urteetan jaiotakoak direla eta gazte mailakoak 1993 eta 1994. urteetan jaiotakoak.

Bestalde, infantil eta alebin mailetakoen entrenamenduak eta lasterketak udaberri inguruan hasiko dituzte, eta orduan izango da izena emateko aukera. Hala ere, interesaturik balego, klubeko ateak zabalik izango ditu.

## Saskibaloian, aurrean dabiltzanen arteko lehia domekan

Azken hiru jardunaldietan jarraian irabazi ostean, Soraluce BKE saskibaloi taldeak 14 puntu batu ditu, eta bosgarren dago sailkapenean. Puntu bat gehiagorekin dago Lehioak Zast taldea, bigarren sailkatua. Eta bi talde horiek domeka arratsaldean jokatuko dute elkarren kontrako partidua, 17:00etan, Labegaraietako kantxan.

## Soraluce BKE eskubaloi taldekoak, atzetik aurrera

Euskadiko txapelketan lehian dabilen Soraluce BKEk Gasteizera bidaia egingo du zapatuan (18:00), Gure Sucesores de Agirre taldearen kontra lehiatzera. Etxeko mutilak hasi dira benetako maila erakusten, dagoeneko hiru partidu irabazi dituzte, eta talde gasteiztarra ligako kontrario zuzenetako bat da.

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

GOIERRI
Autogidarien Eskola
Gidabaimena euskaraz zein gazteleraz atera dezakezu
Informa zaitez
Fraiskozuri plaza 5 Tel.: 943 76 41 50 BERGARA

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
Bidekurutzeta 24
BERGARA
943 76 13 35

## Rafa Rueda eta Edorta Jimenez domekan Zabalotegin

Rafa Rueda musikariaren eta Edorta Jimenez idazlearen eskutik, *Haragizkoa* poesia errezitaldia izango da domekan Zabalotegin, 19:00etan.

Udaberrian kaleratu zuen Omar Nabarrok *Haragizko amoreak* poema liburua (Susa). Liburuan oinarrituta jarri zuten martxan ikuskizuna Ruedaren konposizioekin eta Jaime Nieto baxu-jotzailearen kolaborazioarekin. Joseba Barrenetxea argazkilaria arduratu da irudi-estetikaz. Sarrerak, 5 eurotan, domekan.

## 'Olentzero & Co!': haurrei zuzendutako emanaldia domekan

*Olentzero & Co!* musikalaren entsegu orokorra egingo dute domekan, hilaren 28an, Udal Pilotalekuan, 18:30ean. Haurrei zuzendutako emanaldia izango da: 8 eta 12 urte bitarteko haurrak (LH 3, 4, 5, eta 6. mailak) bakarrik sartu ahal izango dira eta sarreraren salneurria sinbolikoa izango da: 2 euro. Helduek ezin izango dute sartu. Haurrak, irakasle profesionalen laguntzaz, antolakuntzaren ardurapean egongo dira. Esan bezala, entsegu orokorra izango da.



Kandido Uranga aktorea ikuskizuneko irudi baten. | GOIENA

# 'Txakurrek haginka' antzezlana Kandido Urangarekin gaur

### Pedro Alberdiren lanean, familia baten harremanak kontatzen dira

EDU MENDIBIL | BERGARA

Hiru belaunalditako familia baten arteko harremanak kontatzen dira *Txakurrek haginka* antzezlanean. Bat-batean hildako aitaitaren heriotzak kolpatu egin du familia. Neurrigabeko ezbeharrak eragingo du seme-ilobak hausnarketak muturreraino eramatera, beldurra deskubritzeraino. Kandido Uranga aktore ezaguna (Zumaia, 1955) da antzezlaneko protagonista bakarra: pantailan aita-semeen arteko elkarrizketa proiektatuko da, eta, proiekzioaren aurrean jarrita, haren itzalak pantaila zurian, aita-semeen arteko elkarrizketa eta erreflexioak kontatuko ditu Urangak, irakurriz, ia mugimendurik gabe. Era berean, ikus-entzunezko baten bitartez, aitaita-amamen arteko elkarrizketa eskainiko dute, non haien bizimodua eta jakinduria islatzen baiten.

**Ibilbide luzeko aktorea**

*Txakurrek haginka* antzezlana Pedro Alberdik idatzitakoa da eta egokitzapena Kandido Urangak berak egin du. Orain dela bi urte estreinatutako lana da. Musika Fran Lasuenek egin du eta antzezlanaren iraupena 45 minutu inguru da.

Esan bezala, ibilbide luzea darama Kandido Urangak. 1979an ekin zion interpretazioari eta euskal aktoreen artean aurpegi ezagunetakoa bilakatu da urte hauetan guztietan. *Goenkale* telesailean parte hartutakoa da Uranga, eta zineman, *Bosque de Sombras*, *Eutsi!*, *Silencio roto*, *Ke arteko egunak* eta *Ander eta Yul* izan dira haren lanetako batzuk. Antzerkian, *Jon Mirande* izenburuko lanarekin ere badabil aspaldian eta 2006. urtea ezkero Bernardo Atxagaren testuan oinarritutako *Henry Bengoa Inventarium* antzezlanarekin ere bai. Gaur Bergaran erakutsiko duen *Txakurrek haginka* horretan, zuzendari lanak egin ditu Urangak.

Emanaldia, Zabalotegiko aretoan izango da, 22:30ean. Ikuskizunerako sarrerak 5 eurotan eskuratu ahal izango dira leihatilan bertan.

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak
Paper pintatuak
Moketa eta sintasola
Harea zorrotada
Iztuku esponjatua
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16
Faxa: 943 76 09 32

NIRE USTEZ



**SUSANA ARRESE**

# Oñatiarrok kanpotik ikusita

Oñatiarrak itxiak zarete. Kanpotik Oñatira etortzen den edozein adineko pertsonarentzat, lagun talde baten kide izatea oso zaila da, eta horri euskaraz ez jakitea gehitzen badiogu...". Gauza bera askotan entzun ondoren, barneratu eta azkenean sinistu egin dugu. Bada, aurten atzerritik etorritako ikasle batzuek ideia hau aldatzen lagundu didate. Irailean iritsi ziren lehenengo aldiz, jaietan. Dirudienez, Herri Egunean, Oñatiko gazte koadrila batek eurekin Arantzazura bazkaltzera gonbidatu zituzten batzuk; beste batzuk, kiroldegian bazkaltzen zeudela, aldamenean zituzten bikoteekin haien elkartera joan ziren.

Puerto Ricoko ikasle batek, berriz, oñatiarrok bata besteengan konfiantza handia dugula esan zidan. Ez nuen uste ba horrelakoak ginenik! Honako istorioa kontatu zidan: bere herrian ezinezkoa da, hemen elkarteetan egiten dugun bezala, norberak kontsumitu duena apuntatu eta ordaintzea. Bat-batean finlandiarrei buruz gauza bera pentsatzen nuela konturatu nintzen. Hango Unibertsitatean ikasleek edariak eta galletak gela baten prezio zerrenda batekin uzten dituzte, eta norberak hartzen duena ordaintzen du. Hori ikusita, Oñatin gauza bera egitea ezinezkoa izango zela pentsatu nuela aitortu behar dut. Eta begira, kanpotik etorri behar guri buruz berdina pentsatzen dutela esateko.

**"Askotan entzun dugu itxiak garela, eta sinistu egin dugu"**




Saria irabazi duten ikasleak euren marrazkiekin eta puntu lilarekin eta udal ordezkariekin. | MIREIA BIKUÑA

# Tratu txarren kontrako marrazkiak aurkeztu zituen Gizarte Zerbitzuak

Zuazola eta Mikel Aozaraza ikastetxeetako ikasleen lanak aukeratu dituzte; biek ala biek ikas-bidaiarako dirua jaso dute opari moduan

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Atzo, emakumeen aurkako tratu txarren kontrako nazioarteko eguna ospatu zen, eta hori aitzakia hartuta agerraldia egin zuten Udaleko Gizarte Zerbitzuetako ordezkariek. Lourdes Idoiaga alkatearekin, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Rosarito Galdosekin eta Prebentzio Saileko teknikari Ainhoa Moiuarekin marrazki lehiaketako bi sariak irabazi dituzten ikasleak egon ziren. Izan ere, Prebentzio Sailak marrazki lehiaketa egin du DBHko hirugarren eta laugarren mailetako ikasleen artean. Guztira, 30 lan aurkeztu dituzte. Launaka eta bosnaka egin dituzte lanak, eta onenak izan dira Zuazola Institutuko laugarren mailakoek eta Mikel Aozarazako hirugarrenekoek egindakoak. Biek ala biek ikas-bidaian gastatzeko dirua irabazi dute sari modura (lehen sariagatik 500 euro eta bigarrenarengatik 250 euro). Gainera, lehen saria irabazi dutenek euren lana publikatuta ikusiko dute. "Hurrengo urteko jaietarako pegatinak edo txapak egingo ditugu marrazki irabazlearekin", esan zuen Ainhoa Moiuak, Prebentzio teknikariak. "Lan ona egin dute, eta polita, gainera. Eskertzekoa da euren esfortzua", esan zuten udal ordezkariek.

> **DATUA**
> **30**
> LAN
> Horiek dira DBHko irudia aukeratzeko lehiaketara aurkeztutako lanak.

### "Beldur barik aurrera"

Atzo emakumeen aurkako tratu txarren kontrako nazioarteko eguna zela aprobetxatuz, Lourdes Idoiaga alkateak esan zuen udalbatzak bat egingo zuela Berdin Sareak egindako adierazpenarekin: "*Beldur barik* leloarekin beldurra ukatzen dugu, eta tratu txarrak bukatzeko hainbat tresna jarriko ditugu emakumeen eskura". Iritzi bera azaldu zuen Rosarito Galdos zinegotziak. "Pausoz pauso bidea egiten gabiltza. Halako gaitz bati aurre egingo diogu guztion artean. Ezin gara isilik geratu. Beldur barik egin behar dugu aurrera".

# Ganbarako kantu eskolakoek kontzertua egingo dute bihar

**M.B.** | OÑATI

Ganbara taldeko abesbatzak lanean dabiltza ikasturtea hasi zutenetik. Irailetik landutako abestiak bihar erakutsiko dituzte. Ganbara Gazte, Ganbara Txiki eta Ganbara Txikitxo abesbatzek kontzertua egingo dute Santa Ana antzokian, 19:00etan. Guztira, 140 bat neska-mutiko igoko dira oholtzara. "Batzuendako lehenengo zuzenekoa izango da, eta urduri baina gogotsu daude", esan digu Aitor Biain zuzendariak.

Musika, kolore eta kantu dibertigarriak izango dira nagusi. Hori horrela, Ganbara Txikitxoak taldekoek Josu Elberdinek idatzitako *Kapitain, kapitain* kantua antzeztu eta abestuko dute. Emanaldira joan gura duenak kultura etxean eros dezake sarrera bost eurotan. Leihatilan ere salgai ipiniko dituzte. Zuzendari lanetan Miren Plazaola eta Aitor Biain ibiliko dira, eta pianista Eli Mendiaratz izango da.

### Abenduan, gehiago

Ganbarako taldeek beste hainbat emanaldi egingo dituzte abenduan. Lehena abenduaren 10ean egingo dute Ganbara Gaztek eta Ganbarak agustindarren elizan. Abenduaren 19an, aldiz, Gabonetako kontzertuan parte hartuko dute eta 20an, Ganbara Gaztek Bilboko Guggenheim museoan emanaldia egingo du. Gainera, Ganbara Txikik Errenteriako Gabonen abesti sariketan parte hartuko du.

**KIRKOS**
SEXOLOGIA ZENTROA
Sexologoa: Edu Reguero (AEPS 421. zenb.)
> Bikote-terapia
> Gurasoentzako aholkularitza
> Sexuaren eta elkarbizitzaren zailtasunak
> Eiakulazio goiztiarra
> Desira falta
> Inpotentzia
> Baginismoa
Elizkale 13 solairuartea ezk. - 630 287 321
ZUMARRAGA

**PATXI CASTRO**

Era guztietako aulkien konponketa
•
Tapizatu lanak
•
Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta
•
Besaulki, mahai, saskiak e.a
**943 78 71 65**
**639 01 69 69**

## San Isidro jaiak ospatuko dituzte Uribarri auzoan

San Andres eguna hilaren 30ean da, baina Uribarri auzoan gaurtik domekara arte ospatuko dituzte jaiak. 20:00etan hasiko dituzte jaiak auzoko eskolan etxafuego jaurtiketarekin, bertso saioarekin eta gaztaina-erre janarekin. Ondoren, 22:00etan 21. mus txapelketa egingo dute Urtiagainen. Bihar, haurrendako jolasak eta merienda egingo dute, 16:00etan, eskolan. 21:00etan auzo afaria eta erromeria egingo dituzte Urtiagainen.

Domekan, azkenik, meza nagusia egingo dute, 12:00etan, Oñati Abesbatzaren laguntzarekin. Ondoren, luncha eta bertso saioa egongo dira.

## Gipuzkoako Zero Zabor taldeak hitzaldia egingo du

Gipuzkoako Zero Zabor taldeak hitzaldia egingo du abenduaren 1ean kultura etxean, 19:00etan. Talde horretako kideek zaborraren gainean egingo dute berba: zaborrarekin zer egiten den edo zer egin daitekeen, atez ateko zabor bilketari buruz egingo dute berba. Zaborraren arazoarekin kezkatuta dauden guztiak gonbidatzen dituzte.

## OHARRAK

**KINTADA**
1965. urtean jaiotakoek kintada egingo dute, bost urteren ondoren, Etxe Aundi jatetxean. Hilaren 11n elkartuko dira, bazkaltzeko, 14:30ean. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte 30350005360051043269 kontuan. Informazio gehiago gura duenak 636 85 75 63 edo 689 23 11 93 telefonora dei dezake.

**KIROLA**
Fitbikearen gaineko *master class* bat egingo dute gaur Zubikoan, 18:30etik 20:00etara arte. Doakoa da, baina aldez aurretik izena eman behar da.

**ERAKUSKETA**
0-9 urte artekoendako jostailu erakusketa egingo dute aste bukaeran Txaloka ludotekan. Zapatuan eta domekan zabalduko dute 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

**MUSIKA**
Udal Musika Bandak Santa Zeziliaren omenezko kontzertua egingo du domekan Santa Ana antzokian, 12:45ean. Parrokiako Abesbatzaren laguntza izango dute. Kontzertua bukatzeko, *Cantantibus, cantantibus* eskainiko dute elkarrekin.

## BETERANUAK

**EMAITZAK "A" TALDEA**

| | |
|---|---|
| Txuskos-Ankarteko | 2-2 |
| Indar 85-Joxely | 3-1 |
| Xaguxar-Nandrolona | 2-0 |
| Gaur Bai-The Gibel Boys | 1-4 |
| Bundeswehr-Dollygans | 1-5 |

**SAILKAPENA "A" TALDEA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Dollygan's | 9 | 3 |
| 2 | The Gibel Boys | 9 | 2 |
| 3 | Inadr 85 | 6 | 3 |
| 4 | Xaguxar | 6 | 3 |
| 5 | Joxely | 4 | 3 |
| 6 | Nandrolona | 4 | 3 |
| 7 | Gaur Bai | 1 | 3 |
| 8 | Txuskos | 1 | 3 |
| 9 | Bundeswehr | 1 | 3 |
| 10 | Ankarteko | 1 | 3 |

**SAILKAPENA "B" TALDEA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Txarrixak | 6 | 2 |
| 2 | Zorrobero | 6 | 2 |
| 3 | Albok | 3 | 1 |
| 4 | Kalañatasaray | 3 | 2 |
| 5 | Paketinaikos | 3 | 2 |
| 6 | Sasquatch | 3 | 2 |
| 7 | Lozorromo | 0 | 1 |
| 8 | Etxaixat | 0 | 2 |
| 9 | Jai Ari | 0 | 2 |

**PARTIDUAK "B" TALDEA**

3. JARDUNALDIA

**Zapatua 13:00** Paketinaikos-Kalaña.

**Zapatua 14:30** Jai Ari-Sasquatch

**Zapatua 18:30** Txarrixak-Albok

**Zapatua 20:00** Zorrobero-Lozorromo

**Atsedena:** Etxaixak

**Olaia Gil** | Aktorea

# "Gonbidatuko nituzke tratu txarren kontra egin behar dugula diotenak"

▶ Olaia Gil aktoreak 'No me hagas daño' antzezlana taularatuko du gaur

▶ Ttanttakaren emanaldia Santa Ana antzokian izango da, 22:30ean

MIREIA BIKUÑA | OÑATI

*No me hagas daño* antzezlana Donostia Hiria Kutxa Saria-2010 irabazi zuen testuan oinarrituta dago. Olaia Gil da protagonistetako bat. Emanaldira joateko gonbita egin digu.

**Izenburu gogorra duen antzezlanarekin zatozte Oñatira. Zer kontatzen duzue?**

Tratu txarrei buruzko antzezlana da. Sexu-indarkeria oinarri hartuta, *thriller* estiloan istorio polita kontatzen dugu. Kontakizun hunkigarria da.

**Eta zein da zure papera?**

Tratu txarrak jasan dituen emakumearen alaba naiz, Paula. Guztira, bost pertsonaia igoko gara oholtzara: nire gurasoak, psikologoa, nire lagun kolonbiarra eta ni neu. Guztiok gara garrantzitsuak antzezlanean. Guztiok dugu gure betebeharra. Puzzle bateko piezak gara.

**Punta-puntako aktoreekin egiten duzu lan.**

Bai, hala da. Kike Diaz de Rada (aitaren papera egiten du), Maiken Beitia (tratu txarrak jaso dituen ama), Isidoro Fernandez (psikologoa) eta Tania de la Cruz (lagun kolonbiarra) aktoreekin egiten dut lan. Euren curriculumak ikusita, argi dago puntapuntakoak direla, eta oholtza gainean nabaritu egiten da.



Olaia Gil aktorea. | GOIENA

> **"Istorio hunkigarria da, barruraino sartzen den horietakoa"**

**Nola sentitu zara eurekin lanean?**

Oso ondo. Asko ikasi dut eurekin. Nire lehen lan profesionala izan da, eta horrelako maila duten aktoreekin lan egitea luxua da. Eguneroko lanak asko ematen dizu. Baina lankideekin bakarrik ez, Fernando Bernues zuzendariarekin ere asko ikasi dut. Eskola baten egotea bezalako esperientzia izan da.

**Lehen lan profesionala, eta, gainera, tratu txarren gainekoa. Kosta egin zaizu papera egitea?**

Oso zaila da halako istorio baten sartzea. Ni alaba naiz, baina entseguetan, egunero, giro horretan sartzea gogorra da. Azken finean, gure helburua da tratu txarrak sufritu dituen pertsona baten istorioa sinesgarri egitea, eta horretarako paperean sartu beharra dago, buru-belarri.

Lagunekin askotan hitz egin dut horri buruz. Ze zaila den egoera dramatiko bat antzeztea eta sentimenduak sinesgarri egitea... Baina lortu egin dugula esango nuke.

**Nortzuk gonbidatuko zenituzke gaurko emanaldira?**

Umeak kenduta, edonor gonbidatuko nuke. Lan hunkigarria da, barruraino sartzen den horietakoa. Ikusle batzuek pentsatu baino gutxiago sufritzen dute, eta beste batzuek alderantziz.

Gogorra da, baina tratu txarren kontra egin behar dugula diotenak gonbidatuko nituzke. Azken finean, gai dramatikoaren atzean istorio bat dago. Benetan, merezi du.





Pello Gonzalez –Ogasun diputatua–, Aldundiak garatutako proiektuen berri ematen herritarrei, martitzenean. | M.A.

# Herritarren kezkak entzun ditu Ogasun diputatuak

## Alderdi, ikastetxe eta herriko elkarteetako 20 bat ordezkari elkartu ziren Pello Gonzalezekin

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA
Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko diputatu Pello Gonzalez 20 bat aretxabaletarrekin elkartu da astean. Alderdi politiko, ikastetxe eta herriko hainbat elkartetako ordezkariek kezkak agertzeko tartea izan dute.

Aldundiaren Kudeaketa Planaren berri eman zuen Gonzalezek; hau da, hiru urte pasatxoan zein proiektu garatu dituzten Gipuzkoan. Gogorarazi gura izan zuen gizarte politiken arloan Debagoienean egindakoa: "Aretxabaletan zabaldutako zaharren egoitzak itxaron-zerrendak nabarmen arindu ditu, eta aurreikuspenetan baino plaza gehiago bermatu dira".

Agintaldi hasieran inork ez zuela espero krisi ekonomikorik onartu zuen, eta horrek diru kontuak baldintzatu dituela. Hala ere, estrategikoak diren proiektuekin aurrera egin dutela esan zuen, eta, gainera, bi gune indartu dituztela: "Enpresak eta pertsonak. Atzerapausorik ez izateko enpresak; eta era berean pertsonak, horiek sufritzen dutelako krisia". Aurten krisiaren aurkako plana jarri dute abian, 100 milioi euro bideratuta, eta 2011ko aurrekontuan jarraipena izango duela iragarri zuen, 71 milioi eurorekin.

**ESANAK**

**"Enpresa eta pertsonen alde egingo dugu atzerapausorik ez izateko"**

PELLO GONZALEZ | DIPUTATUA

**Herritarren eskaerak**

Elkartutako herritarrek hainbat kezka helarazi zizkioten Ogasun diputatuari. UDAko ordezkariak gogorarazi zion kirol *couching*-a abian jartzeko diru-laguntza eskaeraren erantzunik oraindik ez dutela jaso. Kurtzebarri eskolako ordezkariak, ostera, esan zion errepideko zaratetatik babesteko pantaila jartzeko eskaerari ezetza eman dietela. Eta Inaxio Garro alkateak Aretxabaletak garraio publikoan dituen gabeziak gogorarazi zizkion. Guztiak erantzuteko konpromisoa hartu zuen Gonzalezek.

Herritarren iritzia ezagutu eta Gipuzkoaren etorkizuneko proiektua diseinatzeko inkesta bete zuten ekitaldira joandakoek. Gainera, iradokizunak helarazteko beste bi bide daude: *www.gipuzkoapartehartzen.net* webgunea eta *gipuzkoaeraikitzen@gipuzkoaeraikitzen.net* helbidea.

# Odolostea eta txistorra probatzeko aukera dago gaur UDAren eskutik

M.A. | ARETXABALETA
Aretxabaleta Kirol Elkarteak dirua batzeko helburuarekin odoloste eta txistorra dastatzea egingo du gaur (18:30-22:30). Mitarte kalean egiteko asmoa daukate, baina eguraldi txarra eginez gero Herriko Plazan izango da ekitaldia.

**Pikantedun odolosteak**

Durana kalean dagoen Bengoa harategiko odolosteak eta txistorra eskainiko dituzte: 28 kilo odoloste eta sei kilo txistorra. Harakinak jakinarazi du pikante puntua izango dutela odoloste horiek. "Astelehen guztietan egiten ditu odolosteak Ramonek, eta benetan goxoak dira", diote antolatzaileek.

Eta jatekoari lagun egiteko Luis Alegre eta Gomez de Segura upategietako ardo onduak eta Kataluniako Duran upategiko cava izango dituzte. Mokadutxoa edatekoarekin batera 2,50 eurotan egongo da eta jatekoa eta edatekoa bakarrik ere hartu ahal izango da euro eta erdian.

Horrez gain, Gabonetarako atera duten loteria ere izango dute salgai kirol elkarteko kideek.

**Aretxartek txartelak opari**

Aretxarte merkatarien elkarteak bat egingo du UDAk antolatutako dastatze horrekin eta odolostea eta txistorra debalde hartzeko txartelak banatuko ditu gaur, bezeroen artean. Jatekoarendako bakarrik izango dira txartel horiek, edaria norberak ordaindu behar du.




M.A.

# Zabalik dago Urkulu lokutorioa

Zapatuan zabaldu zuten Mitarte kalean dagoen Urkulu lokutorioa eta gozo-denda. Arrasaten bizi den Ahmed marokoarra da ugazaba eta zerbitzu zabala eskaini gura du: "Oraingoz, 08:00etatik 21:00etara daukagu zabalik egunero, proba egiteko". Lokutorioetako telefonoekin arazo teknikoak izan ditu, baina lehenbailehen jarri gura ditu martxan, baita Internet zerbitzua ere. Horiez gain, gozokiak eta jatekoak dauzka.

# Karmele Igartua izango dute gogoan Udazkeneko Jaian

M.A. | ARETXABALETA
*Lagun ona zara, eskerrik asko* leloa duen balioen astea egingo dute egunotan Kurtzebarri eskolan. Hainbat kontu landu ostean, aste horri bukaera emateko Udazkeneko Jaia ospatuko dute datorren eguenean, abenduak 2, Iturrigorri pilotalekuan (18:00).

Aurtengo jaia, baina, berezia izango dela iragarri dute eskolako kideek: "Gure ikaskide eta lagun izan den Karmele Igartuari gure agurra eta aitortza adierazi nahi diogu eskola osatzen dugun guraso, ikasle eta irakasleok".

**Kantuak, dantzak eta jatekoa**

Txalapartariek emango diote hasiera jaiari. Ondoren, eskolako bi gurasok aurreskua dantzatuko dute Igartuaren ohorez. Negua hurbil dela-eta *San Simon eta San Juda* abestia kantatu eta, azken urteotan egindako moduan, ikasleen arteko irrintzi lehiaketa izango da gero. Dantzan ere egingo dutela iragarri dute: "Sabela betetzen hasi baino lehen, kontra-dantza eta txapeloaz dantzatuko ditugu".

Jaia bukatzeko, buzkantzak, gaztaina-erreak eta sagardoa dastatzeko aukera izango dute.



Karmele Igartua. | M.A.

## Aretxarteren azaroko saria, lehenengo deitzen duenarendako

Merkatarien elkarteak egin du azaroko zozketa, lau t'erdiko pilota partiduko finalerako sarrerak banatzeko. Hiru zenbaki atera dituzte: 65.725 –Anitua farmazian banatua–; 70.225 –Asensio jantzi-dendan–; eta 69.120 –Leintz mertzerian. Hiru zenbaki horietakoren bat duenak lehenbailehen deitu behar du 943 79 98 76 zenbakira, lehenengo deitzen duenarendako izango dira-eta sarrerak.

Urriko saria, ostera, Iosu harategian banatutako 53.775 txartela duenarendako da.

## Sexualitatearen gainean jardungo dute gaur gaztelekuan

Gaur, egubakoitza, sexualitatearen gaineko tailerra egingo dute Atxagazte gaztelekuan (18:00). 12 eta 14 urte bitarteko gaztetxoendako izango da eta Irune Gabilondo adituak gaztetxoon zalantzak ezagutu eta argituko ditu.

Antolatzaileen esanetan tailer benetan interesgarria izango da "gaztetxoen hasierako galdera eta kezka horiek argitzeko" eta adin tarte hori duten herriko gazte guztiendako izango dituzte zabalik Atxagazteko ateak.

# Gazte Ekimenak antolatutako 'Gazteketan' jaiak irteera, bazkaria eta kontzertua dakartza

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

*Gazteketan* jaialdia egingo du bihar, hilak 27, Aretxabaletako Gazte Ekimenak. Herria girotzea eta gazteak mugitzea dute helburu: "Gaudenok gogotsu gabiltza, eta, beste inoren zain egon barik, mugitzea erabaki dugu", diote antolatzaileek.

**Kontzertua Iturrigorrin**

Aparteko egitaraua antolatu dute herria girotzeko helburu horrekin. Urkulu aldera irteera eginda emango diote hasiera egunari (09:30, Herriko Plaza), eta itzulitakoan (12:30) udaletxe zaharrean elkartuko dira jaiari ongietorria egiteko. Gaitari eta txalapartariak izango dituzte lagun orduan, eta txikiteoa egingo dute gero.

Bazkaltzeko elkartuko dira eguerdian (14:30), Mitarte plazako lokal baten. Eta arratsalderako "eskandalua" iragarri dute Elektrotxarangarekin.

Gau partea girotzeko kontzertua izango da Iturrigorri pilotalekuan. Hona taldeak: Kaleginez (Sakana); Disorders (Zaldibar); eta Never Surrender (Arrasate). Sarrera 3 euro da eta taberna jarriko dute bertan.



Gazte Ekimenak ekainean jarritako taberna Durana kalean. | M.A.



ANA ZUBILLAGA

## Ardiak futbol zelai inguruan, domeka goiz lasai baten

Udazkenak argazki politak eskaintzen ditu eta oraingoan herrian bertan topatu dute argazki bitxia. Hona hemen orain dela aste batzuk argazkia ateratakoek esandakoa: "Domeka goiz lasaia. Bat-batean, ardien futbol taldea dator kalean; entrenatzailea aurrean eta botileroa laguntzailearekin atzean". Ardiek, baina, Apotzaga-etxebarri inguruko zelaiak gurago, Ibarra futbol zelaia baino; izan ere, Ibarran ez dago belar usainik.

# Gaztetxoen bertso-eskolan izena emateko epea zabalik

**M.A.** | ARETXABALETA

Loramendi elkarteak gaztetxoen bertso-eskola antolatu gura du eta izenemate epea zabalik dauka abenduaren 2ra bitartean. Lehen Hezkuntzako 4. mailatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara arteko gazteendako da deialdia eta komunikazioa, sormena, kantua, euskara, euskal kultura eta beste hainbat gaitasun lantzeko aukera izango dutela iragarri dute antolatzaileek, "berbekin jolastuta eta berben bidez ikasita". Irakasle jardungo dute Nerea Urrak eta Beñat Zamalloak, eta eskolak debalde dira.

Izena emateko Loramendira jo (943 77 09 70- 685 75 67 29) eta taldea osatutakoan gaztetxoekin adostuko dute eskolen eguna eta ordua.

**Bainika ikastaroa abenduan**

Bestalde, bainika ikastaroa emango du Blanka Perea adituak, aurreko urteotan legez. Eskolak abenduan hasiko ditu eta eguaztenetan izango dira (18:00-20:00), udaletxe zaharrean. Loramendin eman behar da izena; elkarteko bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte eta gainerakoek, 38 euro.

goienakluba

Abantailaz betetako kluba!

'Olentzero & Co!' musikalerako sarrerak prezio berezian. Nahi?




Sarrerako prezioa: ~~15~~ €

Goiena Klubeko kideentzat*: 10 €

**OLENTZERO & CO! MUSIKALA**
**Eguna:** Abenduaren 11n | **Ordua:** 19:30ean.
**Lekua:** Arrasateko Amaia Antzokia.

**Sarrerak erosteko deitu 943 25 05 05 telefonora.**

*Kide bakoitzarentzat bi sarrera.

GOIENA KLUBA | Telefonoa: **943 25 05 05** | e-posta: **kluba@goiena.com**

# Aitor Urrutia helegitea aurkeztea aztertzen dabil

## Zaharren egoitzaren auziaren sententziaren harira lehen balorazioa egin du administratzaile ohiak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA
Zaharren egoitzaren auziaren harira, berba egin du administratzaile izandako Aitor Urrutiak. Erruduna dela dioen sententzia "onartzen" duela badio ere, horrekin "ados ez" dagoela aipatu du. Gaineratu du helegitea aurkezteko aukera aztertuko duela eta "zuzenen" iruditzen zaion moduan jokatuko duela.

Sententziak dio Aitor Urrutia erruduna dela eta "kaleratzea, bidezkoa". Epaian jasotakoaren arabera, zuzendari ohiak ez zituen bete bere funtzioak eta hori "arduragabekeria larritzat" jotzen du. Hori dela-eta, "zigorrik handiena" merezi duela nabarmendu du epaileak; hau da, Patronoen Juntak erabakitako lan-kaleratzea.

**"Alkatearen premia"**
Orain arte "isilean egoten" ahalegindu bada ere, "tamalez" komunikabideen aurrean agertzeko beharrean egon dela dio Urrutiak: "Alkatearen premia obsesibo pertsonal eta politikoek, nire pribatutasun eskubidea urratuz, bere ekintza politikoaren jomuga bihurtu dute gai erabat pribatu bat, zuetariko edonork izan dezakeena". Urrutiak berretsi du ez duela "euro bakar bat" eraman, eta honakoa ohartarazi du: "Kereila jarriko diot halakorik esan edo iradokitzen duen edonori".

Errudun ez dela nabarmentzeaz gain, dio bi gauza "ezkutatzen" saiatzen direla: batetik, "obra baimenak ez emanaz" Udalean egoitza berriaren proiektua "bertan behera" uztea "bere gain beto eskubideak hartuz". Urrutiaren ustez, "huts historikoa" da hori, "eskoriatzarren belanauldi askok ordainduko dutena". Bestetik, "udalean enbarazu gehiegi egin dezakeen oposizio edo arerio politiko baten kanporatzea" dago, "Alkate jaunaren ploltsikoari zuzenago ikutzen dion beste gai batekiko izan dugun jarreraren-gatik". Urrutiak dio, "ez omen dago politikarik honetan guztian, baina politikarik ez dagoela adierazten duten bitartean, alkatea nire alderdiko Gipuzko Buru Batzarrera zuzentzen da, Salaberria zinegotziaren bitartekaritza ordainezinarekin".

Urrutiak dio "barregura" ematen diotela epaiarekin justizia egiten dela dioten adierazpenek: "Justizia egin al zen alkate jaunak autopistagatik kalteturiko bere lurzoruen balorazio ekonomikoaren kontura Foru Aldundiarekin galdu zuen auzian?". Edo justizia egiten ari zen "Ino Galparsoro espetxean zegoela beti olerki berarekin gozarazten zizkigunean Udaleko bilkuren hasierak?. "Ez, orduan, ez; ez baitzen norberaren aldekoa. Hura ez zen justizia. Orain, bai, ordea".

Amaitu aurretik, honakoa ohartarazi du: "Datozen garaietan nik zein nire alderdiak lintxamendu helburu izaten jarraituko dugula".

**ESANAK**

**"Kereila jarriko diot lapurtu dudala esan edo iradokitzen duenari"**

**"Lintxamendu helburu izaten jarraituko dugu nik eta EAJk"**

AITOR URRUTIA |
EGOITZAKO ADMINISTRATZAILE OHIA

# Ardo dastatzea egingo dute bihar iluntzean Herriko Plazan

M.B. | ESKORIATZA
Ohitura onak ez dira galdu behar, eta, hori dela-eta, ardo dastatzea antolatu dute aurten ere Aitzorrotz kultura elkartekoek. Bihar, zapatua, izango da, Herriko Plazan, 18:30ean. Vitaran, Garcia de Olano, Ikasle eta Manso Anaiak egongo dira ardoa banatzen, bakoitza dagokion karpatxoan.

Eskainiko diren ardo guztiak onduak izango dira, eta aurten honako hauek dastatu ahal izango dira: Tilenus, Ares, Mazarredo de Ostatu, Sobron, Viña Vitaran, Garcia de Olano eta Heras Cordon.

**Txartelak 5 eurotan**
Txartelei dagokienez, bost ardo kopa edo pintxo dastatu ahal izateko txartelak banatuko dituzte, bost euroren truke. Dena dela, aurten, lehen aldiz, txartel solteak salduko direla jakinarazi digute Aitzorrotzekoek. Bakoitzak 1,5 euro balioko du. Esan bezala, pintxoak ere gertatuko dituzte. Antolatzaileek 400 pintxo-txistorra inguru ateratzea espero dute.

Aurreko urteotan bezala, dastatzeak irauten duen bitartean zuzeneko musikaz gozatu ahalko dute ardozaleek, txistularien emanaldiarekin.



Joan den urteko ardo dastatzea. | GOIENA

## OHARRAK

**UMEAK**
Gaur, egubakoitza, jantziak egiten ikasiko dute ludotekara joaten diren neska-mutikoek.

**GAZTEAK**
*Paint-ball* irteera izango dute bihar, zapatua, herriko gaztelekuan.

**UMEAK**
Pirritx, Porrotx eta Marimototsek *Ongi etorri, Pupu eta Lore!* ikuskizuna estreinatuko dute bihar, 17:30ean, kiroldegian. Aforoa mugatua dela-eta, ezin da inor sartu sarrerarik gabe.

**BERTSOAK**
Afaria dago bihar, 21:30ean, Apotzagako San Migel merenderoan. Jon Maia eta Amets Artzallus izango dira han.

**KIROLAK**
Bi hitzordu ditugu asteburuan, biak domekan: 11:00etan, kadete mailako saskibaloi partidua dago, Eskoriatza eta Añorga artean; eta 17:00etan, Euskal Ligako areto-futbola, Eskoriatza eta Inter artean.

**UMEAK**
Etzi puzgarriak daude kiroldegiko igerilekuan. 16:00etatik 17:00etara 6 urtetik beherakoak izango dira, 17:00etatik 18:30era 7 eta 9 urte artekoak eta 18:30etik 20:00etara hortik gorakoak. Bazkideek 2 euro ordainduko dituzte eta gainerakoek, 3 euro.

# 'Los colores del humor' antzezlana gaur unibertsitatean

M.B. | ESKORIATZA
Antzerki emanaldiak itzuli dira herrira. Gaur, egubakoitza, Kunka taldearen *Los colores del humor* antzezlan umoretsua ikusteko aukera egongo da unibertsitatean, 22:30ean. Betiko moduan, debalde izango da horretarako sarrera.

*Los colores del humor* gaztelerazko ezohiko hitzaldia da, barrearen munduan murgiltzen da, mundu komikoan, teoria eta praktika nahastuta. Hori lortzeko, Kunkak (Eloi Beatok eta Josean de Migelek) antzezlan txikien bidez alderdi jostagarrienak irudikatuko ditu, barrearen beraren bidez barrearen zokoak hobeto ezagutzeko. Gai serio bati buruzko hitzaldi barregarria.

## NIRE USTEZ



MANOLO MUÑOZ

# Polita da gogoraraztea

Prudentzio Agirianori esker sartu nintzen Eskoriatza kirol elkartean, orain dela 35 urte. Atletismo saileko ordezkari moduan sartu nintzen, eta jarraian, eskubaloian jokatu nuen lau urtez; lan istripu larri batek kirol hori bertan behera uztera behartu ninduen arte.

Elkartea desagertzekotan zegoenean, eskoriatzar talde batek elkartearen agintea hartzeko animatu ninduen, eta 1980-81 denboraldiaren amaieran horren ardura hartu nuen. Ordura arteko sail guztiak mantentzeaz gain, federatutako saskibaloia eta sokatira saila sortu genituen. 1982-83 denboraldian Eskoriatzako kirol elkarteko futbol sailak eskoriatzarrek hain erraz ahaztuko ez duten meritua lortu zuen: preferente mailara igotzea, hain justu ere.

Handik bi urtera, elkartearen presidentzia utzi nuen; baina 1987-88 denboraldian erronka batekin itzuli nintzen kargu horretara: aurreko denboraldian galdutako preferentera ostera ere igotzea. Izugarrizko esfortzua egin ostean, handik urtebetera erronka bete egin zuten jokalariek.

**"Eskerrik asko, 35 urtez Eskoriatzaren izenak merezi duen tokian jartzeagatik"**

Gaur egun, elkarteak honako sailak ditu: saskibaloia, areto-futbola, mendia eta pilota. Arrakasten atzean Eskoriatza eta elkarteari erabat entregatuta dagoen giza taldea dago beti. Eskerrik asko, guztiei, zuen laguntzagatik, eta 35 urte hauetan Eskoriatzaren izenak merezi duen tokian jartzeagatik.

# Urtetan abesbatzaren alde egindako lanaren esker ona jasoko dute

Salbador Olaberria eta Luis Pildain orain dela 35 urte hasi ziren Antzuolako abesbatzan; parrokiako koruan ere abesten dute, besteak beste

ARANTZAZU EZKIBEL | ANTZUOLA
Egun berezia izango da domeka Salbador Olaberriarendako eta Luis Pildainendako. Urtetan herriko abesbatzan egindako lanaren esker ona jasoko dute abesbatzako kideen partetik.

**Orain dela 35 urte hasi ziren**
Olaberria eta Pildain orain dela 35 urte hasi ziren Antzuolako abesbatzan. "Gizonak bakarrik hasi ginen; Bastidak Iparragirreren bertsoak hiru ahotsetan jarri zizkigun", gogoratzen dute.

Ondoren, emakumezkoak sartu zirela diote, orain dela 25 urte, gutxi gorabehera. "Gaur egun, 22 lagunek osatzen dugu abesbatza", diote. Abesbatza sortu zuten urte haietan zaletasun handia zegoela diote. Orain, hori aldatu egin dela eta gazte gutxi dabilela gaineratu dute.


Salbador Olaberria eta Luis Pildain, Herriko Plazan. | A.E.

**Simon Artolazabal**
Simon Artolazabal organo-jotzaileak erakutsi zien musika herriko mutikoei: sol eta fa klabeak. "Lan handia" egin zuela diote. Hala, gaztetatik izan dute musikarekiko zaletasuna Olaberriak eta Pildainek.

Urte hauetan, Donostiako, Bilboko eta Iruñeko abesbatzekin ibili dira, eta Madrilen ere izan dira abesten.

Aurrera begira, ahotsak laguntzen dien bitartean abesten jarraitzeko asmoa dutela diote.

## Antiguan izango da meza

Santa Zezilia ospatzeko meza domekan izango da, 11:00etan, Antigua elizan. Abesbatzak girotuko du meza. Mezaren ondoren, elizan bertan emanaldia egingo du abesbatzak. Lau lan abestuko dituzte: gizonezkoek *Zurekin* eta *Amalur Edelweiss* eta emakumezkoek *Bautista Basterretxe* eta *Barcarola*. Ondoren, luncha izango dute, eta han egingo diete Olaberriari eta Pildaini esker on ekitaldia.

Eguna borobiltzeko, bazkaria Ongi-Etorri jatetxean lagunekin eta familiakoekin.

## NIRE USTEZ


IÑIGO RAMIREZ DE OKARIZ

## Herri kezkak

Udala omen da herritarrek hurbilen duten erakundea. Iruditzen zait, baina, gero eta urrutiago dagoela bai erakundea eta baita bertan parte hartzen duten alkate eta zinegotziak ere. Herrian galdetuz gero zeintzuk dauden udaletxean herria ordezkatzen, gutxi batzuk dira gai ordezkari guztien izenak emateko. Ez dirudi, bada, interes handirik dagoenik herritarren partetik herriko udalak egiten duenarekin.

Baina badirudi oker nabilela; izan ere, herriko alkateak zera dio: "Kuriosoa da herri batek zalantzan jartzea armarria eta sinboloak". Baieztapen borobil, kategoriko hauek kaleratzea ez zait pedagogikoa iruditzen, errealitatetik kanpo daudelako. Herritarrei benetan galdetuz gero zeintzuk diren euren kezkak, armarriarena ez dela horretan sartuko susmoa dut.

Beraz, interes orokorra baino interes partikularra asetzeko (*ad hoc)* gehiago erabili dela Kudeatuz programa iruditzen zait, benetako herritarren kezkak alboan lagaz. Honekin ez dut herriko armarriaren azterketa anakronikoa baztertu edo ezkutatu nahi, baizik eta zalantzan jarri ea benetan herritarren kezka den. Kudeatuz programa hau, baina, badirudi ibilbide motzekoa dela, atez ateko zabor bilketarako ez duelako balio; izan ere, "gauzak ondo egitera goaz eta ez dugu zertan ibili gaia eztabaidatzen", dio alkateak. Harrigarria, benetan.

**"Herrian gutxi dira gai udal ordezkari guztien izenak emateko"**

## Danok Bat elkarteak 50 urte bete dituela ospatuko dute bihar

50 urte bete dira Danok Bat elkarte gastronomikoa sortu zela. Urteurren hori ospatzeko, elkarteak ateak zabalik izango ditu bihar, zapatua, goizean zehar. Bada, elkarteko presidenteak adierazi du herritar guztiak gonbidatuta daudela bihar, zapatua, 12:00etatik 14:00etara egingo duten lunchera.

## Zestoa liderraren aurka jokatuko dute etxekoek bihar

Lehenengoaren eta bigarrenaren arteko lehia izango da bihar, Eztalan, 15:45ean. Antzuolak Zestoa liderraren bisita izango du etxean. Esan behar da Zestoa eta Antzuola berdinduta daudela sailkapenean (24 puntu); hortaz, bihar irabazten duenak aurre hartuko du. Etxeko taldea liga hasira bikaina egiten dabil.

## Larruzko paleta txapelketako lehia gaur izango da

Olalde pilota elkarteko pala jokalariek gaur izango dute larruzko paleta txapelketako hirugarren lehia, 20:15ean, Antzuolako pilotalekuan, Usurbilen aurka, hain zuzen ere. Hurrengo aste bukaeran atsedena izango dute antzuolarrek; eta abenduaren 12ko aste bukaeran Oiartzungo Txost taldearen auka jokatuko dute.

## Gaur inauguratuko dute eskolako aterpea

A.E. | ANTZUOLA
Ia hiru hilabeteko atzerapenarekin izan arren, gaur inauguratuko dute eskolako jolaslekuko aterpea. 12:00etan izango da inaugurazio ekitaldi ofiziala.

Arratsalde partean, ostera, jolasak egingo dituzte gaztetxoenendako. 17:30ean izango da hori, eta ondoren txokolate-jana egingo dute.

Udalarendako 2010eko inbertsio handienetarikoa izan da eskolako aterpea. Alkatearen ustez, erabilera askotariko gune bat izango da: alde batetik, eskolako umeendako toki eroso bat izango da; eta, bestetik, balioko du herriko taldeek euren aktibitateak egiteko, edo edozein ekitaldi antolatzeko.

## Domekan banatuko dituzte XVI. argazki lehiaketako sariak

A.E. | ANTZUOLA
Dagoeneko aditzera eman dute nortzuk izan diren XVI. argazki lehiaketako irabazleak. Aurtengo edizioa, Mari Paz Ugalde eta Juanjo Amasorrain epaimahaikideen ustez, "orain arteko ediziorik onena" izan da. Kantitate eta kalitateari dagokionez marka guztiak gainditu dituzte.

**Irabazleak**
Lehenengo mailan Alaiz Mata eta Irati Arantzabal izan dira onenak; bigarren mailan, lehenengo saria hutsik geratu da eta bigarrena Mariñe Etxanizek irabazi du; eta, hirugarrenean, Iker Aizkorbe eta Kepa Igartza izan dira onenak. Sariak domekan banatuko dituzte, 18:30ean.


Lehenengo mailako argazki irabazlea: *Itzalak*. | ALAITZ MATA

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tel.: 943 76 64 23

MUJIKA HARATEGIA
Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

**Asier Agirre** | Aramaioko alkatea

# "Mendixolako adin txikikoendako zentroarekin kartzela jarri digute herrian"

- Udal aurrekontuak lantzeko parte hartzerako bideak zabalduko dituzte laster
- Kiroldegiko berritze lanetarako Diputazioak ukatu egin dio diru laguntza Udalari

**EDU MENDIBIL** | ARRASATE

Asier Agirre Aramaioko alkatea gonbidatu zuten martitzenean *Goiena Magazinea* saiora. Eneko Azkarate eta Arritxu Barruso lankideekin jardun zuen Agirrek eta ez zuen argi utzi hurrengo udal hauteskundeetan ezker abertzaleko hautagaia izaten jarraituko duen: "herri batzarrean erabakiko da hori. Zerrenda burua baino garrantzi handiagoa du ekipoak, oraingo agintaldian gertatu den bezalaxe. Edozein modutan beti nago gertu herriarendako lan egiteko".

Bestetik, udal aurrekontuak urtarrilaren erdialderako gertu izatea espero duela adierazi zuen Aramaioko alkateak; "prozesu luze samarra da. Parte hartze zabala lortu nahi dugu eta, hain zuzen, herritarrei eta udalbatzako beste bi alderdiei, EAJ eta EAri, deialdia egingo diegu datozen asteotan, ekarpenak egiteko aukera izan dezaten". Besteak beste, Diputaziotik jasotako diru sarrerek behera egin dutenez, aurrekontuak behera egingo duela aurreratu zuen Agirrek.



*Goiena Magazinea* saioan martitzeneko gonbidatua izan zen Agirre. | ENEKO AZKARATE

### Oletako auzotarrak

Plan Orokorraren behin behineko onarpena dela eta, adostasuna nahiko zabala lortu dela esan zuen. Alegazioak epea zabalik dago orain eta gehienak kasu partikularrengan eragiten dietela aurreratu zuen alkateak; "Oletako herri gunea indartzea zen gure asmoa, baina Oletakoek dagoenetan mantentzea nahi dute eta auzotarren iritzia hartu beharko dugu kontuan". Bestalde, Plan Orokorrean aurreikusitako etxeak etxeak bi kokagune nagusi aurreikusten direla azaldu zuen, Andra Mari ingurua alde batetik eta kirolgune ondoko lursaila bestetik, "lekurik lauenak horiek direlako". Kiroldegia dela eta, berritze lanak egin ahal izateko, Arabako Diputazioarengandik ezezkoa jaso dute. "Kiroldegia baino frontoia da Aramaiokoa, zaharkitua geratu dena, besteak beste irisgarritasun neurriak betetzen ez dituelako. 800.000 euroko inbertsioa egitea aurreikusten genituen landutako proiektuan eta Diputazioak diru laguntza ukatu egin digu. Proiektua mahai gainean dago eta saiatuko gara beste erakunde batzuekin aurrera eramaten".

### Zaharren egoitza

Mendixolan zabalduko duten adin txikikoendako zentroarekin bereziki kritiko azaldu zen alkatea Goiena telebistako saioan; "Gure disgustorako Eusko Jaurlaritza dabil horretan eta baserri ederra zena espetxea bilakatuko dute. Herriarendako kalte nabaria izango dena ekarri digute, proiektua bukatzear dago-eta. Ez dugu nahi herrian kartzela txikia izaterik".

Javier Uribarren Alaiak elkarteko presidenteak telebista saioan zehar egindako galderari erantzunez, zaharren egoitza beharrezkoa dela aitortu zuen Agirrek; "zerbitzu on bat litzateke. Kirolgune eta eskolaren artean lursail bat gordeta dago horretarako, baina Arabako Diputazioa eta Eusko Jaurlaritza horren beharraz ohartzea falta da oraindik. Lehenbailehen aspaldiko egitasmo horri heldu nahi genioke". Era berean, erreka ondoan bidegorria egitea lehentasunezko proiektua dela adierazi zuen alkateak, "herriaren nahia hori delako aspalditik. Ingurugiro sailarekin harremanetan gaude hori gauzatzeko".

### Itxitako errepidea

Itxitako errepidea aztergai izan zuten, nola ez, huraxe izan baita zoritxarreko albiste nagusia aurten; "itxiera gaizki egindako proiektu batetik etorri zen, AHT erokeria dela uste baitugu. Orain, errepidea atzera zabaltzeko lanak erritmo onean doaz eta horren jarraipena egiten ari gara. Hala ere, zaila ikusten dut Gabonak aurretik errepidea zabaltzea, Diputazioak agindu zuen arren".

Baserri Barri egitasmoaren gainean ere berba egin zuen alkateak *Goiena Magazinea* telebista saioan; "Orain arteko baserriaren ereduari eutsi nahi diogu egitasmo horrekin. Eredu jasangarria da, produkzio txikiak babesten dituena: ortu txikia, korta txikia, lanabes txikiak... Salmenta zuzena bultzatu nahi dugu eta horretarako kontsumo taldea sortzeko ahaleginetan ari gara".

Bestalde, Gasteizeko epaitegiak ezarritako zigorraren aurrean [zazpi urteko kargugabetzea AHTren gaineko herri inkesta egiteagatik] baikor azaldu zen Aramaioko alkatea; "hasierakoa ez da sententzia finkoa eta errekurtsoak aurrera egingo duela espero dugu, azken sententzia gure aldekoa izatea".

**"Oletako gunea indartu nahi genuen baina auzotarrak kontra azaldu dira"**

**"Zaharren egoitzaren beharraz ohartu behar dira erakundeak"**

**"Zaila ikusten dut Gabonak aurretik itxitako errepidea zabaltzea"**

## Bertxoko txapelketako finala gaur Trebiñu sagardotegian

Bertxoko txapelketako finala izango da gaur, barikua. Finala Askartzan, Trebiñu sagardotegian jokatuko da eta sei bertsolari gaztek jardungo dute lehian. Manex Agirre aramaioarrak jardungo du gai-jartzaile lanetan. Finalaren aurretik afaria izango da, 20:30ean, eta izenematea (25 euro) 675 70 79 71 telefonoan egin daiteke..

## Buruko osasunaren gaineko hitzaldia martitzenean

*Osasun mentala, nola zaindu* izenburuko hitzaldia izango da martitzenean, azaroaren 30ean, kultura etxean, 17:00etan. Gaixo mentalen eta haien senideen Asafes elkarteko kideak etorriko dira Aramaiora hitzaldia egitera. Alaiak erretiratuen elkarteak antolatutako ekitaldia da aipatutakoa.

## 'Arthur y la venganza de Maltazard' domeka arratsaldean

Haurrendako zinema emanaldia izango da domekan kultura etxean. *Arthur y la venganza de Maltazard* eskainiko dute, 17:00etan. Arthur oso pozik dago laster Minimoysen lurraldera bueltatuko delako eta berriz Selenia ikusiko duelako. Jai handi bat prestatu diote Arthurri baina arriskuak ez dira faltako.



Filmeko irudi bat. | CINETEKA

ELGETA

# Herrian ere Zero Zabor taldea osatzeko dei egin dute

Atez ateko hondakin bilketa defendatzen duen taldea Elgetan izan da

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Atez ateko bilketa defendatzen duen Gipuzkoa Zero Zabor taldeko kideak herrian izan dira asteon. Uneotan zaborren kudeaketaren inguruan mahai gainean dauden bi aukeren berri eman zuten eta Elgetan ere Zero Zabor taldea osatzeko proposamena egin zuten.

Zaborren gaia pil-pilean dago eta epe ertainean erabaki bat hartu beharko du Elgetako Udalak ere. Antzuolan martxoan hasi nahi dute atez ateko bilketa sistema. Oñatin, berriz, datozen hilabeteotan ipiniko dituzte Foru Aldundiak Gipuzkoan hondakin organikoak batzeko hedatu nahi dituen edukiontzi marroiak.

Oraingoz, Elgetara iritsiko den berrikuntza bakarra etxeko olio erabilia batzeko edukiontzia da. Eko3R enpresak ipiniko du, Mankomunitateak horrela eskatuta. "Edukiontzi bat ipiniko da Elgetan, seguruenik Berraondokoan", esan du Oxel Erostarbe alkateak. Edukiontzi hori hasiera batean plaza inguruan ipintzearen egokitasuna aztertzen ari dira asteotan Udalean. "Asmoa da urtarrilerako zerbitzu hori martxan ipintzea. Mankomunitateak zehaztuko du hori", esan du alkateak. Bien bitartean, 2009-ko zabor bilketaren gaineko datuak jakin ditugu.

**HONDAKINEN BILKETAREN DATUAK**

| BILDUTAKO GAIA | 2005 | 2006 | 2007 | 2008 | 2009 |
|---|---|---|---|---|---|
| **Papera/Kartoia** (tonatan) | 29 | 18 | 24 | 30 | 30 |
| **Beira** (tonatan) | - | - | - | - | 42 |
| **Ontzi arinak** (tonatan) | - | - | - | - | 11 |
| **Ehunkiak** (tonatan) | 9,1 | 4,4 | 3,8 | 4,7 | 4,7 |
| **Sukaldeko olioa** (litrotan) | 555 | 878 | 650 | 1.040 | 1.009 |
| **Olioa ostalarit.** (litrotan) | 620 | 630 | 1.390 | 860 | 830 |
| **Pilak** (kilogramotan) | - | - | - | - | 60 |

ITURRIA: DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

## Alkatea Goiena Telebistan izango da martitzenean

L.Z. | ELGETA

Elgetako kontuak izango dira protagonista eguaztenean, hilak 30, Goiena Telebistaren *Magazinea* saioan. Oxel Erostarbe alkatea elkarrizketatuko dute Arritxu Barruso eta Eneko Azkarate kazetariek 19:45ean hasita zuzenean egingo den saioan. Herrian hartutako azken erabakiak, bultzatutako azken proiektuak eta oraindik ere egiteko daudenak izango dituzte hizketagai, besteak beste. Alkateari zure galdera egiteko deitu 943 25 05 05 telefono zenbakira, idatzi *telebista@goiena.com* posta elektroniko helbidera edo erabili Skype (*Goiena Telebista*) edo Livestream (*livestream.com/goienatv*).

## Arrandegia dugu atzera ere, Amagoia Irazabalek zabalduta, eta martitzenetik zapatura irekiko du

Baserritarrek, berriz, zuzeneko salmenta bultzatu gura dute

L.Z. | ELGETA

Bariku iluntzean, Salbador kaletik zetorren sardina usainak deituta jendea batu zen arrandegi berriaren atarian. Hala, sardina erreak eskaini zituen Amagoia Irazabalek arrandegiaren inaugurazioan. Arrain salmenta martitzenean hasi zuen. 04:00etarako MerkaBilbaon zen elgetarra; izan ere, bertatik ekarritako jeneroa salduko du arrandegian. Martitzenetik zapatura bitartean zabalduko du negozioa: 09:00etatik 13:00etara egunero eta eguen eta barikuetan 17:30etik 20:00etara ere bai.



Amagoia Irazabal, martitzenean, arrandegian lanean. | L.Z.

**Barazkiak, lurretik mahaira**

Bada bestelako berrikuntzarik herrian; izan ere, baserritar eta ortuzain taldetxoa sortu da, euren produkzioa Elgetako etxeetara banatzeko prest. Orain, herriko produktu horiek erosteko dagoen interesa neurtu gura du hasiera baten proiektu hori koordinatuko duen Udalak. Interesa dutenek udaletxean eman behar dute izena abenduaren 3rako.

## Maala kalean autorik ez sartzeko eskatu dute

L.Z. | ELGETA

Maala Guraso Elkarteak Udalera jo du eskolara jaisten den kalean oraindik ere autoak sartzen eta aparkatzen direla azalduz. "Kale hori oinezkoen gune izendatu zuen Udalak 2010eko uztailaren 13an, eta hala jasota dago Oinezkoen Kaleetarako Arautegian", gogorarazten dute. "Ondorioz, Maala kalean ezin da autorik sartu, ezta aparkatu ere".

Arautegi hori eztabaidatzeko foroetan erabaki zen haurren segurtasunerako Maala kalea eta herriko beste zenbait zona autorik gabeko gune izan daitezen. Maala kalearen kasua herritarrengandik irtendako proposamena izan zen. "Udalak ez zeukan hori horrela aurreikusita eta proposamen horretan bat etorri ziren parte-hartzaile guztiak", adierazi dute. Hala, guraso elkarteak eskolako gurasoei zein langileei eskatzen die Maala kalean autorik gehiago ez sartzeko.

**Seinalea ipiniko dute**

Udaletik berretsi egin digute Maala kalean debekatuta dagoela autoak sartzea zein aparkatzea. Seinale bat ipintzekotan direla ere azaldu dute.

## OHARRAK

**BISITA GIDATUA**

Domekan, hilak 28, bisita gidatua egingo dute ibilbide tematikora. Gaztelaniaz egingo dute bisita hori eta taldea 10:00etan abiatuko da Espaloiko harreragunetik. Hiru bat orduko saioa izango da. Interesatuta egonez gero, Mankomunitateak eskatzen du aurrez izena emateko, gehienez 30 pertsona onartuko dira-eta. Hauxe da telefono zenbakia 943 79 64 63.

**HERRIXA DANTZAN**

Azaroko azken domeka dugu honakoa eta dantzan egitea gustuko dutenek hitzordua dute Elgetan. Beste dantza saio bat gidatuko du Patxi Monterok Espaloia Kafe Antzokian. 19:00etan hasi eta ordu eta erdiko saioa egingo dute. Betiko moduan, euskal dantza tradizionalak eta Europa osoko dantzak egiteko eta ikasteko aukera egongo da.

**TUTOREA KZGUNEAN**

Aitor Madrid tutorea herriko KZgunean izango da astelehenean, hilaren 29an, 16:00etatik 20:00etara. Ohikoa den moduan, hainbat ikastaro egiteko aukera egongo da. Jakin badakigu, halaber, abenduko bisitak noiz egingo dituen: abenduaren 13an eta 27an izango da Elgetan; kasu horretan, goizeko ordutegiarekin, 09:00etatik 13:00etara.

**'ELGETA 2020' LAN-BILERA**

Herritarrekin hirugarren eta azken lan-bilera egingo dute eguenean, abenduak 2. Aurreko bi bileretan aipatutako gaien eta jasotako ondorioen errepasoa egingo dute eta lehentasunak finkatzen saiatuko dira. Hitzordua 19:00etan egin dute kultura etxean. Saio irekiak dira eta herritar guztiak daude bertan parte hartzera gonbidatuta.

LEINTZ GATZAGA

# Elurra datorrenerako gertaketa lanak

Palarik ez dute erabiliko bost edo sei zentimetro elur egon arte bideetan

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Elur giroaren berri ematen duten eguraldi iragarpenak iritsi dira astean Gatzagako Udalera, eta elur hori iritsi aurretik gertaketa lanetan hastea erabaki dute. Hainbat kontutarako erabiltzen duten traktoreari elurra kentzeko pala jartzekotan ziren atzo goizean eta Udalak zenbat gatz daukan gordeta ere begiratu behar zuten: "Ez dakit iaz neguan zenbat gastatu genuen, ezta zenbat geratu zitzaigun ere", esan du alkateak.

**Datorren astean okerragoa**

Iragarpenek zioten 600 metrora zentimetro pare bat egingo zuela elurra eguenetik egubakoitzera bitarteko gauean, eta Eusebio Villarrek argitu du kantitate horrekin ezin dutela erabili palarik: "Traktoreak duen palarekin elurra kendu ahal izateko, gutxienez bost edo sei zentimetro behar dira; bestela, bideak hondatu besterik ez du egiten". Herriko kaleak garbitzeko erabili ohi dute; baita baserrietara doazen bideak zabaltzeko ere: "Baserritarrek badakite noiz dagoen pala hori erabili beharra euren bideetan, eta halakoetan deitu egiten digute". Gatza, ostera, izotza urtzeko erabiltzen dute: "Batez ere, baserri inguruetako izotzak arazorik ez sortzeko; kalean gutxiago erabiltzen dugu", dio.

Datorren asterako, ostera, eguraldi okerragoaren berri eman dutela jakinarazi du: "Eguaztena, abenduak 1, iragarri dute egunik okerrena, baina zehaztasun gehiagorik oraindik ez dute bidali".

## Osoko bilkura egingo du udalbatzak eguaztenean

Abenduaren 1ean, eguaztena, ohiko osoko bilkura egingo du udalbatzak (19:00), hainbat gai eztabaidatzeko.

Bestalde, abenduan Rafa Uribarren Aldundiko Landa Ingurunearen Garapenerako diputatuaren bisita izango dute herrian. Data oraindik zehaztu barik daukate.

# Mondra haginka egitera eta Bergara kanpoan behingoz puntuak batzera

Arrasateko eta Bergarako futbol taldeek derbia jokatuko dute zapatuan Mojategin (16:30); entrenatzaileek kontrarioen gainean egin dute berba

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Badator ligako hirugarren derbia: Mondra-Bergara. Aurreko bi derbietan, Aretxabaletak 1-0 hartu zuen mendean Bergara eta Mondrak 3-0 irabazi zion Aloñari. Eta derbi horri begira, Iban Rodriguezek eta Oskar Maiztegik, entrenatzaileek, euren taldeak zelan dauden eta kontrarioa zelan ikusten duten azaldu diote GOIENAri.

**"Haginka egitera"**

Mondrak jokalari gutxirekin jarraitzen du: "Espero dugu bi aste barru hainbat jokalari errekuperatzea, tartean Markel Crespo, Xabi Pavon eta Imanol Arantzabal, baina oraingoz, arazoekin jarraitzen dugu, bai", adierazi du Iban Rodriguezek.

Eta egoera horretan egonda ere, Mondra seigarren dago, hirugarrenarekin berdinduta: "Baina horrek erantzun erraza du, jokatzeko moduan dauden jokalariak sekulako lana egiten dabiltzalako eta konpromiso handia erakusten dabiltzalako. Jokalari batek baino gehiagok atsedena behar du, lesio txikietatik errekuperatzeko, baina zelaian jarraitzeko gertu daudela adierazi digute".

Biharko derbia dela eta: "Bergara gustatzen zait talde moduan, gazte mailan zituzten jokalari asko ezagutzen ditut eta kalitate ona dute. Urtea lasai amaituko dute, baina gu bihar haginka egitera irtengo gara, goialdean jarraitzea delako asmoa, hor gaude gustura".

**Kanpoko puntuen bila**

Horixe nahi du Bergarak, kanpoan behingoz irabaztea: "Eta Mojategi plaza ona da horretarako", adierazi du Oskar Maiztegik. "Etxean sei partidutatik lau irabazi ditugu, ez dago txarto, baina kanpoan jokatu ditugun bost partiduak galdu egin ditugu, eta bada garaia jarraian bi emaitza positibo lortzeko, horrek konfiantza emango liguke-eta. Zorionez, guk ez dugu jokalari faltarik, denak daude jokatzeko gertu.

Mondraren gainean galdetuta, Bergarakoa garbia izan da: "Egia esateko, sorpresa hartu dut Mondra aurrealdean ikusita. Denboraldi-aurrean ikusitakoaren ondotik, ez nuen uste horren ondo ibiliko zirenik, baina, noski, denboraldi-aurrean ikusitakoarekin ezin zaitezke askorik fidatu. Uste nuen Aloña egongo zela aurretik".

**Aloña Mendik ere etxean**

Bosgarren postuan dagoen Ordiziaren bisita izango du erreakzionatzen hasi den Aloña Mendik domekan (16:30). Etxetik kanpora, berriz, Aretxabaleta aurrealdeko postuetan, hirugarren dagoen Anaitasunaren zelaira, Azkoitira joango da bihar (15:30).

ESANAK

**"Aurrealdean jarraitu nahi dugu, haginka egitera irtengo gara"**

IBAN RODRIGUEZ | MONDRAKO ENTRENATZAILEA

**"Kanpoan behingoz irabazi egin behar dugu; Mojategi plaza ona da"**

OSKAR MAIZTEGI | BERGARAKO ENTRENATZAILEA



Mondrako eta Bergarako atzelari Merkader eta Nafarrete, iaz. | GOIENKARIA

## Aikido elkarteak borroka arteen gala egingo du zapatuan

**X.U.** | ARRASATE

Arrasateko Aikido Elkarteak 10. borroka arteen gala antolatu du biharko, zapatua, Uarkapen (12:00).

Eta gala horrek bi helburu izango ditu: batetik, modalitate askotariko borroka arteak herritarrei erakutsiko dizkiete; eta bestetik, Pakistango uholdeetan kaltetutakoei laguntzeko dirua batuko dute (sarrera 2 euro). Besteak beste, karate, aikido, tai txi, shurinjikempo eta shinkyokushinkai borroka arteak egiten dituzten taldeak izango dira Uarkapen.

## Donostiako 33. maratoia egingo dute domekan

**X.U.** | BERGARA

Antolatzaileek 3.200 korrikalari batuko dituzte irteera puntuan, eta tartean izango dira debagoiendar asko. Iaz ibarreko 97 ordezkari iritsi ziren helmugara eta horien artean Asier Urdanpilleta (2.37.22) eta Lorea Biain (3.36.55) oñatiarrak izan ziren azkarrenak.

Domekara begira, iazko maratoian –eta aurtengo Behobia-Donostia lasterketan– protagonista izan zen Rafa Iglesiasek adierazi du errekorra ontzera datorrela (2.09.34). Gainera, aurten lehenengoz ibilbidea itxita egongo da autoen zirkulaziorako.

## MUk Urdaneta eta Aloñak Easo izango dituzte aurrean

**X.U.** | BERGARA

Joan den asteburuan etxetik kanporako konpromisoak ondo beteta –bai Sustrai Aloñak eta bai MUk irabazi egin zuten–, oraingo astean, biok etxean jokatuko dute.

Arrasatekoek Urdanetaren bisita izango dute Iturripen, zapatuan (18:00). Eta ordu berean jokatuko du Sustrai Aloña Mendik lider dagoen Easo Pastas Arruabarrena taldearen kontra. Ikusteko dago orain arteko talde onena gauza ote den etxean aparteko sendotasuna erakusten duen Aloñari irabazteko.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

**LEHEN MAILA**
Sporting de Gijon-Reala
Domeka. 17:00. El Molinon.

**GAZTEEN LIGA NAZIONALA**
Aretxabaleta-Romo
Domeka. 16:30. Ibarra.

**GAZTEEN EUSKAL LIGA**
Bergara-Amorebieta
Zapatua. 17:30. Ipintza.

**OHOREZKO ERREGIONALA**
Mondra-Bergara
Zapatua. 16:30. Mojategi.
Anaitasuna-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Azkoitia.
Anaitasuna-Aretxabaleta
Zapatua. 15:30. Txerloia.

**ERREGIONAL PREFERENTEA**
Aretxabaleta B-Amaikak
Zapatua. 15:30. Mintxeta.
Mutriku-Mondra B
Zapatua. 16:00. Mutriku.
Antzuola-Zestoa
Zapatua. 15:45. Estala.

**LEHEN ERREGIONALA**
Aretxabaleta C-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ibarra.
Bergara B-Soraluze
Domeka. 17:00. Ipintza.

**OHOREZKO GAZTEAK**
Amaikak Bat-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Errotazar.
Añorga-Mondra
Zapatua. 16:00. Rezola.

**LEHEN MAILAKO GAZTEAK**
Arizmendi UDA B-Eibartarrak
Zapatua. 15:30. Almen.
Urki-Aretxabaleta B
Zapatua. 13:30. Unbe.
Bergara B-Arizmendi
Zapatua. 15:30. Unbe.

**OHOREZKO KADETEAK**
Bergara-Aretx.Arizmendi
Domeka. 11:30. Ipintza.

**LEHEN MAILAKO KADETEAK**
Aretxabaleta B-Bergara B
Domeka. 12:00. Ibarra .
Arizmendi UDA
Atsedena.
Aloña Mendi B-Aloña Mendi
Zapatua. 11:15. Azkoagain.
Arrasate-Ilintxa
Zapatua. 18:30. Mojategi.

**OHOREZKO INFANTILAK**
Euskalduna-Aretx.Arizmendi
Zapatua. 10:45. Andoain.
Lengokoak-Bergara
Zapatua. 11:30. Donostia.

**INFAN. OHOREZKO KOPA**
Arrasate-Elgoibar
Zapatua. 12:45. Mojategi.
Orioko-Aloña Mendi
Zapatua. 16:00. Mendibeltz..

**EMAKUMEZKOAK**
Mutriku-Arizmendi
Zapatua. 18:15. Mutriku.
Anaitasuna-Mondra
Zapatua. 11:15. Azkoitia.

**EMAKUMEZKOAK, GAZTEAK**
Aloña Mendi-Ilintxa
Zapatua. 16:30. Azkoagain.

Arizmendi-Eibar
Zapatua. 11:00. Almen.
Bergara-Lazkao
Zapatua. 19:30. Ipintza.

**EMAKUMEZKOAK, F11**
Eibar-Mondra
Domeka. 17:30. Unbe.
Aloña Mendi-Bergara
Domeka. 10:00. Azkoagain.
Amaikak Bat-Arizmendi
Domeka. 11:00. Deba.

**ARETO FUTBOLA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Eskoriatza-Inter Eder Kafete.
Domeka. 17:00. Intxaurtxueta.

**GIPUZKOAKO BIGARREN M.**
Aretxabaleta-Gamon Naturista
Egubakoitza. 20:45. Almen.

**GIPUZKOAKO HIRU. MAILA**
Pub Elorri-Aloña Mendi
Egubakoitza. 22:00. Tolosa.

**GAZTEAK**
Aloña Mendi-Azpeitiko
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**ESKUBALOIA**

**EUSKADIKO TXAPELKETA**
Ford Mugarri Arra.-Hondarribia
Zapatua. 16:30. Musakola.
Sucesores Agl.-Soraluce BKE
Zapatua. 18:00. Gasteiz.

**PREFERENTEA, EMAKUME.**
Asador Basusta-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Zumaia.

**LEHEN TERRITORIALA**
Eibarko Haritza-Arrasate
Zapatua. 17:00. Eibar

**BIGARREN TERRITORIALA**
Urola-Izarraitz Aloña
Domeka. 11:15. Zumarraga.

**GAZTEAK, GIZONEZKOAK**
Pulpo-Bergara
Zapatua. 12:45. Zumaia.
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 12:45. Ordizia.

**GAZTEAK, EMAKUMEZKOAK**
Bartolo jat.-Bergara Soraluce
Domeka. 10:30. Zarautz.
Aloña Mendi-Egia Bera Bera
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**KADETEAK, GIZONEZKOAK**
Amenabar-Chapime Arrasate
Zapatua. 10:30. Zarautz.
Egia-Soraluce Bergara
Domeka. 12:30. Donostia.
Amenabar-Berezao Aloña M.
Zapatua. 16:00. Zarautz.

**KADETEAK, EMAKUMEZKO.**
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Majori.
Aiala-Aloña Mendi
Domeka. 10:00. Zarautz

**SASKIBALOIA**

**LEHEN NAZIONAL MAILA**
Sustrai Aloña Mendi-Easo Pas.
Zapatua. 18:00. Zubikoa.
Mondragon Unib.-Santurtzi
Zapatua. 18:30. Azpeitia..

**MAILA AUTONOMIKOA**
MU A-Santurtzi
Domeka. 18:00. Iturripe.

**SENIOR GIZONEZKOAK**
MU-Easo Berri
Zapatua. 16:00. Musakola.

**SENIOR GIZONEZK. 2. MAILA**
Soraluce BKE-Leihoak Zast
Domeka. 17:00. Labegaraiet.
Errotaundi ISB-Sustrai Aloña
Domeka. 17:00. Azpeitia.

**SENIOR EMAKUMEZKOAK**
STL Bilintx-Eskoriatza Kirol Elk.
Zapatua. 16:00. Donostia.

**GAZTE GIZONEZK. PARTAID.**
MU B-BKL
Domeka. 11:45. Musakola.
Aloña Mendi-Take Tolosa
Zapatua. 11:45. Zubikoa.
Soraluce BKE (Atsedena)

**GAZTE EMAKUMEZK. PARTA.**
Andraitz-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Legazpia.

**KADETE GIZONEZK. ERREN.**
MU A-Easo 96
Zapatua. 12:00. Musakola.

**KADETE GIZONEZK. PARTAI.**
Colchones Ats.-Aloña Mendi
Zapatua. 09:30. Ordizia.
MU B-Soraluce Bergara
Zapatua. 10:00. Musakola.

**KAD. EMAKUMEZKOAK, ER.**
Eskoriatza-Añorga A
Domeka. 11:00. Intxaurtxueta.

**KAD. EMAK. PARTAIDETZA**
Soraluce Berg.-Goierri
Domeka. 12:30. Labegaraiet.
Anbolo-Arizmendi Eskoriatza
Zapatua. 13:00. Elgoibar..

**INFANTIL GIZONEZ. ERREND.**
Hotel Castillo-LEK Ointxe
Zapatua. 11:15. Ordizia.

**INFANTIL GIZON. PARTAIDE.**
LEK Arrasate-Goierribus
Zapatua. 10:30. Musakola.
Antoniano Zast-LEK
Zapatua. 10:45. Zarautz.
Servimasa BKE-Aloña Mendi
Domeka. 11:15. Labegaraieta.
Aloña Mendi-Lizardi
Domeka. 09:00. Zubikoa.

**ERRUGBIA**

**SENIORRAK, EUSKADIKO T.**
Kanpanzar ART-Elorrio
Zapatua. 18:00. Mojategi.

**INFANTILAK**
Arrasate/Hernani-Ordizia
Zapatua. 10:30. Mojategi .

**PILOTA**

**GIPUZKOAKO TXAPELKETA**
**Bergarako pilotalekuan:**
Egubakoitza. 19:15ean hasita:
Bergara5-Arrasate2
Bergara-Aurrera Saiaz3
Bergara-Igeldo
**Antzuolako pilotalekuan:**
Egubakoitza. 20:15ean hasita:
Olalde-Usurbil .

**BORROKA ARTEA**

**AIKIDO ELKARTEAREN GALA**
**Uarkape pilotalekuan:**
Zapatua. 12:00etan hasita:



GOIENA

**ARETO FUTBOLA** Euskadiko Txapelketan lehian dabilen Eskoriatzak Inter Eder taldearen bisita izango du domeka arratsaldean Intxaurtxuetan (17.00).


BRICO DEPÔT
BRIKOLAJEA ETA ERAIKUNTZA
Komuneko altzariak PREZIO BAXUETAN EGUNERO
"Cadiz" ALTZARIA
Zuria. Marmolezko entzimera. Helduleku metalikoak. Ispilua eta kornisa halogenoa barne. Zabalera 80 x sakonera 55 cm.
(504977/3083 /3189/2738)
125€
BERRIA
"Cosmos" ALTZARIA
Zuria. Alboetan intxaurrondo koloreko akabera. Ateak eta edukiontzi-kaxoia helduleku metalikoekin. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 60 x sakonera 46 cm.
(504981/4218 /4234)
179€
BERRIA
"Artic" ALTZARIA
Intxaurrondo koloreko akabera. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 39 cm.
(504985/86/87)
SAKONERA TXIKIA
199€
BERRIA
"Parma" ALTZARIA
Intxaurrondo koloreko akabera. Gris antrazita koloreko kaxoiak eta helduleku metalikoak. Ispilua barne. Zabalera 80 x sakonera 46 cm.
(504994/95)
KAXOIAK ITXITURA PROGRESIBOAREKIN
199€
Txorrota ez dago barne.
BERRIA
"Snow" ALTZARIA
Zuria. Konpas hidraulikodun ate eraisgarria eta kaxoiak. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 46 cm.
(504988/4225/4235)
225€
"Quebec" ALTZARIA
Zuria. Konpas hidraulikodun ate eraisgarria eta kaxoiak. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 46 cm.
(504243/26/35)
KAXOIAK ITXITURA PROGRESIBOAREKIN
269€
BERRIA
"Carrera" ALTZARIA
Intxaurrondo koloreko akabera. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 39 cm.
(504992/87/93)
SAKONERA TXIKIA
285€
BERRIA
"Luna" ALTZARIA
Zuria. Gaineko kaxoia sifoi-babesarekin. Helduleku metalikoak. Ispilua eta konketa barne. Zabalera 80 x sakonera 46 cm.
(504990/5003/4991)
KAXOIAK ITXITURA PROGRESIBOAREKIN
299€
Gure prezio guztiek BEZa barne dute eta baliozkoak dira azaroaren 26tik abenduaren 2ra arte.
BRICO DEPÔT DENDAK ESTATUAN: ALCALÁ DE HENARES • ALQUERÍAS N. P. • CORVERA DE ASTURIAS • CREVILLENT
GETAFE • HUÉRCAL DE ALMERÍA • JEREZ DE LA FRONTERA • LAGUNA DE DUERO • OLÍAS DEL REY • PARETS DEL VALLÈS • PULIANAS
QUART DE POBLET • SAN ANTONIO DE BENAGÉBER • VALDELAFUENTE • VIANA • VITORIA • ZARAGOZA
BRICO DEPÔT
GASTEIZ
GORBEIA MERKATARITZA-GUNEA
A-622 errepidea, 9. km
Etxabarri Dibina. Zigoitia
TEL. 945 46 05 10 FAXA 945 46 05 27
Astelehenetik larunbatera 9:00etatik 21:00etara etenik gabe
www.bricodepot.es
A KINGFISHER GROUP COMPANY
ETXABARRI DIBINA
Bilbora
AP-1
N-240
N-622
N-624
E-80
E-5
Iruñera
GASTEIZ
N-102
GORBEIA merkataritza-gunea
EIBARRERA JOATEKO AUTOBIDEA
BILBORA
GASTEIZERA
GASTEIZKO FORONDAKO AIREPORTURA JOATEKO AUTOBIA

# Jatetxe Gida



## Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

**Eskaintza**
- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak
- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

**Astelehenetan itxita**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56
***www.etxeaundi.com***

**Eskaintza**
- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

**Egunero zabalik**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55
***www.restaurantelasa.com***

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak asteartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

**Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren *Más Gastronomía 2009* saria.**



## Unzueta sagardotegia

Zabola z/g /ARAMAIO
945 44 50 95

**Eskaintza**
- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

**Egunero zabalik**



## Uxarte

Udala auzoa 12 / ARRASATE
943 79 12 50 / 943 77 15 62

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Ezkontzak
- Bataio eta jaunartzeak
- Logela guztiak bainugelarekin
- Igerileku irekia

**Eguazten arratsaldeetan itxita**

KULTURA



San Lorentzoko probako irudia: txirrindularia Madura kaletik pasatzen. Ez dakite zein urtetakoa den argazkia. | TORIBIO JAUREGI

### Argazki kamerarekin

Toribio Jauregi 1896an jaio zen, Antzuolako Antzeta baserrian. Ez zen argazkilari profesionala, baina erretratuak ateratzea gustuko zuen. Hori horrela, Bergarako Barrenkalen zeukan drogerian atondu zuen argazki estudioa eta laborategia. Herrian gertatzen zen guztiaren partaide zen. Horri esker, ez zen ezer geratzen haren objektiboak harrapatu gabe. Baina, gehienbat, pilotari, ziklismoari eta kirolari buruzko argazkiak egin zituen. 30 urte baino gehiagoko lanaren emaitza da. Erretratu asko egin zituen, 1936. urtean hasi eta 1969. urtera arte. Egun, Toribio Jauregiren argazki bilduma Bergarako Udal Artxiboaren esku dago.

# Ziklismoaren bilakaera Toribio Jauregiren eskutik

- Argazkilari antzuolarrak egindako erretratuekin erakusketa egin dute
- Bergarako Aroztegin egongo dira ikusgai gaurtik abenduaren 12ra

MIREIA BIKUÑA | BERGARA

*Txirrindulari lasterketak, irudi-tan* delako erakusketa zabalduko dute gaur Bergarako Aroztegi aretoan –inaugurazio ekitaldia egingo dute 18:30ean–. Toribio Jauregik (Antzuola, 1896-1969) egindako erretratuak izango dira protagonista. Argazkiak eta txirrindularitza. Kirol horren gainean egindako 46 irudi erakutsiko dituzte-eta abenduaren 12ra arte: martitzenetik egubakoitzera 18:00etatik 20:30era, zapatuetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era eta domeketan 12:00etatik 14:00etara arte. Astelehenetan itxita egongo da.

Argazkilari antzuolarrak egindako erretratuetan, ziklismoaren ikuspegitik, Bergarak izan duen bilakaera ikusi ahalko da. "Argazkien bidez makina bat aldaketa antzematen dira; besteak beste, bizikletak izan duen aldaketa, txirrindularien janzkeraren bilakaera eta publizitatea egiteko modua. Era berean, garbi geratzen da, lehen eta orain, lanerako eta lasterketak antolatzeko elkarte baten beharra dagoela. Erakusketa pertsona horiei guztiei eskerrak emateko modua da", esan digute udal artxibokoek.

Bildumako erretratu zaharrena 1925. urtekoa da eta berrienak 1960ko hamarkadakoak. Guztira, ziklismoaren gaineko 998 erretratu egin zituen Jauregik.

**DATUA**

**46**

ARGAZKI

Hori da gaur zabalduko duten erakusketan jarriko duten erretratu kopurua. Ziklismoa da protagonista.

**Protagonista asko**

Erakusketan lau motatako argazkiak ikus daitezke: batzuk txirrindulari probetako irteeretako erretratuak dira; beste batzuk, ibilbideko puntu zehatz batzuetan egindakoak; beste asko ziklistak helmugara heltzeko unean egindakoak dira; eta azkenak, sari banaketa ekitaldietakoak. Horietan agertzen dira, besteak beste, Jesus Arantzabal bergararra, Jesus Loroño, Honorio Agirregabiria eta Txomin Perurena. Herritarrak ere agertzen dira erretratuotan.

Bergaran antolatu zen lehen proba 1932. urtekoa da. Hiru urte geroago Or-Konpon taldeak gaur egun oraindik egiten den Mendekoste saria jarri zuen abian. Baina, udal agirietan jasota dagoen moduan, 1925. urtean Udalak laguntza eman zien Union Deportiva Eibarresa eta Tolosako Peñar Erbyari txirrindulari probak antolatzeko.

**Uzarragako lehen igoera**

Toribio Jauregik egindako erretratuetan, Bergaran eta inguruko herrietan egindako amateur mailako lasterketa gehienen irudiak ikus daitezke: Uzarragara egindako lehen igoera, San Martin jaietako eta Pazkoetako probak, San Antonio, San Lorentzo eta Labegaraieta auzoetan egindakoak, eta baita Algodonera San Antonio sari nagusikoak ere ikus daitezke erakusketan. Elgetan eta Oñatin egindako proba batzuetako irudiak ere jaso dituzte.



Erakusketaren kartela | TORIBIO JAUREGI

**Ziklo-krosa ere bai**

Erretratuez gain, ziklo-krosaren gaineko ikus-entzunezkoa ere egongo da ikusgai. "Muntaia berezia egin dugu, eta jarraian erakutsiko ditugu ziklo-krosari buruzko 200 irudi. Bata bestearen atzetik jarriko ditugu, zehaztuko dugu argazki bakoitza ze probatan eta non egindakoa den", esan digute Udal Artxiboko arduradunek. Besteak beste, Bergaran 1957. eta 1963. urteetan jokatutako Espainiako txapelketetan egindako erretratuak.

Argazki bakoitzaren gaineko informazioa bilatzeko –urtea, eguna, irabazlea, bitxikeriak…– *La Voz de España* egunkaria erabili dute. Orduko aldizkarietako zatiak ipiniko dituzte erakusketan. Gainera, Sociedad Ciclista Bilbainak utzitako bi garaikur (1932. eta 1932. urteetako Mendekoste sarietakoak), Eibarko Industria Museoak utzitako bizikleta (1950. urtekoa) eta orduko bizikleta batzuen zatiak erakutsiko dituzte. Elementu guztiak, ziklismoak izan duen bilakaera erakusteko asmoz.

1952. urtean Bergara Kirol Elkartea sortu zen. 1961ean Club Ciclista Bergares sortu zuten, eta egun Lokatzak antolatzen du ziklismoa Bergaran.

# Debagoieneko **GREMIOAK**



## AROZTEGIAK

**AZKARATE AROZTEGIA**
Bergara
• Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaileak, sukaldeak
• K-21
Telleria 19 B02-B03
T: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
*www.goiena.net/blogak/azkarate*

## ELEKTRIZITATEA

**AITZORROTZ ELEKTRONIKA**
Aretxabaleta
• Telebista, audio eta bideoa
Salmenta eta konponketa
• Instalazio elektrikoak
• Atezain automatikoak
• Antena kolektiboak
Otalora 14
T: 943 79 16 10
F: 943 79 16 10

**ARANZABAL KOOP. E.**
Arrasate
• Instalazio elektrikoak
• Antena kolektiboak
Zerkaosteta 15
T: 943 79 68 21 / 670 57 53 83
F: 943 79 68 21

## ERAIKUNTZAK

**ARRASATE ERAIKUNTZAK SL**
Arrasate
Meatzerreka auzoa
T: 943 77 12 26 / 659 67 17 59
*e.arrasate@euskalnet.net*

**FRIXI ERAIKUNTZAK**
Eskoriatza
• Hormigoizko estrukturak eta urbanizazioak
• Kontratak
• Enpresen mantentze-lanak
Intxartxueta 5
T: 943 71 55 15 / 629 51 39 22
F: 943 71 55 15

## DEKORAZIOA

**J. ORTIZ**
Bergara
• Mota guztietako pladur lanak
• Igeltsu-lanen dekorazioa
• Sabai eta apaletan espezialistak
• Isolamendu akustikoa
• Gremioen koordinazioa
Alkabieta kalea z/g.
T: 943 76 03 51 / 663 90 93 18

## ITURGINTZA

**EGIA ITURGINTZA**
Arrasate
Gipuzkoa etorbidea 39, behea
T: 943 77 01 85

**OYANGUREN ITURGINTZA**
Eskoriatza
• Iturgintza eta gasa
• Berogailuak eta petrolio-produktuak
• Klimatizazioa
Aranburuzabala 15
T: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
*f.oyanguren@ctv.es*

**URKO MANTENIMIENTO SL**
Aretxabaleta
• Instalazioen mantentze-lan guztiak
• Berokuntza eta gasa
• Aire girotua eta haizeztatzea
Basabe industrialdea B-3
T: 943 77 19 88
F: 943 79 59 97

**VALES ITURGINTZA**
Aretxabaleta
• Hargintza lanak
• Bainugelako altzariak
• Berogailuak
• Erretenak ipini eta garbitzea
Santa Kurtz 7, 3. ezk.
Tel.: 620 17 80 46

## LEIHOAK

**ARGI-PLASTIK**
Arrasate
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko leihoak
• Poliuretanozko leihoak
Zigarrola 1- 8 pab.
Tel: 943 77 11 30 / 943 79 62 18
F: 943 77 11 30 / 943 79 62 18

**ION LEIHOAK**
Arrasate
• Metal aroztegia, PVC eta aroztegia
Debagoiena Industrialdea 11. pabilioia
T: 943 79 11 35
F: 943 77 31 20

**YOSU THERMIK**
Arrasate
• Lehio eta ate isolatzaileak
• PVC leihoak
• Aluminio termikoko lehioak
• Aroztegi mistoa (aluminio-egurra)
Kataide poligonoa 4 Pab.
Tel: 943 77 01 57
F: 943 77 03 21

## LOREZAINTZA

**MAKAI KOOP. ELKARTEA**
Aretxabaleta
• Barruko zein kanpoko lorezaintza
• Ureztatzeko sistemak
• Loreontzi-euskarriak eta balkonerak
Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
F: 943 79 78 45

## MARGOAK

**APAIN MARGO ETA APAINKETA**
Arrasate
• Pintura orokorrean
• Pareztatzeak
• Errotulazioa
Maitena 3-1.
Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

# Azken-aurreko emanaldian pop, rock eta folk doinuak Espaloiko agertokian

## Xarma, Deabrutu, Seafóid eta Scam taldeek egingo dute kontzertua gaur, 22:30ean

**ARANTZAZU EZKIBEL** | BERGARA

Danbakako azken-aurreko kontzertua izango da gaurkoa –abenduaren 17an izango da azken emanaldia–. Ondarroako Xarma, Aramaioko Deabrutu, Eibarko Seafóid eta Aretxabaletako Scam taldeak igoko dira Espaloiko taula gainera. Helburu bera izango dute: urtarrilaren 14an jokatuko den finalerako txartela.

Ohikoa den moduan, 22:30ean hasiko dira kontzertuak. Sarrerak salgai daude 5 euroren truke; eta Gaztekutxan 3 euroren truke.

**Estilo guztiak taula gainean**

Ondarroatik etorriko da Xarma taldea. Euskarazko rocka ekarriko du 2007an sortutako taldeak. Ondoren, Aramaioko Iñaki Urizar igoko da taula gainera. Bateria-jotzailea da Urizar; eta hori da, hain zuzen, eskainiko duena: muturreko bateria saioa.

Eibarko Seafóid 2009an sortu zen taldea da. Folk, pop eta rock doinuak ekarriko dituzte eibartarrek. Ingelesez abesten dute Iñaki, Jorge, Victor, Pau eta Johnnyk. 2004an Aretxabaletan sortutako Scam taldea igoko da azkeneko taula gainera. Mikel, Imanol, Paulo eta Ander dira taldeko kideak, eta rock musika egiten dute.

**Zozketa egingo dute**

Hirugarren eta laugarren taldeen emanaldien artean Danbakako materialaren zozketa egingo dute: kamisetak eta CDak zozketatuko dituzte. Kontzertura doazenek sarrerako kutxatxoan euren datuak sartu beharko dituzte zozketan parte hartzeko.

**KONTZERTUA**

**Noiz:** Gaur, egubakoitza. 22:30ean.
**Non:** Elgetako Espaloian.
**Sarrera:** 5 euro; Gaztekutxa, 3 euro.



XARMA

### **Xarma** | Ondarroa

Josuah Froufe eta Christian Martin Berrizkoak dira eta Itsaso eta Jon Kirru, Donostia eta Ondarroakoak. Jon Kirru eta Itsaso 2007an elkartu ziren eta beste biak 2008an sartu ziren taldean. 2008ko udazkenean Bilbovision lehiaketan hirugarren saria irabazi zuten. Orduz geroztik, hainbat lekutan jo dute. *Amaraunak* diskoa atera zuten 2009an; rock eta pop ukituko 12 abestiz osatutako lana da. Gai intimistak landu, eta kritika sozial eta politiko zorrotza egiten dute abestietan.



DEABRUTU

### **Deabrutu** | Aramaio

Muturreko bateria saioak eskaintzen ditu Deabrutu taldeak. Iñaki Urizar da taldekide bakarra. 22 urterekin hasi zen bateria jotzen; ordutik hona, hainbat saiakera egin ditu musika talderen bat osatzeko. Lehenengo, Aramaioko lagunekin Sakre taldea sortu zuten. Gero, Bergaran egon zen beste talde batekin, baina beste hark ere ez zuen aurrera egin. Azkenik, bateria bakarrik jotzea erabaki zuen; hala, hori da Danbaka musika lehiaketan eskainiko duena: muturreko bateria saioak.



SEAFOID

### **Seafóid** | Eibar

Seafóid talde eibartarra 2009ko udazkenean sortu zuten. Dagoeneko desagertuta dagoen Flipin Folk taldeko lau kidek –Iñaki, Jorge, Victor eta Pau– eta Johnny Kinnairo irlandarrak osatzen dute taldea. Berehala konturatu ziren hartu-eman ona zutela. Folk, pop eta rock doinuak antzeman daitezke Seafóid taldearen abestietan. Ingelesez abesten dute eibartarrek. Adierazi dute *seafóid* berbak *eromena* esan gura duela gaelikoz.



SCAM

### **Scam** | Aretxabaleta

Mikel Cubillok (ahotsak, gitarra) eta Imanol Ramosek (bateria) sortu zuten Scam 2004. urte bukaeran. 2005. urte hasieran Paulo Casal gitarra-jotzailea sartu zen taldean eta 2006an Ander Romero baxu-jotzailea. 2007. urtean, *Musicosamateurs.com* lehiaketa nazionalean, lehen saria irabazi zuten *Sorprender* abestiarekin. Azkeneko bi urteotan kontzertu asko eman dituzte aretxabaletarrek; gainera, euren entsegu lokala kontzertu, lan eta grabazio gela bilakatu da.

ELGETAKO espaloia KAFE ANTZOKIA

**Yllana taldearen eskutik "666" antzezlana**

- **Non:** Espaloia Kafe antzokia
- **Eguna:** abenduak 12, domeka.
- **Ordua:** 19:30ean.
- **Sarrerak:**
  Espaloia antzokian
  edo telefonoz deituta:
  943 78 90 85



Espaloia Kafe antzokia - Maala 2 ELGETA - 943 78 90 85



Gose taldea, kontzertuan. | GOIENA

# Arrosa kolorekoa da Goseren laugarren lana

## DVD formatuan dator eta 12 lagun musikarik Goseren abestien moldaketak grabatu dituzte

**EDU MENDIBIL** | ARRASATE

Gose musika taldeak laugarren lana plazaratu du. Disko zuriaren, beltzaren eta gorriaren ondoren, arrosa kolorekoa da iritsi da orain. Zenbaki erromatarrez, *IV* zenbakia gehitu diote. Taldeak 2004an ekin zion ibilbideari eta gaur egun Ines Osinaga abeslari eta soinu-jotzaileak, Iñaki Bengoak eta Osoronek osatzen dute. 2005ean kaleratu zuten lehenbiziko lana, Oihuka diskoetxearekin.

Arrasateko hirukotearen lan berria, esan bezala, arrosa da, DVD formatuan dator eta CDa dakar opari. CD bat oparituko diete zaleei harekin batera. DVDan, Mikel Clementek *On egin!* izenburuarekin egindako dokumentala, bideoklipak eta *making of* delakoa batu dituzte, besteak beste. Mikel Clementek Tokion grabatutako irudiekin *Lokartu arte* bideoklipa ere kaleratu du Gosek, eta haien webgunean ikusgai jarri dute. CDa, berriz, hirukotearen 12 lagun musikarik euren abestiei egindako 12 moldaketaz osatuta dago.

### Hamabi moldaketa

Hain zuzen ere, Fermin Muguruza, Oreka TX, Kutxi (Marea), Oskorri, Josu Zabala, Mikel Urdangarin, Gari, Petti&Andoni, Makala, Miren&Lipus, Naroa, Pirritx eta Porrotx eta Bonbereneako Txaranga izan dira moldaketak egin dituztenak. Disko berria, beraz, Gose taldearen hiru diskoetako abestiekin osatu dute.

Autoprodukzioaren bidetik dakar Arrasateko hirukoteak lan berria eta abenduaren hasieran Durangoko Azokan, taldearen zuzeneko kontzertuetan eta webgunean baino ez da egongo eskuragarri, hasiera baten. CDa eta DVDa 15 euroren truke eskuratzeko aukera dago ondoko webgunean: *http://gose.info/shop/*.

### Gasteizen eta Durangon

Zuzeneko emanaldiei dagokienez, datorren egubakoitzean, Euskararen Egunean, Gasteizen, Mendizorrotzan joko dute arrasatearrek. Eta, iaz bezala, Durangoko Azokan zuzenean joko dute lan berria aurkezteko. Abenduaren 6rako, Ahotsenean iragarri dute Goseren kontzertua, 14:00etan.

Tartean, abenduaren 1ean Sevillako Malandar aretoan joko du Gosek. Urtea bukatu baino lehen beste hiru hitzordu izango dituzte, Manresan (abenduaren 10ean), Santiagon (hilaren 16an) eta Madrilen (abenduaren 30ean).

# Amodiozko gutunen lehiaketa deitu du Jardunek

## Lanak jasotzeko epea urtarrilaren 7ra arte dago zabalik; 500 euroko saria irabazlearendako

**E.M.** | BERGARA

Dagoeneko 19. ekitaldira iritsi da Bergarako Jardun euskara elkarteak antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketa.

Lanak jasotzeko epea datorren urtarrilaren 7ra arte izango da zabalik eta irabazleak 500 euro jasoko ditu. Bigarren saria 250 euro izango da eta bergarar onenak, berriz, 150 euro eskuratuko ditu. Era berean, 26 urtetik beherakoen artean, gutun irabazleak 100 euro eramango ditu eta 50 urtetik gorakoen onenak ere sari bera jasoko du.

Gutunak honako helbide honetara bidali behar dira: posta arrunta erabiliz gero: Amodiozko Gutunen XIX. lehiaketa. Jardun Elkartea, Errotalde jauregia z/g. 20570 Bergara. Eta posta elektronikoa, berriz, hauxe duzue: *amodiozkogutunak@euskalerria.org*.

Edozein argibidetarako Jardun elkartera, 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 telefonoetara jo dezakezue. *www.jardun.net* webgunean ere badituzue argibideak.

### Sari banaketa, otsailaren 14an

Epaimahaia literatura eta kulturara munduko pertsona ezagunek osatuko dute. Gazteen sarirako epaimahaia, berriz, Bergarako ikastetxeetako zenbait gaztek osatuta egongo da. Sari banaketa ekitaldia, ohikoa denez, otsailaren 14an, San Valentin egunean egingo dute, Bergarako kultura etxean, 19:00etan.

**Martin Mendizabal** | Frantziskotarra

# "1520an hasi ziren Bidaurretako lehen mojak han bizi izaten"

## Bidaurretako monasterioaren 500. urteurrena dela eta, Mendizabal iburua idazten ari da

**E.M.** | OÑATI



Martin Mendizabal. | GOIENA

Bidaurretako monasterioaren lehen harria jarri zutela 500 urte bete ziren joan den martxoaren 10ean. Urteurrenaren harira, monasterioaren gaineko liburua idazten dabil Martin Mendizabal frantziskotarra. *Goiena magazinea* telebista saioan izan genuen.

**Zelan doa liburua?**

Ondo. Oso artxibo ona, dokumentazio ikaragarria daukate Bidaurretan eta asko irakurri behar izan dut, letra zahar ugari. Liburu handi samarra aterako da. Datorren urteko abuztuaren 6an 500 urte beteko dira Bidaurretara lehen hiru lekaimeak etorri zirenetik, eta asmoa da ordurako liburua gertu izatea, urteurren horrekin bat egiteko.

**Nork eraiki zuen monasterioa?**

Klaratarrendako mojendako Juan Lopez de Lazarragak egin zuen. Fernando eta Isabel errege-erregina katolikoen administratzailea izandakoa zen eta Gorteetan urtetan ibili eta gero diru askotxo egin zuen. Hasiera baten, erreginaren borondatea zen komentua egitea, baina hark ez zuen ez tokia aukeratu ezta dirua bildu ere egin.

**Zenbat urtean egin zuten?**

1520an hasi ziren lehen mojak komentuak bizi izaten, baina artean amaitzeke zegoen. Eliza eraiki, erretaula bukatu... 1533. urte aldera egingo zuten. Gipuzkoako lehen komentua zela esaten da, baina aurretik Donostian, San Bartolomen, agustindarrak zeuden, gaur egun Astigarragan daudenak, hain justu. Kontuan izan behar da, gainera, Oñati konde herria izan zela 1842ra arte, ez zen Gipuzkoa. Izan ere, Oñatiko kondeak gogor egin zion aurre Lopez de Lazarragari bere garaian.

### "Klaustroa publikorako zabaldu beharko lukete"

**Artearen ikuspuntutik zein ezaugarri ditu Bidaurretak?**

Eliza bera gotikoa da, beranduko Gotiko estilokoa, Santanderko Juan de Ruesgak eraikitakoa. Eta gauza berezienetako bat, nire ustez, klaustroa da; mudejar estiloko beste holakorik Gipuzkoan ez dut ezagutzen. Arku guztiak adreilu gorriz jarri zituzten mojek, eta sinplea baina oso dotorea da. Baina ez dute aterik zabaltzen jendeak ikus dezan, eta nire ustez utzi egin beharko lukete. Ni orain arratsaldero nabil hantxe... liburua idatzi ahal izateko.



Elizako erretaula. | GOIENA

### Frai Jacinto de la Sierraren erretaula

Juan Lopez de Lazarragak, Errege-Erregina Katolikoen kontadore nagusiak, eta haren emazte Juana Ganboak sortu zuten Bidaurretako monasterioa, 1510ean. Monumentu historiko-artistiko izendatu zuten 1980an, eta bertako elizako erretaulak, XVIII. mendeko rococo estilokoak, monumentu izendapena jaso zuen. Frai Jacinto de la Sierrak diseinatu zuen erretaula eta euskal erretaulagintzako arkitektura-diseinurik ikusgarrienetakoa dugu.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai Bakardadeko Ama kalean. Sukaldea, egongela, bi logela eta  komun bat. 264.000 euro. Garaje itxia aukeran, 35 metro koadrokoa, argi eta ur instalazioarekin. 66.000 €. 659 72 06 64.

**Arrasate.** Erdialdean 65 metro koadroko etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Berriztu berria. 20:00etatik aurrera deitu.603 79 60 95

**Arrasate.** 47 metro koadroko etxebizitza salgai Erguinen. Egoera ezinhobean. Berokuntzarekin. Jantzia. Bizitzera sartzeko moduan. 148.000 euro.649 70 33 83

**Arrasate.** San Josepe. 47 m koadro, 2 logela, komuna, sukaldea, egongela, trastelekua. Igogailua. Ekialdera ematen du. Etxabea da eta erreformak behar ditu. Kontaktua: etxerakomodukoa@gmail.com.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Garaje itxia ematen da errentan Kruz Gallastegi kalean. Bigarren solairuan, 25. zenbakia. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Estherrengatik galdetu.665 70 66 73

**Oñati.** Lau logelako etxebizitza ematen da errentan erdigunean.663 69 31 16

**Luz Saint-Sauveur.** 55 metro koadroko duplexa ematen da errentan Luz erdigunean. Neguko denboraldi osorako. 6 pertsonentzako. Interesatuok deitu zenbaki hauetara:.665 70 04 87 edo 671 07 12 48

**Arrasate.** Altamiran, Jose Luis Iñarra kalean, hiru logelako etxebizitza ematen da errentan.639 96 01 21

**La Mongie.** Etxebizitza ematen da errentan. Denboraldi osorako edo asteburuetarako. 2 edo 4 pertsonarentzako. Pistatik gertu.606 39 70 81

**Anbotoko.** magalean asteburuetarako borda ematen da errentan. 14:30etik aurrera deitu.620 10 52 63

**Oñati.** Plazatik 100 metrora 80 metro koadroko etxebizitza ematen da errentan. 450 euro hilean.687329957

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Gela bat alokatuko nuke.652746715

**Arrasate.** Arrasatear neska langile eta arduratsuak etxebizitza hartuko luke errentan Arrasate erdialdean. 500 euro arte ordainduko nuke. Mila esker. Iraia.606744237

**Arrasate.** Pertsona arduratsuak etxebizitza txikia hartuko luke errentan. Presazkoa.666 21 88 95

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat edo bi ditugu alokagai Arrasaten.630713583

## 2. GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Bergara.** Bi garaje ematen dira errentan. Bat Burdinaten eta bestea Masterrekan. Deitu 600 64 67 88 zenbakira.

**Arrasate.** Garaje itxia, 20 metro koadrokoa, errentan eman edo saltzen da Uarkapen. 943 24 53 57 edo 615 73 98 30

### 204. ERRENTAN HARTU

**Oñati.** Garajea hartuko nuke errentan San Juan Kale inguruan. Berdin da itxia izan ala ez.627 62 12 55

## 3. LOKALAK

### 301. SALDU

**Bergara.** 180 (90+90) metro koadroko lokala salgai Labegaraietan.Bista ikusgarria. Goiko pisua bulegotarako egokitua. Prezioa:130.000 euro. 627 537 861 edo 627 537 862

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**ARRASATE**
Optiko optometrista behar da optikan lan egiteko.
667 66 12 79

### 402. ESKAERAK

**Bergara edo Arrasate.** Mutila gertu sukalde laguntzaile, zerbitzari, garbiketan edo nagusiak zaintzen jarduteko. Esperientziaduna eta legezko paperekin.634844194

**Bergara edo Arrasate.** Neska gertu orduka lan egiteko sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetan. Nagusiak zaintzen ere bai, etxean bizi izateko aukerarekin. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat.659374195

**Arrasate.** Hemengo neska prest etxeak garbitzeko, umeak zaintzeko eta beste edozein lanetarako; orduka ere bai. 659552716

**Debagoiena.** Geriatria laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Baita gaixoak ospitalean zaintzeko ere, gauak arne. 08:00etatik 15:00etara edo 20:00etatik 08:00etara egingo nuke lan. Mirian.646 05 58 88 edo 94379 79 49

**Debagoiena.** Emakume batek garbiketa lanak egin edo nagusiak zainduko lituzke asteburuetan.699094626

**Arrasate.** Asteburu eta jaiegunetan lan egingo nuke nagusi eta umeak zaintzen edo garbiketa zein plantxa lanetan. Baita astean zehar 18:00etatik 20:00etara bitartean ere. Presazkoa da. Fanny Salvatierra.682319737

**Bergara.** Esperientziadun neska etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko gertu.665754132

**Bergara.** Emakume euskalduna gertu umeak zaintzeko. Haurtzaintza titulua eta esperientzia daukat.688 65 30 62 (Arantzazu)

**Debagoiena.** Gizona gertu edozein lan egiteko. 646 27 70 46.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka plantxa zein garbiketa lanak egiteko edo ume eta nagusiak zaintzeko.Deitu 699 54 17 27 telefonora.

**Bergara.** Esperientziadun neska umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko gertu.Deitu 665 75 41 32 telefonora.

**Arrasate edo Bergara.** Mutila gertu zerbitzari, sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Esperientziaduna. Legezko paperak dauzkat.666 84 17 05

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:**

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Motorra Saldu/Errentan.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 20,5 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 21 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 28 € (+BEZ).

**Arrasate edo Bergara.** Neska gertu nagusiak zaindu, garbiketa, sukalde laguntzaile. Legezko paperak eta informeak dauzkat. Esperientziaduna. Deitu 659 37 41 95 telefono zenbakira.

**Lana Bergaran.** Bergaran lana egingo nuke. Administrazioan 18 urte baino esperientzia gehiago. Seriotasuna.Deitu 615 71 99 39 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu manikura eta pedikura egiteko. 12 euro.654790758

**Bergara.** Umeak zaindu eta etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Deitu 665 75 41 32 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Emakumea gertu asteburuetan lan egiteko, garbiketa lanak egin edo pertsona nagusiak zaintzen. Deitu 699 09 46 26 telefono zenbakira

## 5. IRAKASKUNTZA

### 501. JASO

**Gitarra eskolak.** jasoko nituzke Arrasaten.657 71 74 82

**Euskara klaseak.** 7 urtetako atzerritar mutiko bati, euskarazko klaseak emango dion norbait behar dugu astean 2 orduz komunikatzeko gaitasuna lortzeko helburuarekin. 673 93 76 94 . Tutar

### 502. EMAN

**Arrasate.** Neska gazte euskalduna Lehen Hezkuntzako ikasleei ikasketetan laguntza emateko prest.616 32 73 08

**Arrasate.** Neska euskalduna, Ekonomian lizentziaduna, eskola partikularrak emateko gertu. Deitu 679 97 76 46 telefono zenbakira

**Eskola partikularrak.** ematen dira. Irakasle ikasketetan eta Logopedian diplomatutako neska euskalduna naiz. Lehen Hezkuntzako arloan zein hizkuntza arazoetan. Deitu 659 92 89 23 edo 943 79 39 19 telefono zenbakira

**Bergara.** Neska euskalduna, Haur Hezkuntzan diplomaduna, Lehen Hezkuntzako eskola partikularrak emateko prest. 676 41 12 58

**Debagoiena.** Neska gaztea prest euskara, ingeles edo gaztelaniako eskolak emateko.628 87 02 43 edo 943 79 85 01

## 6. MOTORRA

### 601. SALDU

**Volkswagen Transporter.** salgai. Caravelle modeloa, 130 ZP, 8 plaza, 240.000 km. 2006koa. 6 abiadura. Grisa. 15.000 euro. Manuel.670 57 27 88

**Mercedes Viano.** CDI 2.2 Ambiente. 150ZP. 7 lagunendako eserlekuak. Olio azterketa 2010eko urrian eginda. 2008ko urrian matrikulatua. 30.500 km. Ia berria.688 65 21 19

## 7. ANIMALIAK

### 703. EMAN

**Cocker zuri-beltza.** ematen da Arrasaten. 5 urtekoa. Emea. Ondo hezitakoa. Oso polita. 637 72 66 73

**Cocker ingelesa.** ematen da Arrasaten, ezin dugulako zaindu. Emea, beltza, txerto eta mikrotxiparekin. Lau urte. Maitagarria, eta txakur ona. Ondo zainduko duen norbaiti bakarrik emango diogu.943 79 82 43

**Oparitu.** 4 urte dituen artzain -txakurra oparitzen da, ezin dugulako zaindu.615732289

**Txakurrak opari.** Setter ingeles arrazakoak.688 62 78 93 (Miren) edo 656748511 (Xabi)

**Txakur** oso polita ematen da opari. 11 hilabeteko txakur meztizoa da. Setter gorputzarekin baina Golden Retrieverren kolorearekin. Oso polita eta maitagarria. Oso obedientea. Oparitzen da ezin dugulako eduki eta pena handiz oparitu behar dugu. Bakarrik ondo zain dezakeen pertsona bati emango diogu. Umeekin egon da beti.679 23 27 93

### 704. BESTELAKOAK

**Loroa galdu** nuen Bergaran, Labegaraieta inguruan, azaroaren 12an. Grisa eta buztan gorria. Sarituko da.679 01 51 84

## 8. DENETARIK

### 801. SALDU

**Trikitia.** Hohmer etxekoa. Mexikoko Tex-Mex berezia. Hiru ilarakoa. Bost erregistro. Prezioa adostu aurretik, probatzeko aukera. Egoera oso onean.696 37 91 79

**Errepideko bizikleta.** saltzen dut. Orbea Onix. 2009koa. Karbonozko tijaduna, 54 neurrikoa. Shimano 105 aldagailuarekin eta Compact sistemarekin.645 00 56 81

**Sutarako pago egurra.** Sutarako pago egurra takotan salgai lehorra.Tximini edo beheko surako aproposa.656775943

**Ping-pongeko mahai.** profesionala salgai, Antzuolan. Egoera oso onean, berri dago. Prezioa, adosteko. 660 52 11 48

**Snow taula.** salgai. Atomic Tika modeloa, neskendakoa. 1,44 neurrikoa. Behin bakarrik erabilia. Egoera oso onean.679 09 33 34

**Ohe berria.** salgai. 1,35eko forjako ohea, 2 gau-mahai, 2 lanpara, nordikoa, izarak, koltxoia, somierra.. Dena estreinatzeke, oso-oso polita da. Etorri ikustera konpromisorik gabe. Furgonetarik ez badaukazu, galde egidazu!.606213718

**Altzariak.** Dekorazio aldaketagatik, bi plazako sofa-ohea, Ikeako mahaia eta 19 hazbeteko Philips telebista DVD integratuarekin salgai. Gazteendako egokia. Oso merke eta egoera onean. 17:30etik aurrera deitu. Oñatin. .619 81 70 72

**Paretako piano.** marroia salgai. Cherny etxekoa. Prezio interesgarria.607 06 22 20

**Umea eramateko motxila.** Baby Börjn etxekoa. Beltza eta gorria. Bizkarrarendako errefortzuarekin. Berria. 75 euro.607 06 22 20

**Euritako plastikoa .** eta zakua salgai (polarra). Jane etxekoak eta egoera oso onean. Matrix edo Maxi-cosirako. Biak 60 euro. 607 06 22 20

**Ohe berria.** salgai. 1,35eko forjako ohea, 2 gau-mahai, 2 lanpara, nordikoa, izarak, koltxoia, somierra.. Dena estreinatzeke, oso-oso polita da. Etorri ikustera konpromisorik gabe. Furgonetarik ez badaukazu, galde egidazu!.606 21 37 18

**Gurpildun aulki.** elektrikoa salgai. Egoera paregabean. 1.500 euro. Arrasaten.677 38 85 64

### 802. EROSI

**Bizikleta.** 24 hazbeteko bizikleta erosiko nuke. Deitu zenbaki honetara:.696 84 34 38

**Trabesiako eskiak.** erosiko nituzke, bigarren eskuko eski ekipoa. Nire altuera: 1,60 m. Eta hanka: 40. Merke edo zerbaiten trukean.627 50 63 80

### 803. EMAN

**Besaulki txukun bat.** kentzeko moduan bazaude, mesedez abisatu eta gustura hartuko nuke. Deitu 618 80 09 32 telefono zenbakira.

### 806. GALDU

**Aretxabaleta.** Azaroaren 6an Orly (Azken Bazter) tabernan ante itxurako gizonezkoendako txamarra beltz bat galdu nuen. Aurkitu duenak dei dezala, mesedez. Eskerrik asko.680449161 edo 699724891

**Urrezko katea.** Bergarako Domingo Irala kalea eta Telesforo Aranzadi artean urrezko katea eta zintzilikaria galdu nuen. Norbaitek aurkitu baditu, mesedez deitu. Ordainsaria egongo da. Teresa.649632324 edo 696381007

**Liburuak.** Joan den ostiralean, azaroak 5, Arrasateko Udal Liburutegiko poltsa bat galdu nuen Herriko Plazan edo inguruetan. Poltsa barruan bi ipuin eta umeendako bi DVD zeuden (liburutegikoak). Aurkitu baduzu, deitu, mesedez, telefono honetara:619 87 57 48. Eskerrik asko.

**Arrasate.** Zilarrezko eta perladun brotxea galdu nuen urriaren 23an (Txikitxu-Arrostaitz dantza emanaldia egon zen egunean) Uarkape pilotaleku inguruan. Norbaitek aurkitu badu, dei diezadala, mesedez. Sarituko da. 627 23 11 50 edo 943 79 21 15

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Masterreka 92 m2. 237.399 .
- Masterreka. 88 m2. Igogailuarekin.
- Artekale 40 m2. Berritua.
- Irizar pasealekua 70 m2. Igogailuarekin.
- Zabalotegi 60m2. Oso ondo
- Mekolalde 110 m2. 90.000 .
- Osintxu. 84 m2. Igogailuarekin. 153.258 .
- Ibargarai 54 m2. Garajearekin.
- Lorentxoko 73 m2. Eraikitzeko.
- Burdiñate 53 m2. Prezio ona.
- Matxiategi 65 m2. Igogailuarekin.
- Ibarra 47 m2. 146.888 .
- Bolu 96 m2. Garajearekin.
- Simon Arrieta 70 m2. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 m2. 154.761 .
- Aranerreka 80 m2. 189.319 .
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Herri Lagunak 52 m2. Prezio ona.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza Martokon, Maduran, San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- Artekale. Logela bat. Berritua.
- GARAJEAK SALGAI Ozaetan. Aukera ona.

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa, Ibarre auzoa, San Josepe, Aierra eta Errekalde. Etxe onak.
- Herriko plaza 95 m2. Oso etxe ona.

**Elgeta:**
- **AUKERA**. Etxebizitza adosatuak salgai Elgetan. Lehen mailako materialekin. Eraikuntza bukatua. **PREZIO EZIN HOBEAK**: 249.210 tik hasita.
- **Eraikuntza berriak Torrealdean. 186.805 €tik aurrera.**

**Soraluze:**
- Sagar Erreka, Rabal, Atxuri eta Rekalde. Etxe onak.

**Deba Garaia**
Inmobiliaria
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Arrizuri, 97 m2, garajearekin.
- Aranerreka, 80 m2, oso ondo. Prezio ona.
- Matxiategi, 72 m2, eguzkitsua. Prezio ona.
- Zabalotegi, 54 m2, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 m2, oso eguzkitsua.
- Burdiñate, 104 m2, oso ondo.
- Ibargarai, apartamentua, 40 m2, berria, garajea aukeran.
- Justo Garate, 80 m2, oso ondo.
- Herrilagunak, 60 m2.
- Martoko, 87 m2, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 m2, ondo.
- Ibargarai, 80 m2 oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 m2 oso ondo.
- Zabalotegi 80 m2, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 m2, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Toki Eder plaza, 98 m2, oso ondo.
- Simon Arrieta, 57 m2, terrazarekin.
- Zurradero, 81 m2, oso ondo.
- Zubieta, 125 m2, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 m2, berritua. Oso eguzkitsua.
- Iparragirre, 190 m2.
- San Antonio, 65 m2, eguzkitsua.
- Masterreka, 46 m2, eraikuntza berria.
- Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan, Martokon eta San Lorentzon.
- San Lorentzon aukera ona.
- Basarte. 69 m2. Oso ondo.
- Toki Eder plaza. 54 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Artekale, 48 m2. Apartamentua. Oso ondo.
- Arrizuri, 90 m2. Terrazarekin. Oso ondo.

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 m2, berria.
- Sagarerreka, 58 m2, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, Antigua auzoa eta Sagasti auzoa.

ARANZADI IKASTOLAk pertsona bat behar du lanaldi osorako

**Ingeles filologian** lizentziaduna edo **Historian lizentziaduna eta ingeleseko tituloarekin**

**Eskatzen da**
- Biak ere, EGA edo pareko titulaziodunak
- Ikastoletan esperientzia izatea baloratuko da.

**Eskaintzen da**
DBH eta Batxilergoko irakasle postua

**BIDALI CURRICULUMAK HELBIDE HONETARA**
abenduaren 3rako: *bergara@ikastola.net*
Aranzadi Ikastola San Martin plaza 4
20570 BERGARA Tel.: 943 76 90 71

ARANZADI ikastola
Kalitatezko Euskal Heziketa

## ASTEA GOIENAN



GOIENA

### Oxel Erostarbe Elgetako alkatea, zuzenean

Martitzenean, *Magazinea*-n izango da Oxel Erostarbe Elgetako alkatea. Eneko Azkarate eta Arritxu Barruso kazetarien galderak erantzungo ditu Erostarbek. Ikusleek zuzenean galderak egiteko aukera izango dute.

**'GOIENA magazinea'**
Martitzena, 19:45



EUSKAL FILMATEKA

### 'Mikelen heriotza' eskainiko dute eguaztenean

Txomin Madina kazetariak gidatutako zine tertulia izango da datorren eguaztenean; ondoren, *Mikelen heriotza* filma eskainiko dute. Imanol Uribek 1984an zuzendutako drama da *Mikelen heriotza*.

**'Tertulia'**
Eguaztena, 20:45

## GOIENA TELEBISTA

**EGUBAKOITZA 26**

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:45** Kantari
- **14:15** Onein
- **14:45** Berriak
- **15:15** Ur eta lur
- **15:45** Kulturzulo
- **16:15** Odolki lehiaketa
- **16:45** Berriak
- **17:15** Marrazki bizidunak
- **17:45** Iragana gogoratuz
- **18:15** Ipupomamua
- **18:45** Berriak
- **19:15** Kantari
- **19:45** Goiena Magazinea
- **20:45** Gipuzkoa kultura
- **21:15** Goiena Magazinea
- **22:15** Danbaka
- **23:15** Goiena Magazinea

**ZAPATUA 27**

- **08:00** Marrazki bizidunak
- **10:00** Ipupomamua
- **10:30** Tolosako abesbat.
- **11:00** Goiena Magazinea
- **12:00** Tertulia
- **13:00** Onein
- **13:30** Kantari
- **14:00** Marrazki bizidunak
- **15:45** Goiena Magazinea
- **16:45** Haurrekin jolasean
- **17:00** Kulturzulo
- **17:30** Tertulia
- **18:30** Kiroleroak
- **19:00** Trikitixa jaialdia
- **19:30** Berbetan
- **20:00** Goiena Magazinea
- **21:00** Danbaka
- **22:10** Iragana gogoratuz
- **22:50** Ikusten
- **23:20** Goiena Magazinea

**DOMEKA 28**

- **08:00** Haurrekin jolasean
- **08:15** Ipupomamua
- **08:45** Marrazki bizidunak
- **10:45** Kantari
- **11:15** Trikitixa jaialdia
- **11:45** Iragana gogoratuz
- **12:15** Ikusten
- **12:45** Ur eta lur
- **13:15** Tertulia
- **14:15** Marrazki bizidunak
- **15:45** Ipupomamua
- **16:15** Organo zikloa
- **16:45** Kiroleroak
- **17:15** Esatea libre
- **18:15** Marrazki bizidunak
- **20:15** Ikusmira
- **20:45** Goiena Magazinea
- **21:45** Tertulia
- **22:45** Danbaka

**ASTELEHENA 29**

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:45** Kantari
- **14:15** Berbetan
- **14:45** Berriak
- **15:15** Organo zikloa
- **15:45** Ikusmira
- **16:15** Tolosako abesbatza lehiaketa
- **16:45** Berriak
- **17:10** Marrazki bizidunak
- **17:45** Trikitixa jaialdia
- **18:15** Marrazki bizidunak
- **18:45** Berriak
- **19:15** Kantari
- **19:45** Goiena Magazinea
- **20:45** Harmailatik
- **21:30** Goiena Magazinea
- **22:30** Erreportajea: Arizmendiarrieta
- **22:52** Harmailatik
- **23:30** Gipuzkoa kultura
- **23:59** Goiena Magazinea

**MARTITZENA 30**

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:45** Kantari
- **14:15** Onein
- **14:45** Berriak
- **15:15** Harmailatik
- **16:00** Kulturzulo
- **16:30** Haurrekin jolasean
- **16:45** Berriak
- **17:15** Marrazki bizidunak
- **17:45** Ikusten
- **18:15** Marrazki bizidunak
- **18:45** Berriak
- **19:15** Kantari
- **19:45** Goiena Magazinea
- **20:45** Danbaka
- **21:15** Goiena Magazinea
- **22:15** Erreportajea: Arizmendiarrieta
- **23:30** Goiena Magazinea

**EGUAZTENA 1**

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:35** Kantari
- **14:00** Harmailatik
- **14:45** Berriak
- **15:10** Erreportajea: Arizmendiarrieta
- **15:45** Onein
- **16:15** Tolosako abesbatza lehiaketa
- **16:45** Berriak
- **17:10** Marrazki bizidunak
- **17:35** Harmailatik
- **18:20** Marrazki bizidunak
- **18:45** Berriak
- **19:15** Kantari
- **19:45** Goiena Magazinea
- **20:45** Tertulia
- **21:45** Filma: Mikelen heriotza
- **23:45** Goiena Magazinea

**EGUENA 2**

- **13:15** Marrazki bizidunak
- **13:45** Kantari
- **14:15** Onein
- **14:45** Berriak
- **15:15** Tertulia
- **16:15** Filma: Mikelen heriotza
- **18:15** Marrazki bizidunak
- **18:45** Berriak
- **19:15** Kantari
- **19:45** Goiena Magazinea
- **20:45** Danbaka
- **21:15** Goiena Magazinea
- **22:15** Gipuzkoa kultura
- **22:45** Ikusten
- **23:15** Goiena Magazinea

## ARRASATE IRRATIA

### Durangoko azokaren gainean jardungo dute irratian

Durangoko azoka izango dute berbagai datorren astean Arrasate Irratian; bereziki, Arrasateko sorkuntzan jarriko dute arreta. Gainera, abenduaren 3a ere, Euskararen Eguna, izango dute berbagai.

### Gatiburen kontzerturako sarrerak dituzte

Abenduaren 11n Gatibuk Eskoriatzan emango duen kontzerturako sarrerak dituzte Arrasate Irratian. Abenduaren 10ean zozketatuko dituzte kontzerturako sarrerak irratira deitzen dituzten entzuleen artean.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 27** | JUAN ANTONIO IRIZAR | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| **Domeka, 28** | LOURDES AMEZUA | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| **Astelehena, 29** | ANA ESPAÑOL MORALES | Araba Etorb. 14 | 943 79 18 65 |
| **Martitzena, 30** | AURORA RUIZ PEREZ | Nafarroa Etorb. 1 | 943 79 14 09 |
| **Eguaztena, 1** | ERKUDEN ETXEBERRIA | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| **Eguena, 2** | ALBERTO AZKOAGA | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| **Egubakoitza, 3** | Mª FRANCISCA AZKOAGA | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 27** | ALVAREZ-MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Domeka, 28** | ALVAREZ-MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| **Astelehena, 29** | A. URRUTIKOETXEA | Plaza Orixondo, 4 | 943 76 11 74 |
| **Martitzena, 30** | IÑIGO ZABALA | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| **Eguaztena, 1** | MERCEDES GUALLAR | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| **Eguena, 2** | JAVIER ESTELLA | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| **Egubakoitza, 3** | ALVAREZ-MOZOS | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 27** | JULDAIN | Kale barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Domeka, 28** | JULDAIN | Kale barria, 6 | 943 78 11 28 |
| **Astelehena, 29** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Martitzena, 30** | ANDUAGA | San Lorentzo, 3 | 943 78 21 16 |
| **Eguaztena, 1** | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Eguena, 2** | BARRENETXEA | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| **Egubakoitza, 3** | GARATE | Kale-Barria, 42 | 943 78 11 28 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| **Zapatua, 27** | MARIA VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| **Domeka, 28** | MARIA VICTORIA ANITUA | Belorrieta auzoa, 1 | 943 08 11 43 |
| **Astelehena, 29** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| **Martitzena, 30** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| **Eguaztena, 1** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| **Eguena, 2** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| **Egubakoitza, 3** | JUAN FRAILE | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |

**Farmazien eskuko telefonoetarako 2010 egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 25600 zenbakira.**
Gehienezko kostua 1,9 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

### ESKER ONA

## M. Mercedes Lasa Diaz de Mendibil



Bergaran hil zen 2010eko azaroaren 18an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2010eko azaroaren 26an.**

### MEZA

## Jose Luis Azkue Irastorza



Arrasaten hil zen 2010eko azaroaren 21ean, 72 urte zituela.

Haren arimaren aldeko meza domekan, azaroaren 28an,
11:00etan, Arrasateko Uribarri auzoko Itxaropenaren Amaren elizan.

—

*Bertaratuko zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko familiakoen izenean.*

—

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali
dizkiguzuenoi, mila esker familiakoen izenean.

**Arrasaten, 2010eko azaroaren 26an.**

### ESKER ONA

## Balbina Altuna Zubia

Floren Larrondoren alarguna



Aramaion hil zen 2010eko azaroaren 19an, 97 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Aramaion, 2010eko azaroaren 26an.**

### ESKER ONA

## Alejandro Alberdi Badiola



2010eko azaroaren 21ean hil zen, 76 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei
eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

**Bergaran, 2010eko azaroaren 26an.**



## Cristobal eta Mari Nieves

Bergarako Cristobal Zabaleta eta M. Nieves Gabilondo azaroaren 27an ezkondu ziren orain dela 50 urte. Ondo pasa eguna eta jarraitu horrela! Familiakoen partetik zorionak eta muxu handi bana!



## Julian eta Karmele

Antzuolako Karmele San Sebastian eta Julian Iparragirre gaurko egunez ezkondu ziren orain dela 50 urte. Bihar ospatuko dute urteurren hau meza eta bazkari batekin.





## Jesus Mari eta Mikaela

Oñatiko Jesus M. Aranburu eta Mikaela Unzilla azaroaren 24 ezkondu ziren Etxarri Aranazen, orain dela 50 urte. Igandean bazkaria egingo dute zelai zabal jatetxean. Zorionak eta oso ondo pasa!



## Luciano eta Mikaela

Arrasateko Luciano Urrutia eta Mikaela Muruak gaur 50 urte egin dituzte ezkondu zirela. Familia guztiak batera ospatuko dugu urteurrena. Familiaren partetik muxu handi bat.



## Roberto eta Maria Pilar

Arrasateko Roberto Merino eta Maria Pilar Madariaga azaroaren 24an ezkondu ziren, orain dela 50 urte. Iloba Asier, Beñat, Aina-ra, Unai eta Aitzolen partetik zorionak eta patxo handia!



## Julian eta Ramoni

Ramoni Aretxaga eta Julian Aiastui bergararrak euren jaioterrian ezkondu ziren gaurko egunez, orain dela 55 urte. Zorionak zuen ezkontzaren 55. urteurrenian, familiaren partetik.





## Paulino eta Irene

Paulino Manso eta Irene Valdesek gaur urrezko ezteiak egin dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik, eta batez ere Asier, Josu, Olaia, Leire eta Aimar zuen iloben partetik!.




## Angel eta Milagros

Gaur betetzen dira 50 urte Oñatiko Angel Etxeberria eta Zubillagako Milagros Agiriano ezkondu zirela. Domekan Arantzazun, meza eta bazkaria egingo dute. Etxekoen partetik, mila esker eta zorionak!

---

OROIGARRIA

## Manuel Murgiondo Etxaluze

Belen Murgiondo gure lankidearen aita

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*

Arizmendi

**Arizmendi ikastolako langileak.
Leintz bailaran, 2010eko azaroaren 26an.**

OROIGARRIA

## Simon Arregi Dorronsoro

Puri Arregi lankidearen aita

Arrasate hil da 2010eko azaroaren 23an, 88 urte zituela

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*

Arizmendi

**Arizmendi ikastolako langileak.
Leintz bailaran, 2010eko azaroaren 26an.**

OROIGARRIA

## Amaia Rodriguez Valdezate

Ikastolako gurasoa

Arrasaten hil zen 2010eko azaroaren 20an, 37 urte zituela.

*Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.*

Arizmendi

**Arizmendi ikastolako guraso eta langileak.
Leintz bailaran, 2010eko azaroaren 26an.**

OROIGARRIA

## Amaia Rodriguez Valdezate



Arrasaten hil zen 2010eko azaroaren 20an, 37 urte zituela.

*Garzia-Etxabe izeba-osabek eta lehengusu-lehengusinek gogoan izango zaitugu.*

**Garzia-Etxabe familia.
Aretxabaletan, 2010eko azaroaren 26an.**

OROIGARRIA

## Amaia Rodriguez Valdezate



1973-11-19 / 2010-11-20

*Amaia maitea, betirako gure bihotzetan egongo zara.*

**Lasagabaster eta Rodriguez familiak.
Arrasaten, 2010eko azaroaren 26an.**

Babeslea:

Euskalduna
Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea

**Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: *euskalduna@harrespil.net***

**BERGARA Rafa Ruedaren eta Edorta Jimenezen ikuskizuna**
*Haragizkoa* poesia errezitaldia izango da. Udaberrian kaleratu zuen Omar Nabarrok *Haragizko amoreak* poema liburua (Susa). Liburuan oinarrituta jarri zuten martxan ikuskizuna Ruedaren konposizioekin eta Jaime Nieto baxu-jotzailearen kolaborazioarekin.
Etzi, domeka, Zabalotegin, 19:00etan.


GOIENA


XARMA

**ELGETA Xarma (Ondarroa), Deabrutu (Aramaio), Seafóid (Eibar) eta Scam (Aretxabaleta), Danbakako azken aurreko kontzertua ematen**
Pop, rock eta folk doinuak entzun ahal izango ditugu Danbaka lehiaketako azken aurreko emanaldian. Sarrera 5 euro da; Gaztekutxaren bidez erosita, 3 euro.
Gaur, egubakoitza, Espaloia antzokian, 22:30ean.

# NON-ZER

AZAROAK 26 ABENDUAK 2

**Emaiguzue zuen ekitaldien berri eguazteneko eguerdia baino lehen.**
Tel.: 943 25 05 05 | kultura@goiena.com | Faxa: 943 25 05 13

## OSPAKIZUNAK

**BERGARA Jubilatuen Eguna ospatuko dute Osintxun**
Gaztañatan kultura egitarauaren barruan, Jubilatuen Eguna ospatuko dute. Bazkaria izango dute, eta Duo Plaentxik alaituko du giroa bere musikarekin.
Etzi, domeka, Txuringon, 14:00etan.

**ESKORIATZA Bertso-afariaegingo dute Apotzaga auzoan**
Jon Maia eta Amets Artzallus bertsolariekin afaria egingo dute.
Bihar, zapatua, Apotzagako San Migel merenderoan, 21:30ean.

**ESKORIATZA VI. ardo-dastatzean, ardo ondua eta pintxoak**
Lau upategiko ardoa emango dute, ardo ondua eta pintxoak. Urtero bezala, herriko txistulariek alaitutako erromeria ere izango da. Aitzorrotz kultura elkarteak antolatzen du.
Bihar, zapatua, Herriko plazan, 18:30ean.

**ARRASATE Info7 irratiaren aldeko eguna antolatu dute biharko**
Goizean (11:00-13:00), Herriko plazan, honako ekintzak izango dituzte: zuzeneko saioa herriko gonbidatuekin, umeentzako jolasak, pintxoak eta sagardoa eta txalaparta emanaldia. Gero, bertso bazkaria (14:30) eta gaztetxean kontzertua (22:30) izango dituzte. AMD, Alta Tension eta The Limo Brothers and Pool taldeek joko dute.
Bihar, zapatua.

**ARETXABALETA Gazte Eguna ospatuko dute bihar, zapatua**
Gazte Ekimenak antolatuta, honako ekintzak izango dituzte: ibilaldia (09:30), ongietorria gaitari eta txalapartariekin (12:30), poteoa (13:00), gazte bazkaria (14:30; 7 euro), sorpresa (17:00), Skandalue elektrotxaranga (18:00), eta kontzertuak (21:30).
Bihar, zapatua, 09:30ean.

**ARETXABALETA Mortzila eta txistorra jaia, Kirol Elkartearekin**
Aretxabaleta Kirol Elkarteak mortzila eta txistorra probatzeko aukera eskainiko du. Mitarte kalean da (18:30-22:00); eguraldi txarrarekin, Herriko Plazan. Errioxako ardoa eta Kataluniako cava ere eskainiko ditu jatekoari lagun egiteko.
Gaur, egubakoitza, Mitarte kalean, 18:30ean.

**BERGARA I. Mokolo Eguna antolatu dute gaztetxeko kideek**
Festak arratsaldean hasi eta goizalderarte iraungo du. Hauxe diote antolatzaileek: "Bergararrok beti entzun izan dugu *mokoloak* garela, beraz bada garaia mokolotasun hori harrotasunez ospatzeko". Honako ekintzak izango dira: trikipoteoa gaztetxetik hasita (19:30), 100 sagardo litroko kupela irekiko dute gero (21:00), Mokolo afaria egingo dute (21:00) eta bukatzeko (23:00) kontzertuak: Emon eta Unsain.
Bihar, zapatua.

**BERGARA Nau taldeak kontzertua egingo du**
Osintxuko Gaztañatan kultura egitarauaren barruan antolatu dute kontzertu hori.
Gaur, egubakoitza, Osintxun, 22:30ean.

## ERAKUSKETAK

**ESKORIATZA Euskarazko jostailuen eta liburuen erakusketa**
Gabonetako "publizitate zoroari" ezagutzaz aurre egiteko, euskarazko zenbait jostailu eta liburu bertatik bertara ezagutzeko aukera ematen du Udalak erakusketa honen bidez. Hezitzaileak egongo dira gurasoen eta umeen galderei erantzuteko.

Jostailu erakusketa ludotekan izango da (16:30-19:30); liburuena, liburutegian (16:30-20:00).
Azaroaren 29tik abenduaren 1era arte, ludotekan eta liburutegian.

**BERGARA Txirrindulatzari buruzko Toribio Jauregiren argazkiak**
Udal Artxiboak, Toribio Jauregiren argazki funtsaren dohaintza jaso ondoren, txirrindularitzaren gaineko argazki erakusketa antolatu du. Bisita egunak eta orduak hauek izango dira: azaroaren 26tik abenduaren 12ra; martitzenetik egubakoitzera: 18:00-20:30; zapatuetan: 12:00-14:00 eta 18:00-20:30; eta domeka eta jaiegunetan: 12:00-14:00.
Gaur, egubakoitza, inauguratuko dute erakusketa Aroztegi aretoan, 18:30ean.

## ANTZERKIA

**ESKORIATZA 'Los colores del humor' antzezlana**
Umorezko antzezlan hori egingo du Kunka taldeak. Gaztelaniaz da. Sarrera doakoa da.
Gaur, egubakoitza, Unibertsitatean, 22:30ean.

**BERGARA Antzezlana egingo du Kandido Urangak**
Kandido Uranga aktoreak *Txakurrak haginka* delako antzezlana egingo du. Sarrera: 5 euro.
Gaur, egubakoitza, Zabalotegi aretoan, 22:30ean.

## MUSIKA

**OÑATI Ganbara kantu eskolako taldeen kontzertua**
Haur eta gaztetxoen talde guztiek kontzertua egingo dute Santa Zezilia eguna ospatzeko. Sei talde arituko dira: kantu tailerreko bi taldeak, Ganbara Txikitxoak, Ganbara Txiki eta Ganbara Gazte. Askorentzat lehenengo kontzertua izango da. Kontzertuaren barruan ipuin berezi bat estreinatuko dute, pirata batzuen inguruan: *Kapitain Kapitain*, Josu Elberdinen obra. Sarrerak kultur etxean daude, 5 eurotan.
Bihar, zapatua, Santa Ana antzokian, 19:00etan.

## BESTELAKOAK

**ELGETA Intxortako frontean ibilbide gidatua etzi, domeka**
Intxorta mendiaren magalean izandako frontearen hainbat xehetasun ezagutzeko aukera dago. Ibilbidea Espaloia Kafe Antzokitik abiatuko da; lehendabizi Interpretazio Gunea bisitatuko dute, eta segidan, 5 km-ko ibilbide tematikoa oinez egingo dute. Honako egunetan izango da: etzi, domeka, gaztelaniaz; abenduaren 5ean, euskaraz; eta abenduaren 19an, gaztelaniaz. Hiru ordu eta erdi irauten du, eta 2 euro da prezioa. Aurrez izena eman behar da: 943 79 64 63 / 943 71 89 11.
Etzi, domeka, Espaloia antzokian, 10:00etan.

## BONOFOTOA







ETXEZ ETXEKO BANAKETA
Larchago ardoak eta produktu ekologikoak.
943 76 98 51

**GARMENDIA ARDOEK EMANDAKO BOTILA ARDO PACKA***
ZOTZ EGINGO DUGU, GALDERA ZUZEN ERANTZUN DUZUENON ARTEAN:

* Larchago iskillarapeko ekologikoa: botila bat.
Larchago beltz berezia: botila bat. Larchago kriantza: botila bat.

ERANTZUNA:
IZEN-DEITURAK:
HERRIA: TELEFONOA:
Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzatara


**Mendi gailurretik paisaia eder hori ikusteko aukera daukazu. Zein da?**

**Argazkia eta galdera:** Jose Fernandez

Zorionak aurreko zenbakiko irabazleari:
**Bergarako Juan M. Iturbe**
Erantzun zuzena:
**Elgeta**



TTANTTAKA

**OÑATI 'No me hagas daño' antzezlana egingo du Ttanttakak, emakumeenganako tratu txarren gainean gogoeta bultzatzeko**

Ttanttaka taldeak *No me hagas daño* antzezlana egingo du. Emakumeenganako tratu txarren gaia lantzen du. Sarrerak salgai daude kultur etxean, 10 eurotan.

Gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian, 22:30ean.

**ELGETA 'Herrixa Dantzan' dantzaldi irekian parte hartzeko aukera**

Patxi Monterok gidatutako saioa da. Denoi dago zabalik.

Etzi, domeka, Espaloia antzokian, 19:00etan.

**OÑATI Gazteen II. Bailarako jardunaldiak egingo dituzte**

Honako egitaraua antolatu dute: bihar, zapatua, Pablo Sastrek *Gizajendearen ahitzea* liburua aurkeztuko du (11:00), bazkaria (14:00), Soraluzeko bioeraikuntza baten esperientzia (15:30), *Emakume izatea kartzelan* hitzaldia (18:00), afaria (21:00) eta kontzertuak (22:00); eta etzi, domeka, Oñatiko etxe hutsetara bisita (11:00), bazkaria (14:00), *Drogak eta mugimendu sozialak* hitzaldia (16:00) eta supermerkatuen gaineko autoformakuntza (18:00). Gaztetxean lo egiteko aukera izango da.

Bihar eta etzi, gaztetxean.

**OÑATI Kuboko II. kanika txapelketa**

Gaztetxoendako txapelketa da.

Bihar, zapatua, Gaztelekuko Kuboan, 18:00etan.

**ESKORIATZA Taldeko dantza ludikoak, Patxi Monterorekin**

Denoi zabalik dago. Sarrera 5 euro da.

Bihar, zapatua, kultur etxean, 18:00etan.

**ESKORIATZA 'Resolución de conflictos' hitzaldia**

*Resolución de conflictos, ¿cómo nos podemos arreglar bien, a pesar de las diferencias?* delako hitzaldia egingo du Oscar Redondo psikologoak (Lahar elkargoa).

Abenduaren 1a, eguaztenaKultur etxean18:00etan

**BERGARA 'Krisiak eta azpiegiturak' jardunaldietako ekintzak**

Gaur, egubakoitza, Krisi ekologikoa eta krisi ekonomikoa: elkarrekintzak delako berriketaldia izango da gaztetxean, 19:30ean; etzi, domeka, *Collapse* dokumentala emango dute, eta berriketaldia egingo dute gero; gaztetxean, 18:00etan. Gaztetxeak eta AHTren aurkako Bergarako taldeak antolatu dituzte jardunaldiok.

Gaztetxean.

ZIENTZIARENKUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

ESKAINTZA

**Asteburuo, pertsonako 10 baino gutxiagoren truke, hau guztia eskeintzen dizugu:**

- Planetariumeko saioa, 360°tako kupulan proiektatuta
- 170 modulu interaktibo baino gehiago
- Errusiar mendiaren simulagailua
- Esperimentuak zuzenean
- Haurrentzako jarduerak (Planetarium Txikia, eskulanak...)
- Zientzia ikuskizunak
- Ingurumena eta energiari buruzko gunea (GAIA)
- Bisita erosoa izan dadin, beste zerbitzu batzuk:
doako parkin zabala, pic-nic gune itxia, haur parkea, naturgunea, autobus geltokia (28, 31 eta 35 zenbakiak)

Informazio gehiago: *www.miramon.org* edota 943 01 24 78

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
*www.miramon.org*

**Ordutegia**
Astelehenetan itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

kutxa | www.kutxasocial.net

# ZINEMA

## OÑATI

### KULTUR ETXEA

**La red social**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.
**El supercanguro**
Zapatua eta domeka: 17:00.

## ARETXABALETA

### ARKUPE

**Izarren argia**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 16:00.
**Astro boy**
Domeka: 17:00.

## ELGETA

### ESPALOIA

**El baile de la victoria**
Eguaztena: 21:30.

## ARAMAIO

### KULTUR ETXEA

**Alicia en el país de las maravillas**
Egubakoitza: 22:15.
**Arthur y la venganza de Maltazard**
Domeka: 17:00.

## EIBAR

### COLISEO ANTZOKIA

**Jackass (3D emanaldiak)**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.
Martitzena: 19:30.

### COLISEO 1

**Los seductores**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.
Martitzena: 17:00, 19:30.

### COLISEO 2

**Skyline**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena: 20:30.
Martitzena: 17:00, 19:30.

## GASTEIZ

### GURIDI

**Entre lobos**
17:30, 20:00 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Ladrones**
17:30, 20:00 (egubakoitzetik domekara), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Skyline**
18:30, 20:15 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Tamara Drewe**
17:30 (egubakoitzetik eguenera), 20:00 (egubakoitza eta zapatua).
**Harry Potter y las reliquias de la muerte**
16:45, 19:30 (egubakoitzetik domekara), 22:15 (egubakoitza eta zapatua), 17:30, 20:15 (astelehena).
**Los ojos de Julia**
17:30 (egubakoitzetik eguenera), 20:00 (egubakoitza eta zapatua).
**The town, ciudad de ladrones**
20:00.
**Caza a la espía**
17:30, 20:00 (egubakoitzetik domekara), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Gru, mi villano favorito (3D emanaldiak)**
16:45 (egubakoitzetik domekara).
**Cruzando el límite**
20:00 (domekatik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).

### FLORIDA GURIDI

**The way**
17:30, 20:00 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Copia certificada**
18:00 (egubakoitzetik eguenera), 20:15 (egubakoitzetik domekara), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Chloe**
18:00, 20:15 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Uncle Boonmee recuerda sus vidas pasadas**
17:30, 20:00 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Propios y extraños**
18:00, 20:15 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**18 comidas**
17:30, 20:00 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).
**Bon appetit**
18:30, 20:15 (egubakoitzetik eguenera), 22:30 (egubakoitza eta zapatua).

### YELMO GORBEIA

**F.C.Bartzelona-Real Madrid**
21:00 (astelehena).
**Los otros dos**
19:55.
**Imparable**
20:10, 22:10, 00:10.
**Cruzando el límite**
00:35.
**Jackass 3 (3D emanaldiak)**
22:05.
**Gru, mi villano favorito**
16:10 (zapatua eta domeka), 18:10.
**Ga'hoole (3D emanaldiak)**
15:55 (zapatua eta domeka), 17:55.
**Avatar (3D emanaldiak)**
23:50.
**Harry Potter y las reliquias de la muerte**
16:00 (zapatua eta domeka), 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30.
**La bella y la bestia (3D emanaldiak)**
15:50 (zapatua eta domeka), 17:50.
**Skyline**
15:30, 16:30 (zapatua eta domeka), 17:30, 18:30, 19:30, 20:30, 21:30, 22:30, 23:30, 00:30.
**Entre lobos**
15:45 (zapatua eta domeka), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.
**La red social**
19:50, 22:10.
**The town, ciudad de ladrones**
18:05, 20:20, 22:35, 00:50.
**Los ojos de Julia**
15:50 (zapatua eta domeka), 18:05, 20:20, 22:35, 00:50.
**Salidos de cuentas**
15:45 (zapatua eta domeka), 17:45, 19:45.
**Caza a la espía**
17:30, 19:40, 21:50, 00:00.
**Agnosia**
21:45, 23:45.
**Ladrones**
15:55 (zapatua eta domeka), 18:05, 20:15, 22:25, 00:35.
**Izarren argia**
16:10 (zapatua eta domeka).
**El aprendiz de brujo**
15:30 (zapatua eta domeka).
**Chloe**
16:40 (zapatua eta domeka), 18:40, 20:40, 22:40, 00:40.

Azaroaren 26tik abenduaren 2ra. Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

### ABACO BOULEVARD

**Los otros dos**
15:55, 18:10, 20:25, 22:40.
**Imparable**
16:20, 18:20, 20:25, 22:35, 00:45.
**Cruzando el límite**
22:20, 00:30.
**Ladrones**
16:05, 18:15, 20:25, 22:35.
**Gru, mi villano favorito**
16:15, 18:15, 20:15.
**La bella y la bestia (3D emanaldiak)**
16:30, 18:30 (egubakoitza eta zapatua), 15:50, 17:45 (domekatik eguenera).
**Bon appetit**
16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30
**Campanilla y el gran rescate**
16:30, 18:20.
**Harry Potter y las reliquias de la muerte**
16:00, 16:30, 19:00, 19:30, 22:00, 22:30, 00:50 (egubakoitza eta zapatua), 19:40, 22:30 (domekatik eguenera).
**The town, ciudad de ladrones**
17:00, 20:00, 22:25, 00:50.
**Los ojos de Julia**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.
**Salidos de cuentas**
16:15, 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.
**Caza a la espía**
20:30, 22:45.

Azaroaren 26tik abenduaren 2ra. Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.

# KRITIKA

**CYRUS** ★★★★★

**Zuzendariak:** Mark Duplass, Jay Duplass.
**Herrialdea:** AEB.
**Urtea:** 2010.
**Aktoreak:** John C. Reilly, Jonah Hill, Marisa Tomei.
**Iraupena:** 92 minutu.



## Sentimenduen guda zibilizatua

Bitxia da ikustea Ridley eta Tony Scott *Cyrus*–en ekoizle lanak egiten. Batez ere, horiek egiten dituzten filmek ez dutelako zerikusi handirik Duplass anaiek egin dutenarekin.

Scott anaiek irudi ikusgarriak sortu nahi dute, kamara geldoa oso gustukoa dute, koloreekin eta musikarekin ere jokatzen dute, estetikoki ikuslea liluratuta uzteko, eta kasu batzuetan eskua joaten zaie. *Cyrus* estetikoki guztiz desberdina da. Zuzendariek ez dute irudi politak sortu nahi, gaizki fokatutako irudiak daude, kamara kulunkatu egiten da eta batzuetan gehiegi hurbiltzen da aktoreen aurpegietara; agian, bat-batean ateratako irudien sentsazioa lortu nahi dute. Eta egia esateko, kontatzen den istorioari ez dakit mesede handirik egiten dion horrek.

Cyrus izeneko istorio txiki honetan, hirukote baten harreman sentimentalak kontatzen zaizkigu. Dibortziatuta dagoen gizon batek gustuko duen emakume bat ezagutzen du. Biak euren harremanak sendotzeko prest daude, baina emakumeak 21 urte dituen eta nahiko xelebrea den seme bat dauka. Honek ez du bigarren maila baten geratu eta lehen zuen postu pribilegiatua galdu nahi, eta hortik aurrera bi gizonen arteko guda zibilizatu bat sortuko da, hau da, moduak zainduko dituzte emakumea sortutako gatazkari buruz konturatu ez dadin.

*Cyrus*–en kontatzen zaigun istorioa ondo uler dezakegu. Gizakien arteko harremanak nahiko konplexuak izaten dira: mesfidantzak, zeloak sortzen dira eta horrela gauzak konplikatuz joaten dira. Eguneroko istorio bat da, baina zuzendari-gidoilariek, batez ere semearen pertsonaiaren bidez, filmari tonu bitxia edo ezohikoa ematen diote. Eta gidoitik ateratako ukitu desberdina eta hiru aktoreen lan ederra dira, filmatzeko aukeratutako modu zalantzagarriaren gainetik, filmaren alderdi aipagarrienak.

IZENABIZENAXXXX

TIRA-BIRAKA

ana zubillaga ©





goiena

2010-11-26

**HARPIDETZA:** ARETXABALETA 20550, E05 BASABE POLIGONOA | TEL.: 943 08 10 50 | HARPIDETZA@GOIENA.COM


BUKATZEKO

# Irrien lagunen familia hazi egin da aurten

- 'Ongi etorri, Pupu eta Lore' ikuskizuna estreinatuko dute zapatuan Eskoriatzako kiroldegian
- Tiritatxo, Largabista, Marikalanbre eta Martinbertso dira pailazo ezagunen lagun berriak

**ARRITXU BARRUSO** | ESKORIATZA

"Irrikan gaude zapatua iritsi eta Eskoriatzara joateko, gure jarraitzale guztiekin batzeko eta Pupu eta Lore aurkezteko. Asko maite gaituzue Debagoienean eta baita guk zuek ere", esan digu Pirritx pinpirinak telefonoz.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizun berriarekin datoz, eta, ohi bezala, estreinaldia Eskoriatzan izango da. Sarrerak hamar minutuan agortu ziren; horrek argi utzi du ibarreko txikitxoek irrien lagunak ikusteko eta ongi-ongi marimondongi pasatzeko duten gogoa eta ilusioa, pailazook pilla-pilla patata-tortilla maite dituzte-eta.




Marimo, Porrotx eta Pirritx, Lore eta Pupu piratatxo biki bihurriekin. | WWW.KATXIPORRETA.COM

### Lagun berriak

Pirritxek izan berri dituen bikiak aurkeztuko dizkigu: Lore (zelai bateko lore bat bezain polita delako) eta Pupu (pupu hartuta jaio zelako). Pirritx, Porrotx eta Marimototsek ume jaioberriak hazi eta hezi egingo dituzte. Porrotxek, gainera, gizonezkoa izan arren, titia emango die bikiei; katxiporreta! Izan ere, esnerik ez eman arren, maitasun handia emango die, eta txokomarrubizko musu asko.

Umetxoak hazi eta hezteko osasuna garrantzitsua da, eta horretaz arduratuko da Tiritatxo mediku laguna. Natura ere zaindu egin behar dela irakatsiko du Largabista jaunak, ilargira eta buelta zaindu ere. Marikalambre neska marimatrakak zientziaren magia oparituko du eta zientzia beti ondo erabili behar dela irakatsiko du. Azkenik, Martinbertso, Martinber lagunentzat, kontu kontari ibiliko da, umeei kultura zer den eta euskal kulturak usain, zapore eta kolore berezia duela erakusten.

### CDa eta DVDa Durangon

*Ongi etorri, Pupu eta Lore* ikuskizun berriko ipuin eta kantuak CD baten bildu dituzte; guztira, 18. Eguenean aurkeztu zuten. Eta *Irrien lagunak* aurreko ikuskizuneko DVDa ere kaleratu dute. Durangoko Azokan egongo dira salgai, eta Elkar dendetan. Bada, unblenble, altxa kopa hori, on egin, eta gora San Fermin!

AZKEN HITZA



**IDOIA ETXEBERRIA**

## Ez naiz harri jasotzailea

Baina izan nintekeen, izen-abizenei begiratuz gero. Euskal Herriko txapelduna. Oriokoa, 17 urte. Ni baino apurtxo bat gazteagoa da. Pixka bat indartsuagoa: 138 kiloko harria. "Nire izena" zenbatena den jakiteko, Internetera jo dut. "Idoia Etxeberria" jarrita, emaitzak: Zuzenbideko irakaslea, Behobia-Donostia egin duena, animalien defendatzailea, torturak jasandako abertzalea, Nafarroako kantaria, adimen urrikoei lana aurkitzen laguntzen diena…

Gogoetak, bilaketaren harira. Bat: zenbat Idoia Etxeberria ote daude munduan? Zenbat Mikel Irizar Debagoienean? Eskerrak ez naizela Maria Garcia! Abizena arrunta izanda, izena behintzat originala izan dadila, ala? Umeak izatean, pentsatu beharrekoa. Bi: komunikabideen boterea, eta sare sozialena. Curriculumean baino datu gehiago aurki daitezke Interneten. Fitxatuta gaude! Anonimoa izateko, hobe izen bereko asko.

Eta abizenak? Gurasoak ados ez badaude, ordena alfabetikoan? "Horrekin, akabo Zurutuza!", diote batzuek. Gurasoak ez badira ados jartzen, akabo harremana! Inportanteena pentsaraztea da: bata zein bestea jar daiteke. Umeari amaren abizena jarri dionak hamaika aldiz entzun behar baitu: "Zergatik ba?".


## Geriatria Laguntzaile Ikastaroa

**EZAUGARRI OROKORRAK**
**Iraupena:** 252 ordu (2011ko otsailetik ekainera arte)
**Hizkuntza:** Gaztelera
**Ikastaroaren hasiera:** 2011ko otsailak 1.
**Matrikula epea:**
- **Idazkaritzan:** 2010eko abenduaren 1etik 22ra arte.
- **Internetez:** 2010eko abenduaren 23tik, 2011ko urtarrilaren 9ra arte.

*Aurrez-Aurreko Modalitatea*
**Klase-eguna:** asteartea, astezkena eta osteguna
**Klase-ordutegia:** 17'00 — 21'00
**Prezioa:** 168

*Modalitate Konbinatua*
**Prezioa:** 250

**BEHERAPENAK***
- EINen izena emandako langabeak:
  - %50eko beherapena aurrez-aurreko modalitatean.
  - %25eko beherapena modali-tate konbinatuan.
- KUTXAko bezeroak: %25eko beherapena (bi modalitateetan).

* Ez pilagarriak.

UNED BERGARA

**Informazioa eta Matrikula**
UNED-Bergara
Martin Agirre Deunaren Plaza 4
20570 Bergara
Tel. 943 76 90 33
*http://www.uned.es/ca-bergara*

kutxaZABAL ZENTROAK. DEBA

GOIENA | PUBLIZITATE GEHIGARRIA | 2010-11-26 | EGUBAKOITZA
**Arduraduna:** Leire Kortabarria | **Erredakzioa:** Jokin Bereziartua, Lander Muñagorri

# ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA



## Berritzeko garaia

**Egongela, merkea eta erosoa**
**Sukalde praktikoak, joera berriekin**
**Etxebizitzaren egoera**
**Eraikin ekologikoak, errealitate**

FAGORMUEBLES.COM

bastidasukaldeak

ESKAINTZA BEREZIAK
ETXE TASATUENDAKO ETA BABES OFIZIALEKOENDAKO

ANIMA ZAITEZ!

**zarautz**
elizaurre 3, 20800
tel.: 943 89 49 99 faxa: 943 89 49 98

**azpeitia**
perez arregi 9, 20730
tel./faxa: 943 15 05 10

**bergara**
ibargarai 36-38, 20570
tel./faxa: 943 76 70 58





Grupo Ormak promotoreak Bergaran, San Lorentzo auzoan egin duen eraikin bat, lehen lerroan; atzealdean, egiten dabilen etxebizitza batzuk. | LANDER MUÑAGORRI

# Etxebizitzaren egoera gogorraren aurrean, tinko

## Grupo Ormak etxeak egiten dabil Bergaran, Zestoan eta Hernanin; Donostian beste bi proiektu ditu

Etxebizitzaren krisia finantza krisi mundialarekin batera iritsi zen gurera, eta gaur egun oraindik ere "kezkagarria da. 2010. urte honetan higiezinen merkatuan hobekuntza txiki bat egon bada ere, oraindik ere beharko litzatekeenaren azpitik dago", azaltzen du Mauricio Arregik, Grupo Ormak -eko gerenteak. Lizitazioak %30 egin du behera aurten Gipuzkoan, eta datorren urterako datu okerragoak espero ditu Arregik.

Egoera eskasa baldin bada ere, Gipuzkoan urtero egiten diren etxebizitzek eskariari erantzuten diote, Grupo Ormak-eko gerenteak ziurtatzen duenez. "Etxebizitzen *boom*-aren garaian, Gipuzkoan eraikitako etxebizitzen kopurua hazi egin zen, baina era orekatuan. 2007an, Espainiako Estatuan, batez beste urtean 16 etxebizitza eraikitzen baldin baziren 1.000 pertsonarendako, Gipuzkoan bost egin ziren", dio Arregik. Hori dela eta, Gipuzkoan oraindik ere eskaria dago, nahiz eta lozorroan dagoen, egoera ekonomikoa egonkortu arte.

Egoera honetan, Gipuzkoako hainbat eraikuntza enpresak internazionalizatzeko pausoa eman dute. "Mendebaleko ekonomia jasaten ari den krisi sakon hau dela eta, eraikuntza enpresen etorkizunak ildo horretatik jo beharko du", dio Arregik. Garapen bidean dauden herrialdeak ditu jomuga hori esanda.

### GIPUZKOAN SENDO

Aipatutako internazionalizaziotik kanpo, Grupo Ormak etxean egiten ari da lan. "Gaur egun Bergara, Zestoa eta Hernanin eraikitzen ari garen promozioan, oraindik etxebizitzak salgai daude, eta Donostiako San Bartolome eta Aieten beste bi proiektu garrantzitsutan barneratuta gabiltza beste bi eraikuntza enpresa garrantzitsurekin batera", zehazten du Mauricio Arregik.

### BABES OFIZIALA, GORA

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailak 2010eko hirugarren hiruhilekoari buruz emandako datuen arabera, EAEn 8.107 etxebizitza berri zeuden salgai. Horietatik guztietatik, 3.410 (%42) babes ofizialekoak ziren eta 4.698 (%58), libreak. Gipuzkoari dagokionez, bestelako datuak eskaini zituzten; izan ere, 2.557 etxebizitza berri egin ziren, horietatik 969 (%37,9) babes ofizialekoak eta 1.589 (%62,1), libreak.

Hala ere, hurrengo urteei begira, babes ofizialeko etxebizitzek gora egingo dutela aurreikusten da. "Egun indarrean dagoen Lurzoruaren Legeak zehazten duenez, urbanizagarriak diren lursailetan eraikitzen diren etxebizitzen %75ek babesekoak izan behar dute; %55ek babes ofizialekoak eta %20k tasatuak", azaltzen du Arregik. Lursail urbanoak direnean, bestalde, %40an dago ezarrita babeseko etxebizitzen kopurua, %20 babes ofiziala, eta beste hainbeste tasatu. "Lursail urbanizagarrietan egin behar diren proiektu urbanistikoak kontuan hartzen baldin baditugu, babes ofizialeko etxebizitzen gorakada atzeraezina da", Arregiren ustez.

Aipatutako etxebizitza ereduez gain, alokairua ere hor dago, baina gaur egun oraindik EAEn arrakasta eskaseko eredua dela azpimarratzen du Mauricio Arregik. Etxebizitza, Herri Lan eta Garrailo Sailak eskainitako datuen arabera, 3.108 etxebizitza sozial eta libre zeuden alokairuan 2010. urteko hirugarren hiruhilekoan. Salmentan, berriz (berri eta erabilitakoak), 25.208 etxebizitza zeuden. Hau da, eskaintzen ziren etxebizitzen %10,69 zeuden alokairuan. "Hala ere, datu hauek gora egin dute azken urteetan, 2000. urtean adinako hiru bider etxebizitza gehiago jartzen baitira alokairuan gaur egun", Arregiren hitzetan.

Edozein modutan ere, Europako herrialdeetan batez besteko alokairuan eskaintzen diren etxebizitzen portzentajea %25ean dago. "Urruti gaude, beraz, datu horietatik", zehazten du Grupo Ormak-eko gerenteak.




# Egongela, merkea eta erosoa

**Egongela eta logeletan prezio merkeari eta erosotasunari begiratzen dio bezeroak; egoera ekonomikoak geroago eta gehiago eragiten du etxearen apainketan**

Etxeko deskantsurako eta aisialdirako guneak apaintzeko orduan ez da aldaketa handirik izan azken urtean. Erosotasuna eta prezio merkea dira egongela eta logelak –eta oro har, etxe osoa– apaintzeko orduan bezeroek gehien baloratzen dutena.

Krisiak dekorazioaren mundua ere astindu du, eta bezeroak, oro har, ez dio lehen besteko garrantzirik ematen etxea apaintzeari. Hori dela eta, noski, neurriak hartzera behartu du etxe saltzailea. Etxearen apainketa merkeagoa izateko aukera eman dute eta egongela eta logela *egiteak* zenbat kostatuko den galdetzen du lehendabizi bezeroak. Adibidez: Bergarako Ugarte aroztegikoek aditzera eman dutenez, 4.000 euro kosta dezakeen logela bat material merkeak erabiliz egokitzen bada –melomina, esaterako–, 3.000 euroraino jaits daiteke logelaren prezioa.

**ALTZARI PRAKTIKOEN BILA**

Horrez gain, Ugarte aroztegikoen arabera, dekorazioan ez da berritasun handirik izan: "Aurten ez dago nobedade handirik. Akaso, intxaur kolorea asko sartu dela", azaldu du Ugarteko Rosa Muradasek. Egongeletan espazioak berebiziko garrantzia izaten jarraitzen du eta altzari gutxi sartzea da joera. Altzariei dagokienez, tiraderadunak eta ez tiraderadunak erabiltzen dira –tiradera horietako asmo metalezkoak dira azkenaldian–. Altzari baxuak eta minimalistak dira nagusi. Izan ere, espazioaren eta erosotasunaren mesederako, altzari gutxi eta ahalik eta praktikoenak eskatzen ditu bezeroak. Sofei dagokienez, bestalde, *chaise longue* estilokoek dute arrakasta handien. Hau da, *L* forma duten sofak dira, etzanda egoteko ezin egokiagoak direnak: telebistari begira ez lokartzea gero eta zailagoa da. Estilo horretako sofa horien artean ez dira salduenak duela gutxi irten ziren sistema aurreratuez hornitutako sofak; garestiegiak dira. Orain, erosoak baina sinpleagoak eta, beraz, merkeagoak eskatzen dira. Gogoratu behar da erosotasuna eta prezio merkea direla ardatzak.

Logeletan ere nobedade gutxi. Muradasek adierazi duenez, koloreetan, zuria kristalarekin edo aluminioarekin konbinatzea da azken joeretako bat.

**Dekorazioan aurrezteko joera oso garbia da egun**

**Intxaur kolorea asko sartu da egongelan eta logelan**



**Altzari gutxi eta handiak nagusi egongelan.** | UGARTE AROZTEGIA



**Altzari baxuak eta minimalistak dira azken joerak.** | UGARTE AROZTEGIA



**Zuria eta beltza konbinatzea oso ohikoa da.** | UGARTE AROZTEGIA




**JOSE ARANZABAL SUKALDEAK**
Bañez doktorea 2 • ARRASATE
Tel.: 943 79 18 92
*aranzabal.cocina@euskalnet.net*

FAGOR

Deskontu bereziak bazkide eta promozioentzako
Neurrira egindako finantzaketa • Gremioen koordinazioa
Esperientzia eta bermea




2. FASEA SALMENTAN | San Lorentzo auzoa BERGARA

"1 eta 2 logelako etxebizitzak, garaje eta trastelekuak. 3 logelako duplexak"

Eraikitzailea: INGESLAN CONSTRUCCIONES
Sustatzailea: Ormak
Argibidea eta Salmenta: 943 424 430
www.ormak.es

132.000€-tik aurrera


**Marrazkien bidez sukaldea pertsonalizatzen dute askok.** | FAGORMUEBLES.COM


**Etxetresna integratuak.** | FAGORMUEBLES.COM


**Betiko koloreak nagusi: zuria, beltza eta gris**

# Sukalde praktikoak, joera berriekin

## Lehen ere merkatuan zeuden estiloek nasusi izaten jarraitzen dute

Gure ibarrean sukaldeak saltzen dituzten etxe gehienak bat datoz: lehendik merkatuan zeuden joerek nagusi izaten jarraitzen dute. Gehienek esaten dutenez, bezeroak krisia heldu aurretik baino gutxiago inbertitu gura du etxea apaintzen eta horrek aldaketendako aukera gutxi uzten ditu. Edozelan ere, joera berri batzuk aipatu dizkigute gurean sukaldeak saltzen dituzten Bastida, Servimasa, Eroski, Arantzabal eta Iker etxeek.

### ATEAK, MOTOR BATEKIN

Bastida Sukaldeetan adierazi dutenez, zuria da oraindik sukaldearen kolorea. Distirak pisu handia hartzen du altzarietan, antzinako matearen kalterako. Tiraderadun armairuak oraindik saltzen dira, baina beste armairu mota batzuk ere sartu dira; iazko joerekin alderatuz, hori da aldaketa nagusia.

Etxetresnei dagokienez, herdoilgaitza asko erabiltzen da eta etxetresna handienak integratzeko joera dagoela azaldu dute Bastidakoek. Hau da, labe txikiak eta ke erauzgailuaren kanpaia ez dira gordetzen, oro har. Janaria prestatzeko orduan indukzio bidezko plakak dira erabilienak. Azkenik, uste dute egun sukaldea polita izatea lehen baino garrantzitsuagoa dela bezeroendako.

Servimasako Mikel Etxaniz bat dator tiraderadun altzariak gutxiago saltzen direla esaterakoan. Horrez gain, azken joera baten berri eman digu Etxanizek: altzarietan sistema automatizatuak sartzen ari dira. Hau da, motor txiki baten bidez ateetan






a. | FAGORMUEBLES.COM



**Egurraren berotasuna.** | FAGORMUEBLES.COM



**Tiraderadun altzariak oraindik saltzen dira.** | FORMA.ES

sakatuz zabaltzen diren gero eta altzari gehiago saltzen dira, Etxanizen arabera. Sistema horrek bi helburu ditu: sukaldeko jarduna erosoa eta praktikoa izatea, hain zuzen.

Koloreei dagokienez, Etxanizek dio, zuriaz gain, alberjinia –berenjena– kolorea "gutxinaka" saltzen ari dela. Hori bai, betiko koloreak dira nagusi, "argi eta garbi". Hau da, zuria, beltza eta grisa. Etxetresnetan, bestalde, lurrun-labea izaten ari den arrakasta aipatu du Servimasako arduradunak: "Janariaren zaporea eta propietateak hobeto mantentzen ditu eta jendea kontaratu da horretaz", adierazi du. Gainera, herdoilgaitzak diren etxetresnak ere "asko" saltzen dira eta janaria prestatzeko orduan Etxanizek nabarmendu egin du indukzio bidezko plaken nagusitasuna. Azkenik, bezeroak prezioari asko erreparatzen diola dio; izan ere, krisia sukalderaino sartu zaigu.

## EGURRA AGERTZEN DABIL

Iker Sukaldeak etxeak datorren urtean arrakastatsua izan daitekeen aldaketa baten berri eman digu: altzarietako ateetan kristala datorrela diote eta baita tiradedun armairu integratuak ere. Horrez gain, baina, "nobedade handirik ez". Hori bai, iazko nahiko berriak ziren altzarietako marrazki pertsonalizatuak errotu dira gaur egun, eta gero eta gehiago eskatzen dituzte bezeroek.

**Tiraderadun altzariak oraindik ere saltzen dira**

Etxetresna herdoilgaitzak saltzen dira gehien Iker-en, "azken hiru edo lau urteetan moduan", arduradunek diotenez. Finean, Iker-ekoek azaldu dutenez, erosotasuna eta praktikotasuna bilatzen du bezeroak sukaldean. Bestalde, Amaia Arantzabal Arantzabal Sukaldeak etxeko arduradunak azaldu duenez, egungoa prezioak baldintzatutako sukaldea da. Altzarietan, gainontzeko etxe saltzaileek azaldutakoaren bat eginez, tiradedun armairu gutxi; eta armairu gehienak zuriak edo zuriak eta beltzak dira. Etxetresnak, frigorifikoa ezik, integratuta doaz.

Arantzabal etxeak beste berritasun bat ere aipatu du: egurrezko altzaria hasi da sartzen. Ez da lehengo baserri-giroa, baina sukaldeari giro beroagoa eman gura dio. Gutxinaka saltzen dabil, Arantzabalekoen arabera.

**Etxetresnetan, elektronikan izan dira nobedadeak**

## NOBEDADE ELEKTRONIKOAK

Eroskiko Josu Ogidak adierazi duenez, etxetresnetako nobedade nagusiak elektronikarekin zerikusia dutenak dira: labeetako pirolisia, indukzio bidezko plaketako olioaren tenperatura neurtzeko sentsoreak, frigorifikoetako *0 Gunea*... Horrez gain, kristalezko etxetresnak ere hasi dira saltzen, beltzean edo gorrian: "Oso politak dira, baina oraindik pixka bat garestiak", dio. Izan ere, etxetresnetan jende askok aprobetxatzen du Renove plana, eta hurrengo hilabeteotan salmentak asko baretzen dira.

Azkenik, etxetresnak altzari moduan integratzeko joera bueltatzen ari da eta herdoilgaitza gero eta gehiago ari da saltzen.




Egoin SA - Zurezko Eraikuntzak
Astei - 48287 Natxitua-EA (Bizkaia)
Bidea Ereñotik
Tel.: 94 627 6000
Fax.: 94 627 6335
e-mail: egoin@egoin.es
www.egoin.es

egoin
ZUREZKO ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIÓN EN MADERA

**EGOIN S.A. ZUREZKO ERAIKUNTZAK**

**EGO_CLT™: Egur trinko kontralaminatua**

Erabilera anitzekoa denez, oso material egokia da, era guztietako proiektu arkitektonikoak eraikitzeko. EGO-CLT ™ eta EGO_CLTMix ™ panel autoeramaileen bidez, zutabe eta hagetan lehen mailako egiturarik ez duten eraikin garbiak egin daitezke. Gainera, erresistentzia mekaniko handia dutenez, era birtualean mugagabeak diren hegadak sortu daitezke.

Batez ere, solairuarteko panelak, kanpoko zein barruko hormak eta teilatuko panelak sortzeko erabiltzen dira. Neurrira egiten direnez, askoz errazagoa da forjatuetan eskailera-zuloak egitea, hormetan arotzeria-zuloak sortzea, kanalizazioak eraikitzea…















zetabi
arkitektura bulegoa

Zetabi arkitektura bulegoa SLP
Telleria 21 C-06 lokala
Bergara 20570
Tel/fax 943 76 53 09
e-mail: zetabi@zetabi.eu
www.zetabi.eu

**ZETABI ARKITEKTURA BULEGOA SLP**

**Etorkizunera begiratzen duten etxebizitzak.**

- Naturaren baliabideak aprobetxatu.
- Energia kontsumoa txikia.
- Bizi kalitate hobea.
- Ekologikoak, CO2 igorpen txikiko proiektuak.



# Eraikin ekologikoen proposamena, errealitate

## Zetabi Arkitektura Bulegoak aurrefabrikatutako materialekin eraikin ekologikoak egiten ditu

Zetabi Arkitektura Bulegoan, beste hainbat proiektuz gain, eraikin ekologikoak ere egiten dituzte. Horixe bera egin zuten, esaterako, Berrobiko Telleri baserrian. "Nekazaritza ekologiko bidezko produktuen ekoizpenean dihardute bertan, eta ekologia gaiekin oso sentsibilizatuta daude", Aitor Zubia Zetabiko kideak dioenez. Bi apartamenturekin osatutako landetxe bat egin nahi zuten baserri horretan. "Ahalik eta eraikin ekologikoena izan zedin eskatu ziguten, bai eraikuntza eta bai energia ekoizpenaren aldetik ere", dio Zubiak.

Horretan lanean hasi ziren Zetabiko lankideak. "Ekologikoki eraginkorra den eraikin bat diseinatzeko orduan, elementu garrantzitsuenetariko bat eraikinaren orientazioa eta distribuzioak dira", Aitor Zubiaren zehaztapenen arabera. Horiez gain, eraikuntzan erabiliko diren materialek eta energia ekoizpen sistemek ere berebiziko garrantzia dute, Zetabi Arkitektura Bulegoko kidearen hitzetan. Horregatik, "naturak ematen dizkigun baliabideak aztertu behar dira, neguan eguzkiaren argitasuna eta berotasuna aprobetxatuz, eta udan, berriz, itzalak sortuz, besteak beste".



**Berrobin eraiki duten landetxeak bi apartamentu dauzka.** | ZETABI

### EGURRA, MATERIAL APARTA

"Eraikinaren distribuzio egokiak proiektatzearekin batera, nahiko argi genuen egurrezko eraikin bat nahi genuela", dio Zubiak. Arkitektoak zehazten duenez, beste material batzuek ez dituzten ingurumen abantailez gain, egurra lehengai bikaina da eraikuntzarako: zaratatik, hotzetik eta berotik babesten gaitu, eta etxeko hezetasuna erregulatu.

**Berrobiko landetxea hiru astean eraiki zuen Zetabik**

Abantaila horiek guztiak kontuan hartuta, Egoin aurre-ekoizpeneko enpresarekin elkarlanean aritu zen Zetabi Arkitektura Bulegoa. Egoadapta sistema erabiltzen du Egoinek; hau da, aurrefabrikatutako piezak egiten dituzte. Era horretan, eraikuntza prozesuan denbora luzea aurrezten da eta obretan sortzen diren hondakinik ia ez da sortzen. Telleri baserrian egin duten landetxea hiru astean eraiki zuten, irail erdialdean hasi eta urriko lehen astean amaitu zuten.

Egoin enpresak egurrezko piezak eskaintzen ditu, eta, aipatutako lanetan egin bezala, eraikina osorik egurrez eraikiz gero $CO_2$ igorpenak murriztu egiten ditu.

### ENERGIA GEOTERMIKOA

Berrobin eraikitako landetxeak, gainera, zoru bero-emaile bidezko berokuntza erabiltzen du, eta "horren energia geotermia bidez lortuko da. Energia ekoizpen honetan lurrak duen beroaz baliatzen gara etxea berotzeko", dio Aitor Zubiak.

"Eraikuntza honetan fase guztietan $CO_2$ igorpena txikitzea lortu da", dio Zubiak. Horren harira, naturak ematen dituen baliabideak erabiliz egin behar direla etorkizuneko eraikinak azaltzen du arkitektoak.







EROSKI
zurekin
azaroaren 11tik abenduaren 24ra arte
JOSTAILUAK NAHI DITUT!
ez ordaindu
2011 otsaila
arte
Baldintzei buruz galdetu hipermerkatuan
GABON EGUN HAUETAN
%10
Jostailuetan


ARETXABALETA
ERDI-ERDIAN
2. FASEA salmentan
PREZIO BERRIAK
2 eta 3 logelako etxebizitzak
beheko solairuan, trastelekuekin
•
Garaje itxiak.
•
Laster, etxebizitza pilotua bisitatu.
ORTUIBAR Ibargarai 36 • 20570 Bergara • Tel.: 943 76 11 18
ORTUZAL Lausitta kalea • 20550 Aretxabaleta • Tel.: 943 79 40 00
ortuibar@telefonica.net